


Año L. urtea

125 - 2018

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



# FONTES

## LINGVÆ

### VASCONVM

#### STVDIA ET DOCUMENTA

**Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta**

Año L. urtea - N.º 125. zk. - 2018

Urtarrila-ekaina / Enero-junio



## FONTES LINGVAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Euskal hizkuntzalaritzako aldizkaria, 1969. urteaz geroztik argitaratua.

Seihilabetekaria.

<http://culturana Navarra.es/eu/fontes-lingvae-vasconvm>

### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

ZUZENDARIA: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

Iñaki Camino Lertxundi (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

Joakin Gorrotxategi Txurruka (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, USA)

Joseba Lakarra Andrinua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

Céline Mounole Hiriart-Urruty (Université de Pau et des Pays de l'Adour - UPPA, IKER UMR 5478, Frantzia)

Blanca Urgell Lázaro (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

IDAZKARIA: Paz Ezcurra Barrena (Nafarroako Gobernua)

### ERREDAKZIOA ETA ADMINISTRAZIOA:

Nafarroako Gobernua

Argitalpen Bulegoa

Navarrería kalea, 39

31001 Iruña

TEL: 848 424 732

[fontes@navarra.es](mailto:fontes@navarra.es)

### HARPIDETZAK:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 Iruña

TEL: 848 427 121

[fondo.publicaciones@navarra.es](mailto:fondo.publicaciones@navarra.es)

<https://publicaciones.navarra.es>

Jatorrizko bakoitza aztertzeke, sistema anonimo bat erabiliko da (itsu bakoitza), kanpoko gutxienez ere bi aditu izanen direlarik aztertzaile.

Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

Debekatuta dago erreproduzitzea, osorik nahiz zatika, argialetxearen baimenik izan ezean, eta betiere jatorria.

Aldizkari hau ondoko hauetan dago sartuta:

Dialnet, Centro de Documentación César Borgia, LLBA; REGESTA IMPERII; ISOC; DICE; Latindex; COPAC; SUDOC; ZDB; ISSN Register online; ULRICH's; Recolectaf; RESH; MIAR.

ANEP, CIRC eta CARHUSeko C kategorian sailkatua.

© Nafarroako Gobernua

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia

© Egileena.

LG: NA 184-1969

ISSN: 0046-435X

ISSN-e: 2530-5832

DISEINUA: Giovanni Malucelli

KONPOSIZIOA: NB Servicios Gráficos

INPRIMAKETA: xxxx



## FONTES LINGVAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Revista de lingüística vasca, editada desde 1969.

Publicación semestral.

<http://culturana Navarra.es/es/fontes-lingvae-vasconvm>

### CONSEJO DE REDACCIÓN:

DIRECTOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa)

Íñaki Camino Lertxundi (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

Joakin Gorrotxategi Txurruka (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, USA)

Joseba Lakarra Andrinua (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

Céline Mounole Hiriart-Urruty (Université de Pau et des Pays de l'Adour - UPPA, IKER UMR 5478, Francia)

Blanca Urgell Lázaro (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU)

SECRETARIA: Paz Ezcurra Barrena (Gobierno de Navarra)

### REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN:

Gobierno de Navarra

Negociado de Publicaciones

Navarrería, 39

31001 Pamplona

TEL: 848 424 732

[fontes@navarra.es](mailto:fontes@navarra.es)

### SUSCRIPCIONES:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Pamplona

TEL: 848 427 121

[fondo.publicaciones@navarra.es](mailto:fondo.publicaciones@navarra.es)

<https://publicaciones.navarra.es>

Cada original será sometido a un sistema anónimo (doble ciego)  
de revisión por pares de al menos dos especialistas externos.

El contenido de los artículos es de exclusiva responsabilidad de los autores.

Prohibida la reproducción total o parcial sin permiso de la Editorial y,  
en cualquier caso, citando su procedencia.

Revista incluida en:

Dialnet, Centro de Documentación César Borgia, LLBA; REGESTA IMPERII; ISOC; DICE;  
Latindex; COPAC; SUDOC; ZDB; ISSN Register online; ULRICH's; Recolectaf; RESH; MIAR.

Clasificada dentro de la categoría C de ANEP, CIRC y CARHUS.

© Gobierno de Navarra

Departamento de Cultura, Deporte y Juventud

Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

© De los autores

DL: NA 184-1969

ISSN: 0046-435X

ISSN-e: 2530-5832

DISEÑO: Giovanni Malucelli

COMPOSICIÓN: NB Servicios Gráficos

IMPRESIÓN: xxxx



## FONTES LINGVAE VASCONUM. STUDIA ET DOCUMENTA

Journal of Basque Linguistics, aimed at the academic community and published since 1969.

Biannual publication.

<http://culturana Navarra.es/en/fontes-lingvae-vasconvm>

### EDITORIAL BOARD:

CHIEF EDITOR: Ekaitz Santazilia Salvador (Public University of Navarra)  
Iñaki Camino Lertxundi (University of the Basque Country - UPV/EHU)  
Joakin Gorrotxategi Txurruka (University of the Basque Country - UPV/EHU)  
José Ignacio Hualde (University of Illinois at Urbana-Champaign, USA)  
Joseba Lakarra Andrinua (University of the Basque Country - UPV/EHU)  
Céline Mounole Hiriart-Urruty (Université de Pau et des Pays de l'Adour - UPPA, IKER UMR 5478, France)  
Blanca Urgell Lázaro (University of the Basque Country - UPV/EHU)  
SECRETARY: Paz Ezcurra Barrena (Government of Navarra)

### EDITORIAL OFFICE AND ADMINISTRATION:

Gobierno de Navarra  
Negociado de Publicaciones  
Navarrería, 39  
31001 Pamplona, Spain  
TEL: +34 848 424 732  
[fontes@navarra.es](mailto:fontes@navarra.es)

### SUBSCRIPTIONS:

Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra  
Navas de Tolosa, 21  
31002 Pamplona, Spain  
TEL: +34 848 427 121

[fondo.publicaciones@navarra.es](mailto:fondo.publicaciones@navarra.es)  
<https://publicaciones.navarra.es>

Each original text is subjected to double-blind peer review by at least two external specialists.

The contents of the articles are the sole responsibility of the authors.

Total or partial reproduction prohibited without the permission of the Publisher and, in all events, citing the source when reproduced.

### Journal included in:

Dialnet, Centro de Documentación César Borgia, LLBA; REGESTA IMPERII; ISOC; DICE; Latindex; COPAC; SUDOC; ZDB; ISSN Register online; ULRICH's; Recolectaf; RESH; MIAR.

Classified in ANEP, CIRC and CARHUS group C.

© Government of Navarre  
Department for Culture, Sports and Jouth  
General Directorate of Culture-Príncipe de Viana Institution

© The authors.

LD: NA 184-1969  
ISSN: 0046-435X  
ISSN-e: 2530-5832

DESIGNED BY: Giovanni Malucelli  
LAYOUT BY: NB Servicios Gráficos  
PRINTED BY: xxxx  
Country of Publisher: Spain

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año L. urtea - N.º 125. zk. - 2018

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

Azpeitiko euskararen hiztegi dialektal bat – I Ander Beristain	7
Ezeztapenaren hurrenkera euskal egitura perifrastikoetan: hurbilpen diakroniko-tipologikoa Iker Salaberri	55
Jean Etxepare eta Pío Baroja Aitor Ortiz de Pinedo	85
Oiartzungo azentuera zaharra José Ignacio Hualde	113
Erroibarko aldaeraren inguruan (eta 6 – Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Bigarren erdia) Koldo Artola	133
Representaciones transtextuales y heterolingües (para la memoria) en la novela <i>Manu militari</i> Ana Gandara, Miren Ibarluzea	191
Jean Barbier-en <i>Piarres</i> XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan Ana M. Toledo	221
Erreseinak / Reseñas / Reviews	251
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	257



# Azpeitiko euskararen hiztegi dialektal bat – I

---

Un diccionario dialectal del euskera de Azpeitia – I

---

A dialectal dictionary of Azpeitia Basque – I

Ander BERISTAIN  
University of Illinois at Urbana-Champaign  
anderb2@illinois.edu

Lehenik eta behin, nire esker ona adierazi nahi nioke proiektu honetan modu batera edo bestera parte hartu duen pertsona orori. Ama, aita, Joseba, Eneko, izeba Kontxi, osaba Oscar, eta lagunok, eskerrik asko beti laguntzeko prest egoteagatik. Ondoren, esker berezi bat eman nahi nieke Ostaizka Belaustegiri, Pello Elorzari eta Lierni Varelari hiztegiari azken ukituak ematen laguntzeagatik. Hiztegia goitik behera irakurri eta zuzenketa zurrinak eman dizkidaten bi errebisatzaile anonimoei ere, eskerrik asko. Amaitzeko, Jose Ignazio Hualde eskertu nahi nuke proiektu hau egin nezala proposatzeagatik eta hiztegiaren garapen prozesuan hainbeste lagundu izanagatik. Milesker emandako babesarengatik eta konfiantzarengatik, eta nirekin partekatutako jakintasunagatik.

Jasotze data: 18/10/2017. Behin-behineko onartze data: 08/11/2017. Behin betiko onartze data: 08/01/2018.



## LABURPENA

Hiztegi honen ildo nagusiak Azpeitiko euskararen azentua eta fonologia dira. Hiztegian, azpeitieraz gertatzen diren aldaketa fonologikoak azaldu dira. Izenen eta izenondoan kasuetan, hiru forma aurkeztu dira. Lehena, flexiorik gabeko absolutiboko forma mugagabea da, eta ondorengo biak kopuladunak, bai singularrean bai pluralean. Hiru formak azentu aldaketa adierazteko erabili dira. Aditzen kasuan, partizipio perfektiboan eta ez-perfektiboan ageri zaizkigu, beti ‘da/du’ aditz laguntzailearekin. Bestelako hitz motak forma bakarrean datoz. Lan hau hiztegi osoaren lehen erdia da.

**Gako hitzak:** euskal dialektologia; Azpeitiko euskara; hiztegia; lexikoia; soinu egituraketa.

## RESUMEN

Este diccionario se centra en la acentuación y fonología del euskera de Azpeitia. En el diccionario se describen los cambios fonológicos presentes en dicha variedad. Asimismo, los sustantivos y adjetivos aparecen en tres formas: la forma nuda, y seguidamente la forma de singular y plural en caso absolutivo. Estas tres formas se utilizarán para observar cualquier cambio de acentuación que haya entre ellas. Los verbos aparecen en dos formas, el participio perfectivo e imperfectivo, seguido por el auxiliar de tercera persona. Las demás categorías verbales solo muestran una forma. Este trabajo es la primera mitad del diccionario dialectal.

**Palabras clave:** dialectología vasca; euskera de Azpeitia; diccionario; lexicón; estructura fonológica.

## ABSTRACT

This dictionary focuses on the accent and phonology of Azpeitia Basque. The dictionary provides a statement of the main phonological rules of such variety. In the dictionary, nouns and adjectives are shown in three different forms: uninflected, absolute singular and absolute plural. The three forms are used to indicate any change in stress. Regarding verbs, two different forms are used throughout the dictionary: the perfective and non-perfective forms, followed by a third person singular auxiliary. As for the remaining word categories, only one form is given. This is the first half of the complete dictionary.

**Keywords:** Basque dialectology; Azpeitia Basque; dictionary; lexicon; sound structure.

1. HITZAURREA. 2. CORPUSA. 3. METODOLOGIA. 3.1. Parte-hartzaileak. 3.2. Corpusa erakitzen. 3.3. Datu bilketa. 4. NOLA IRAKURRI/INTERPRETATU HIZTEGIA? 5. AZPEITIKO EUSKARA. 5.1. Azpeitiko euskararen soinu inbentarioa. 5.2. Soinuaren eta ortografiaren arteko elkarrekikotasuna. 5.3. Azpeitiko herriaren kokapen geografikoa. 5.4. Azpeitiko euskararen gertatzen diren aldaketa fonologikoak. 5.4.1. Bokalak. 5.4.1.1. Arauak. 5.4.1.2. Arauen sekuentziazioa. 5.4.2. Kontsonanteak. 5.4.2.1. Palatalizazioa edo bustidura. 5.4.2.2. Bokal arteko kontsonante galera. 5.4.3. Azentuazioa. 6. HIZTEGIA. 7. ERREFERENTZIAK.

## 1. HITZAURREA

Eremu formaletan erabiltzen dugun euskarak eta egunerokotasunean darabilgunak, askotan, ez dute antzekotasun handirik batak bestearekin, ortografiari eta azentuari dagokienez. Hizkuntza batek aurrera jarrai dezan, forma estandarren mantentzea garrantzitsua dela erakutsi digute. Bestalde, hizkuntza baten aldaeren buruz berri ematea aurrekoa bezain garrantzitsua da; izan ere, aldaera bakoitzak hizkuntzek jasan ditzaketen aldaketa fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak azaleratu ditzake. Egun, euskal dialektologiaren arloari so eginez gero, Aurrekoetxea (2003, 2008, 2010, beste askoren artean), Camino (1994, 1999, 2000, 2001, 2003, 2005, askoren artean), Gaminde (1992, 1997, 2000, 2002a, 2002b, 2002c, 2002d, 2003a, 2003b, besteak beste) eta Zuazo (2008, 2014) ditugu lanik emankorrenak plazaratu dituztenak.

Aldakortasunean topatzen ditugu berezitasunak, eta atal hori dugu ustiatu beharrekoa. Bestalde, entzuten, irakurtzen eta hitz egiten ditugun hizkuntzen lexiko iturrietara, hau da, hiztegietara, jotzen dugunean, gaur egun gure artean ditugun gehientsuenak aldaera estandarren isla dira. Halere, baditugu tokian tokiko lexikoa bildu nahi izan duten zenbait hiztegi, hala nola Eibarko euskararen hiztegia, Toribio Etxebarriak (1965-1966) idatzitakoa. Geroago, Argoitiak, Azkaratek eta Gezuragak (1998) lagundu zuten arloan, eta ale berriena Eibarko Euskara Mintegiak eginiko *Eibarko Hiztegi Etnografikoa* (2003) da. Izaguirrek 1970ean Oñati eta haren inguruko hizkeren hiztegia kaleratutakoan jarri zuen bere alea hiztegi dialektalen eremuan, eta Elexpuruk, berriz, 2005ean argitaratu zuen Bergarako euskararen hiztegia.

Gipuzkoan jarraituz, beste hiztegi dialektal batzuk baditugu eskuragarri: Iturainek eta Loidik (1995) Orioko hizkera jorratu zuten; Frailek eta Frailek (1996), Oiartzungoa; eta

Del Castillok, Romok eta Giraltek (2001) Azkoitiko euskararen hiztegi lexiko bat aurkeztu ziguten. 2009an, Gipuzkoako hegoaldeko euskara kontuan hartzen duen hiztegi bat argitaratu zen, Aitor Azpiazuk idatzitakoa. Bertan, Brinkolako euskara azaltzen da.

Argitaraturiko hiztegi dialektalez gain, badira Interneten dauden beste hainbat hiztegi lexiko, pixkanaka-pixkanaka handitzen doazenak: Azpeitia, Azkoitia, Bergara, Eibar, Ondarroa eta beste zenbait herri murgildurik daude horrelako proiektuetan. Corpusei erreparatuz gero, *Erizkizundia* eta *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a (EHHA) dira nagusienak euskal dialektologiari dagokionez. Lehena R.M. Azkuek, Euskaltzaindiaren lehenengo buru izan zenak, egin zuen eta 1925ean argitaratu zen. Bertan, erizkundi hirukoitza egin zuen (fonologikoa, morfologikoa, eta lexikografikoa). Bigarrena corpus modernoagoa dugu, 2005etik aurrera Euskaltzaindiaren Dialektologia Batzordeak argitaratu duen hizkuntza atlas da.

Hitzaurre honekin amaitzeko, azaldu nahi da hiztegi dialektal honen xedea dela euskal dialektologiaren tradizioarekin jarraituz, gaur egungo azpeitiar gazteen euskararen azentuaren eta fonologiaren berri ematen duen iturri sendo bat plazaratzea<sup>1</sup>. Lan osoaren luzera dela-eta, hiztegia bitan banatzea erabaki da. Lehenengo atal honetan, corpusaren nondik norakoak, erabilitako metodologiak, Azpeitiko euskararen ezaugarri fonologiko nagusienak, eta hiztegi dialektalean A hizkitik G hizkira dauden lexiko sarrerek azaldu dira. Hiztegiaren bigarren erdian, ezaugarri fonologiko zein metodologikoen laburpena egin da eta gainontzeko hizkien (I-Z) lexiko sarrerek daude.

## 2. CORPUSA

Hiztegi honen egitura eta definizio gehientsuenak Hualde, Elordieta eta Elordietatik (1994) eskuratu dira. Lan horren corpus originala lan sendoa iruditu zaigu, izan ere, gisa eta testuinguru askotariko hitzen bilkura sendoa plazaratzen du. Bestelako hiztegi dialektalekin konparatuz, non asko lexikoan bakarrik zentratzen diren, Hualde et al.-en (1994) lanak aspektu fonologiko, morfologiko zein sintaktikoak lantzen ditu. Hori dela eta, iturri sendoa iruditu zaigu lan honen corpora eraikitzeko.

Lan hori Lekeitioko hizkerari buruzkoa da eta lehenengo atalean fonologia lantzen da, hau da, Lekeitioko euskararen prozesu fonologiko esanguratsuenak azaltzen dira. Ondoren, atal morfo-sintaktikoa dago, eta azkenik, hiztegi bat. Azken atal horrek lexikoa nabarmentzen du, baina ez azentua. Aurkezten diren hitz asko Lekeitioko hizkeran soilik ageri dira, eta beste asko, berriz, Lekeitioko biztanleen egunerokotasunarekin lotuta daude (itsasoarekin lotutakoak, esaterako). Hala, Azpeitiko euskararen hiztegi dialektal honetarako, lan horren corpusetik abiatu gara. Esan beharra dago, Lekeitioko hitz berezi

<sup>1</sup> Hiztegi honetan aurkezten diren sarrera lexikoen formak zein azentuerak 18-24 urte bitarteko 20 gazte azpeitiarrek darabiltzatenean isla dira. Aurreko belaunaldietan desberdintasun nabarmenik gertatuko balitz, azpi-ohar gisa adieraziko dira.

guztiak eta Azpeitiko euskararen ohikoak ez direnak baztertu egin direla. Halere, Azpeitiko euskararen ohikoagoak diren hitzak gehitu dira corpus dialektologikoa eraikitzeko.

Hiztegian ingelerazko eta gaztelaniazko itzulpenak ematearen arrazoi nagusia euskal dialektologiak son internazionala eskuratu ahal izatea da. Sarrera euskaraz idatzita egon arren, hiztegia irakurtzerako orduan euskara ama hizkuntzatzat ez duten hiztunak erakarri ditzake. Honela, euskara batuaren itzulpen bat eman beharrian, non euskal hiztunek bakarrik ulertuko zuketean, ingelerazko eta gaztelaniazko itzulpenak emanda, euskal aldaera honen berri eman ahal izango dugu lurralde ezberdinetan.

### 3. METODOLOGIA

#### 3.1. Parte-hartzaileak

Hiztegi honen xedea Azpeitiko euskararen lexikoiaren eta soinu egituraketaren iturri eguneratu bat argitaratzea da, eta, horregatik, hiztegiaren parte hartu duten hiztun gehienak gazteak dira.

Proiektu honetan 20 gazte azpeitiarrek hartu dute parte, adin tartea = 18-24 izan da, eta batz besteko adina = 23.3 izan da. Hogei hiztunetatik 10 emakumezkoak dira eta gainontzeko 10ak gizonezkoak. Proiektua egitean, guztiek zituzten gutxienez erdi-mailako ikasketak bukatuta, eta partaideen erdiek unibertsitate ikasketak bazituzten. Nabarmentzekoa da partaide guztiek Azpeitian D ereduko ikastetxe batean jaso zutela beren hezkuntza.

#### 3.2. Corpora eraikitzen

Aurrez esan den bezala, lehenengo urratsa Hualde et al.-ek (1994) bildutako corpora Azpeitiko aldaerara moldatzea izan da. Lehen urrats hori Azpeitiko hiztegi dialektal honen egileak egin du bere kabuz. Egilea Azpeitian jaio eta hezi den hizkuntzalari bat da, eta bertako hizkera darabilki bere egunerokotasunean. Hori horrela, Lekeitioko hiztegiaren agertzen den lexiko sarrera bakoitza, banan-banan, Azpeitiko aldaerara moldatu du, forma absolutiboa mantenduz eta kopula eta artikuludun forma singular zein pluralak gehituz. Azken batean, 2.793 lexiko sarreradun corpus dialektala sortu da. Hitz formak, ordea, gehiago dira, 4. atalean azaldu den bezala, hitz motaren arabera forma gehiago edo gutxiago izango ditu sarrera lexikoak. Hurrengo urratsa hainbat parte-hartzaileei hitz zerrenda bat ematea izan zen, eta haiek emandako emaitzekin, corpusak fidagarritasuna eta objektibotasuna lortu zuen.

#### 3.3. Datu bilketa

Behin-behineko hitz zerrenda eraikita, 20 gazte azpeitiarrei bi ariketa motetatik bat egitea eskatu zaie. Hitzun batzuek gaztelaniazko hitz forma batetik Azpeitiko euskarara itzuli behar izan dute. Adibidez, «*un/a X, el/la X, los/las X*» formak Azpeitiko euskararen emateko eskatu zaie, azentua markatuz. Esaterako, *casa* formatik hiztunek *etxé*

(bat), *etxié*, *etxiék* formak idatzi zituzten. Corpusean ez da *bat* zenbatzailea agertuko flexiorik gabeko absolutiboko forma mugagabeen.

Bigarren ariketan, berriz, autoreak hasiera batean proposatutako Azpeitiko hiru formak emanda, hiztunek horiek zuzenak ala okerrak ziren esan behar zuten. Forma bat baino gehiago erabiliko lituzketen kasuetan, forma horiek zeintzuk diren azaldu zuten. Desberdintasun horiek azpi-ohar gisa adierazi dira corpusean.

Azkenik, hiztun gazte batek hiztegi osoa errebisatu du. Ondoren, aurreko belaunaldian aldaketarik baden edo ez jakiteko, 58 urteko gizona Azpeitiar batek hiztegi osoa errebisatu du, bi belaunaldien hizkeretako aldeak adieraziz. Ezberdintasun horiek azpi-ohar gisa adierazi dira hiztegian.

#### 4. NOLA IRAKURRI/INTERPRETATU HIZTEGIA?

Hiztegian lexiko sarrerak alfabetikoki daude atonduta. Lexiko sarrerei dagokienez, hainbat kategoriatako hitzak topatuko ditugu. Hona hemen erabilitako legenda (*Elhuyar Hiztegia*, 2014):

<i>ad.</i> : aditza	<i>izord.</i> : izenordaina
<i>adb.</i> : adberbioa	<i>junt.</i> : juntagailua
<i>aurrizk.</i> : aurrizkia	<i>onomat.</i> : onomatopeia
<i>erak.</i> : erakuslea	<i>posp.</i> : posposizioa
<i>gald.</i> : galdetzailea	<i>pred. adj.</i> : predikatu adjektiboa
<i>interj.</i> : interjekzioa	<i>zenb.</i> : zenbakia
<i>iz.</i> : izena	<i>zenbtz.</i> : zenbatzailea
<i>izond.</i> : izenondoa, adjektiboa	

Hitz motaren arabera sarrera bakoitzak forma kopuru gehiago edo gutxiago ditu. Esaterako, izenak, izenondoak eta aditzak ez diren hitz motetan forma bakarra jaso da. Izenen eta izenondoen kasuan, berriz, hiru forma aurkeztuko dira. Lehena flexiorik gabeko forma izango da; absolutiboan doan forma mugagabea, alegia. Hurrengo bi formak kopula eta artikulatu singularra eta plurala dutenak dira. Azkenik, hitzen azentua edo bokal tonikoa markatzen da azentu markaren (´) bidez. Hona hemen adibide bat Azpeitiko formak eta Euskara Batuan (eusk. bat.) ditugunak erkatuta:

- (1) *txorí* (1), *txoriyé* (2), *txoriyek* (3) (iz.): bird / pájaro
- 1) *txorí* bat (eusk. bat.: *txori* bat) [abs. mugagabea]
  - 2) *txoriyé* da (eusk. bat.: *txoria* da) [abs.+ izan sg.]
  - 3) *txoriyek* die (eusk. bat.: *txoriak* dira) [abs.+ izan pl.]

Aditzen kasuan, bi forma aurkeztuko dira: forma burutua eta ez-burutua, beti hirugarren pertsona singularrari dagozkionak. Hirugarren pertsona erabiltzeak badu bere arrazoiak: lehenik eta behin, aditza iragankorra edo iragangaitza den erakutsiko digu, eta bigarrenik, aditzak forma burutuan eta ez-burutuan azentu aldaketarik nabaritzen

duen edo ez ikusaraziko digu. Hualde eta Bilbao (1992: 42) azaldu zuten aditz batzuen forma burutuek eta ez-burutuek azentua silaba ezberdinetan dutela, esaterako *ikúsi* baina *íkusten*, edo *emón* baina *émoten*. Alabaina, *bóta* eta *erábilli* bezalako aditzak salbuespenak dira (Hualde & Bilbao, 1992: 43). Horietan, azentua berdin mantentzen da forma burutu zein ez-burutuan. Honela, hirugarren pertsona erabiltzeak Azpeitiko euskararen aditz formetan egon daitezkeen azentu alternantziak ulertzen lagunduko digu.

Euskara Batuarekin erkatuz gero, Azpeitiko euskararen aditz iragankorrek eta iragan-gaitzek forma ezberdinak dituzte:

- (2) *ikusí du (1), ikústeu (2)* (iragankorra)
- 1) Forma burutua: *ikusí du* (eusk. bat.: (hark) *ikusi du*)
  - 2) Forma ez-burutua: *ikústeu* (eusk. bat.: (hark) *ikusten du*)
- etorri da (1), etórtzea (2)* (iragangaitza)
- 1) Forma burutua: *etorri da* (eusk. bat.: (hura) *etorri da*)
  - 2) Forma ez-burutua: *etórtzea* (eusk. bat.: (hura) *etortzen da*)

## 5. AZPEITIKO EUSKARA

### 5.1. Azpeitiko euskararen soinu inbentarioa

Azpeitiko euskararen 5 bokal ditugu: *a, e, i, o, u*. Kontsonanteei dagokienez, Azpeitiko euskararen aurki ditzakegun fonemak 1. taulan azaltzen dira, *fonema {ortografikoki}* moduan:

1. taula. Azpeitiko euskararen kontsonante inbentarioa<sup>2</sup>

	Ezpain- karia	Horz- karia	Hortzobietako bizkarkaria	Hortzobietako apikala	Sabai- karia	Belarra
Herskaria (a-)	p {p}	t {t}			c {tt}	k {k}
Herskaria (a+)	b {b}	d {d}			ʒ {-dd-}	g {g}
Igurzkaria (a-)	f {f}		s {z, s}		ʃ {x}	x {j}
Afrikaria (a-)			ts {tz, ts}		tʃ {tx}	
Sudurkaria	m {m}			n {n}	ɲ {ñ}	
Albokaria				l {l}	ʎ {ll}	
Dardarkari bakuna				r {-r-}		
Dardarkari anitza				r {r-}, {-rr-}		
Hurbilkaria					j {y-}, {-i-}	

2 Hualde, Lujanbio, eta Zubiritik (2010, 113. or.) jasota eta Azpeitiko aldaerarako birmoldatuta.

Soinu horiek hainbat testuingurutan azal daitezke, baina ez beti guztietan. Bigarren taulan Azpeitiko euskararen fonemak eta haien balizko ingurune linguistikoak ditugu.

2. taula. Azpeitiko euskararen fonemak eta haien balizko ingurune linguistikoak<sup>3</sup>

	Hitz Hasieran	Hitz Barnean	Hitz Amaieran
/p/	<i>paxíra</i> [paʃíra] 'paseo, stroll'	<i>trapú</i> [trapú] 'trapo, rug'	-
/t/	<i>tálo</i> [tálo] 'talo, corncake'	<i>até</i> [até] 'puerta, door'	<i>bat</i> [bat] 'uno, one'
/c/	<i>ttántta</i> [cánca] 'gotita, little drop'	<i>atté</i> [acé] 'padre, father'	<i>politté</i> [policé] 'bonito, beautiful'
/k/	<i>kótxe</i> [kótʃe] 'coche, car'	<i>akér</i> [akér] 'carnero, male goat'	<i>menditík</i> [menditík] 'desde el monte, from the mountain'
/b/	<i>besó</i> [besó] 'brazo, arm'	<i>abixú</i> [aβíʃú] 'aviso, warn'	-
/d/	<i>dotoré</i> [dotoré] 'elegante, elegant'	<i>adñ</i> [adɲ] 'edad, age'	-
/ʎ/	-	<i>onddó</i> [oɲó] 'hongo, fungus'	-
/g/	<i>gezúr</i> [gesúr] 'mentira, lie'	<i>magál</i> [mayál] 'regazo, lap'	-
/f/	<i>fedé</i> [fedé] 'fé, faith'	<i>afái</i> [afái] 'cena, dinner'	<i>úf</i> [úf] 'interj. de cansancio, interj. of tiredness'
/s/	<i>zoró</i> [soró] 'loco, crazy'	<i>azaldú</i> [asaldú] 'explicar, aparecer/ to explain, appear'	<i>gorríz</i> [gorís] 'en rojo, in red'
/ʃ/	<i>xagú</i> [ʃagú] 'ratón, mouse'	<i>ixildú</i> [iʃildú] 'callarse, to shut up'	<i>erréx</i> [eréʃ] 'fácil, easy'
/x/	<i>jakíñ</i> [jakín] 'saber/conocer, to know'	<i>ajáu</i> [axáu] 'ajar, to be worn out'	<i>aj</i> [ax] 'interj. de asco, interj. of disgust'
/ts/	<i>maiátz</i> [maiáts] 'mayo, May'	<i>átzeaka</i> [átseaka] 'hacia atrás, backwards'	<i>maátz</i> [maáts] 'grape'
/tʃ/	<i>txíngorra</i> [tʃíngora] 'granizo, hail'	<i>atxurré</i> [atʃuré] 'borrachera, drunkenness'	-
/m/	<i>makál</i> [makál] 'lento, slow'	<i>ámama</i> [ámama] 'abuela, grandmother'	-
/n/	<i>neké</i> [neké] 'cansancio, tiredness'	<i>Saninásiyo</i> [saninásijo] 'S. Ignacio, St. Ignatius'	<i>entzún</i> [entsún] 'escuchar, to listen'
/ɲ/	<i>ño</i> [ɲó] 'interj. de sorpresa, interj. of surprise'	<i>belañó</i> [belanó] 'bruma, low fog'	<i>áiñ</i> [áɲ] 'tan, so'
/l/	<i>loré</i> [loré] 'flor, flower'	<i>eláu</i> [eláu] 'helado, ice-cream'	<i>ostirél</i> [ostirel] 'viernes, friday'

3 Hualde et al. (2010, 114. or.)-tik jasota eta Azpeitiko euskarara birmoldatuta.

	Hitz Hasieran	Hitz Barnean	Hitz Amaieran
/k/	<i>llaberó</i> [laβeró] 'llavero, keychain'	<i>olló</i> [oɫó] 'gallina, hen'	<i>íll</i> [iɫ] 'morir, to die'
/r/	-	<i>saré</i> /saré/ 'red, net'	-
/r/	<i>róxa</i> [róʃa] 'rosa, pink'	<i>arratói</i> [aratói] 'rata, rat'	<i>sagár</i> [sayár] 'apple'
/j/	<i>Jon</i> [jón] 'Jon (nombre), Jon (name)'	<i>égiye</i> [égije] 'la verdad, the truth'	-

## 5.2. Soinuaren eta ortografiaren arteko elkarrekikotasuna

Ortografiari dagokionez, aldaketa batzuk egin ditugu euskara batutik. Lehenik, <h> hizkia ez dugu erabili ortografikoki letra hori dagoen kasuetan. Honela, esaterako, *hamar* hitza *amar* idatzi da.

Gero, Azpeitiko euskararen, /ʃ/ hortzobietako soinu bizkarkariaren (euskara batuan <z> grafiaz irudikatua) eta /s/ hortzobietako soinu apikalaren (euskara batuan <s> grafiaz aurkeztua) neutralizazioa gauzatu da. Bi soinu horiek /ʃ/ bezala ahoskatzen dira (Beristain, 2018; Hualde, 2010). Beristainen (2018) emaitzen arabera, neutralketa nagusi den ere, pixkanaka galtzen ari den prozesua izan daiteke irakaskuntzaren eraginagatik. Haren lanean, Azpeitiko hainbat hiztunek, 4/12, <s> eta <z> bereizi baitzituzten. Hori dela eta, hiztegiaren ortografiari dagokionez, bi hizkiak erabiltzea erabaki da euskara batuaren arauei jarraikiz. Honela, *zazpi* eta *sare* bezalako hitzek soinu txistukari bera izango lukete, baina lehena «Z» atalean dago, eta, bigarrena, «S»-n. Lan honetan, ordea, /s/ fonema erabiltzen da soilik, marka diakritikorik gabe.

## 5.3. Azpeitiko herriaren kokapen geografikoa

Azpeitia Gipuzkoa erdialdeko udalerrri bat da, Urola bailaran dagoena. Izarraitz mendilerroaren magalean dago. Iparraldean Zestoa du; ekialdean, Errezil eta Beizama; hegoaldean, Urrestilla, Nuarbe eta Matxinbenta; eta mendebaldean, Azkoitia, eta ondoren, Elgoibar.

## 5.4. Azpeitiko euskararen gertatzen diren aldaketa fonologikoak

Bonaparte (1863) printzearen lehen sailkapen dialektologikoak euskalkiak, azpieuskalkiak, hizkerak eta azpihizkerak bereizi zituen. Azpeitiko aldaera argi markatzen da hark egindako mapan. Yrizarrek (1991, 3-5, 307-310. or.) Bonaparteren sailkapena berrerabiliz Azpeitiko hizkera iparraldeko gipuzkeraren barnean kokatzen du. Azpeitiko auzoak diren Urrestilla eta Matxinbenta Azpeitiko hizkera barruan kokatzen ditu.

Gaur egun, ordea, Zuazoren (2008, 2014) euskalkien sailkapena dugu nagusia. Hor, Azpeitiko aldaera sartaldeko euskararen barruan, Urolaldeko hizkeretan dagoen barietatea da. Ondoren azalduko diren aldaketa fonologiko ugari bestelako aldaera



Gipuzkoarretan ere jazotzen dira. Gertakari fonologiko bakoitzarekin batera, beste azpi-euskalki batzuetan zer-nolako ezberdintasunak ditugun azalduko da.

#### 5.4.1. Bokalak

##### 5.4.1.1. Arauak

Bokalei dagokienez, hauek dira Azpeitiko euskaran gertatzen diren aldaketa nagusienak:

###### a) $a \rightarrow e / \_a$

Lehenengo erregela /a/ bokalaren igoera da [e]-rantz <a> bokalaren aurrean dagoenean. Erregela hau inguruko hizkeretan ere topatzen dugu, Elgoibarkoan esaterako (Makazaga, 2010). Arau hau duten hizkera guztietan araua singularrean aplikatzen da baina pluralean ez, ezta lokatiboan ere: *eskolan*, *gelan*. Ondorengo arauetan azaltzen den bezala, bokalek hurrengo aldaketak jasaten dituzte Azpeitiko euskaran: *aa > ea > ia > ie*.

Hala eta guztiz ere, badira euskal hizkera anitzetan ditugun salbuespenak, esaterako *aita* eta *ama* hitzak, hauek ez baitira \**amie* edo \**attie* (Makazaga, 2010, 46. or.). *Aita* eta *ama* hitzak izen propio bezala erabiltzen dira, eta pentsa genezake hori dela bokal aldaketa sekuentziazioa ez aplikatzearen arrazoia. Familia bereko beste hitz batzuk, ordea, aldakortasuna erakusten dute hizkeratik hizkerara. Esaterako, *alaba* hitzak forma ezberdinak ditu Elgoibarko eta Azpeitiko euskaran; Elgoibarko euskaran *alabie* da, baina Azpeitikoan *alaba*. Mugatutzat jotzen ditugun hitz-taldean dago *alaba* hitza Azpeitiko euskaran. Honelako beste batzuk ere badaude, *aza* hitza esaterako. Hualde eta Beristainen (2017, 74. or.) lanean hitz honek aldakortasuna zuen. Izan ere, hiztun batzuk determinatzailea gehitzerakoan *azie* zioten, baina beste batzuk, berriz, *aza*. Gertakari hau egun gertatzen ari den fenomeno dela dirudi, eta etorkizunean sakonago aztertu beharrekoa da.

###### b) $\emptyset \rightarrow [j] / i\_V$

Bokal arteko kontsonante epentesia euskal hizkera askotan gertatzen den fenomeno bat da (Gaminde, 2002d). Azpeitiko aldaeran [j] soinu sabaikariaren epentesia gertatzen da bokal arteko eremuan (grafikoki <y> bezala adierazten dena), lehen bokala [i] den kasuetan (Altuna, 1956, 1985; De Rijk, 1970; Hualde & Gaminde, 1997), adib. eusk. bat. *egia*, baina Azp. eusk. *egiye*.

Deskribapen sakonagoa eginez, Zuazok (2008) dio bokal arteko kontsonante epentesiak hedadura nabarmena duela euskal hizkeretan, Gipuzkoako iparraldean, Deba ibar osoan, Bizkaiko eremu zabalean, Lapurdiko itsasbazterrean eta Nafarroako alderdi bitan zabalduz berrikuntza hau. Azpeititik iparralderantz, hau da, Zestoa, Zumaia<sup>4</sup>, eta

4 Aurreko belaunaldietan <x>-ren epentesia gauzatzen zen Zumaian, gaur egungo gazteengan, berriz, ez.

Zarautzen, esaterako, [j] soinu sabaikariaren epentesia dago. Esaterako, Zestoan *familiya* esaten da (Azpeitia, 2003, 79. or.), eta Nafarroako Bortzirietan eta Sunbillan kontsonante epentesi berdina gertatzen da (Zuazo, 2008). Azpeititik ekialderantz Errezil dago, eta hizkera horretan ez dago kontsonante epentesirik; hegoalderantz Urrestilla eta Nuarbe daude eta herri hauetako euskeran Azpeitikoan gauzatzen den kontsonante epentesi bera dugu; eta mendebalderantz, adibidez, Azkoitia eta Elgoibarren, [ʃ] sabaiaurreko frikari ahoskabearen epentesia dugu, esaterako, Azpeitia *familiye*, baina Azkoitia *familixe* (Del Castillo et al., 2001, 56. or.), eta Elgoibar *familixa* (Makazaga, 2010, 61. or.).

Mendebaldeko euskalkian bi aldaera izan ditzakegu, sabaiaurreko frikari ahostuna, hots, [ʒ] <dx>, eta sabaiaurreko frikari ahoskabea, hau da, [ʃ] <x>. Gernika eta Busturialde gehiengan, bai eta Nerbioi ibarraren iparraldean, Otxandio-Legutio aldean eta Durangoaldean erabiltzen da sabaiaurreko frikari ahostuna (Gaminde, 2007). Gamindek (2002d, 7. or.) eta Hualdek (1991, 48. or.) azaltzen duten bezala, Markinan edo Ondarroan <x> da gehitzen den kontsonante soinua, Bermeon eta Lekeition, berriz, Deba ibarrean eta Artibai eskualdean, berriz, forma ahostuna darabilte <dx>.

Azpeitiko aldaeraren eta bestelako aldaeren kasuan, aldaketa hori ez da gertatzen testuinguru morfologiko guztietan. Esaterako, Hualde et al.-ek (1994, 39-41. or.) fenomeno hori ager daitekeen testuinguru guztiak aztertu zituzten. Azpeitiko aldaera eta Lekeitiokoa alderatuz gero, lehenik eta behin esango dugu azpiko formetan /i/ bokalak agertu beharko duela, eta ez beheko edo erdiko bokal baten ondorioz sorturiko [i] bat, /mendi-a/ > Azpeitian *mendiye*, eta Lekeition *mendidxa* da; baina *etxea* /etʃe-a/ forma Azpeitiko forman [etʃie] da, eta ez \*[etʃije]. Honen zergatia <i> bigarrenkari izateari dagokio.

Lekeitioko euskaran gertatzen den bezala, kontsonante epentesia prozesu emankorra da *-ia* edo *-oa* formez amaitzen diren maileguekin: esaterako gaztelaniazko *radio*, *armario* eta *vicio* hitzak, *radidxo*, *armaridxo*, *bisidxo* dira Lekeitioko euskaran (Hualde et al., 1994, 39. or.), eta *rádiyo*, *ármayyo* eta *bíziyo* Azpeitiko aldaeran. Hualde et al.-ek (1994, 39-40. or.) aurkeztu zituzten maileguetatik Lekeitioko *espidxa* (espiatu) forma Azpeitiko euskaran *espiau* da. Autoreek azaltzen dute badirela zenbait hitz forma non epentesia hitz barnean (eta ez amaieran, determinatzailearen aurretik) gertatu daitekeen *-io* eta *-ia* konbinazioekin. Esaterako, Lekeition *konfidxantza*, *kridxada*, *kridxau*, eta *meridxenda* bezalako formak ditugu (Hualde et al. 1994, 40. or.), baina hauek gutxi batzuk baino ez dira, izan ere, gehiengoetan ez da transformaziorik jazozen, ikus, esaterako *kurioso*, *gobierno*, *persiana*, *nerbiosa*, etab. (Hualde et al., 1994, 40. or.). Bokal sekuentzia hiatoa edo diptongoa den kontuan eduki behar da. Aurreko adibideetan ikusten den bezala, hiatoa dugun kasuetan kontsonante epentesia gauzatu da, baina ez diptongoen kasuan. Azpeitiko euskararen kasuan, hitz barnean ez da jazozen, hitz amaierara murriztuko da kontsonantearen epentesia.

Kontsonante epentesia ez da gertatzen hitz konposatuetan (Gaminde, 2002d; Hualde et al. 1994). Adibidez, Eusk. Bat. *begiokerra*, Azp. Eusk. *begiokerra*, baina ez \**begiyokerra* [beyjokera]. Albokideak diren hitzen artean ez da gertatzen, esaterako *mendi*

*aundi bat* [mendí.aúndí.βat]. Ikus daitekeen bezala, kasu honetan [i] eta [a]-ren artean ez da epentesirik gertatuko. Lekeitioko euskaran berdin gertatzen da (Hualde et al. 1994, 40. or.).

Eratorpen morfemen mugei erreparatuz, Lekeitioko euskaran zenbait hitzetan epentesia gertatu daiteke, baina ez da prozesu emankorra testuinguru honetan (Hualde et al. 1994). Adibidez, autoreek /lodi-era/ forma *lodidxera* bezala ahoskatu daitekeela azaltzen dute. Halere, /-ar/, /-ago/, /-egi/, /-en/ atzizkietan epentesirik ez da izango Lekeitioko euskaran (40-41. or.). Autoreek *gitxienes* (gutxienez) eta *gitxiago* (gutxiago) adberbioen kasua azaleratzen dute, non Lekeitioko euskaran ez den epentesirik jazo-tzen. Azpeitiko euskararen kasuan, ordea, hitz horietan epentesia egongo da, honela *gútxiyenez* eta *gutxiyo* formak izanik, baina horiek salbuespenak baino ez dira (Altuna, 1956, 172. or.).

$$c) \left( \begin{array}{c} -\text{goiko} \\ -\text{beheko} \end{array} \right) \rightarrow \left( \begin{array}{c} +\text{goiko} \end{array} \right) / \_V$$

$$e \rightarrow i / \_V$$

/e/ bokalaren igoera jazotzen da ([i]-ra) bokalurreko eremuetan. Hiato horietan dauden bi bokalak aldatu ohi dira [ikus De Rijk-en (1970, 154. or.) *Rea* araua; Hualde & Gaminde (1997)], adib. eusk. bat. *umea*, baina Azp. eusk. *umie*. Aldaketa hori beste hainbat aldaeratan gertatzen da, esaterako, Bizkaiko hainbat herritan (Gaminde, 2002d). Orokorrean gertatzen ez den baina Azpeitiko euskaran jazo daitekeen beste aldaketa bat da aldatu den bokala, hau da, *-a* artikulua determinatzailea, desagertu egiten dela (Hualde & Beristain, 2017). Interesgarria da horrelako kasuetan desagertu den segmentua azentudun fonema bat izatea, hau da: *umié* > *umí*. Halere, esan bezala, hori ez da fenomeno orokor bat Azpeitiko euskaran. Beste aldaera batzuetan, ordea, orokorrean gertatzen den fenomeno da hori, esaterako, Ondarroan (Zuazo, 2014).

Aldaketa hori, hots, *e > i*, ez da gertatzen bi hitzen artean Azpeitiko aldaeran, esaterako euskara batuan *ume hura* [ume.ura], Azpeitiko euskaran *ume are*<sup>5</sup> [umé aré] da. Bokal txandaketa hori gerta daiteke *-a* artikulua determinatzailea eta aditz bat ageri ez den kasuetan ere. Esaterako, *zehar* hitza *zier* da Azpeitiko euskaraz; aldiz, *behar* ez da *\*bier* baizik eta *ber*. Hipotesi gisa, esan daiteke homonimia sailhesteko erabiltzen dela *ber* forma *bier* forma beharrean. Izan ere, Azpeitiko euskaran *bier* formak euskara batuko *bihar* formari dagokio.

5 *ume uré* [umé.uré] forma ere erabiltzen da, baina haren erabilera ez da [aré] bezain ohikoa.

**o → u / \_\_V**

Aurreko arauan gertatzen den bezalaxe (e→i), erdiko beste bokalaren igoera gertatzen da; kasu honetan /o/-tik [u]-ra, bokalaurreko testuinguruetan (Hualde & Gaminde, 1997). Hiato horietan dauden bi bokalak aldatu egin ohi dira (hurrengo arauan azalduko den bezala), adib. eusk. bat. *etxekoa*, baina Azp. eusk. *etxekue*.

Badira beste testuinguru batzuk non bokal txandaketa ez den gertatzen, hitz konposatuz ari gara. Izan ere, bokalak mantendu egiten dira, esaterako *etxekoandre* hitza berdin mantentzen da Azpeitiko euskararen. Hitz desberdin artean ez da aldaketarik egiten: *otso hau* [otsó au].

**d) a → e / {u,i}(C)\_\_\_**

Aurreko bi adibideetan azaldutakoarekin jarraituz, /a/ bokalaren igoera gertatzen da ([e]-ra), baldin eta /a/-ren aurretik goiko bokal bat, hots, /u/ edo /i/, badago [ikus De Rijk-en (1970) *Rui* araua; Gaminde (2002d); eta Zuazo (2008, 239. or.)]. Honela, adib. eusk. bat. *umea*, *etxekoa*, *laguna*, baina Azp. eusk. *umie*, *etxekue*, *lagune* formak ditugu. Zenbait hizkeretan, Ondarrokoa barne, bi bokalen sekuentziazioa dugunean bokalen arteko asimilazio osoa dugu (Zuazo, 2008). Honelakoetan, *umí*, *etxekú*, bezalako formak ditugu (Zuazo, 2008, 207. or.).

Aldaketa hori hitzean bertan gertatzen da soilik. Hitzen artean denean ez da gauzatu: *buru hura*, Azp. eusk. *buru are* [burú aré]. Aurreko arauak ez bezala, 4. araua bi bokalen artean kontsonanteren bat dagoenean ere aplikatzen da; adib. eusk. bat. *laguna* baina Azp. eusk. *lagune*; eusk. bat. *mutila*, baina Azp. eusk. *mutille*. Hitz barnean araua ez da beti aplikatzen, adib. Azp. eusk. *zutabe*, ez *\*zutebe*. Hau lexikoki baldintzatutako araua dela dirudi. Nabarmentzekoa da beste hainbat hitzetan <i> bokalak eragindako asimilazio prozesu bat gauzatzen ari dela. Izan ere, *izan*, *bizar*, *kristal*, *ikasi*, *bizkar* hitzak, Azpeitiko euskararen *izan/lizen*, *bizar/bizer*, *kristal/kristel*, *ikaxi/ikexi/ikixi*, *bizkar/bizker* formak baimentzen dira.

Azpeitiko aldaeran *a → e / {u,i}(C)\_\_\_* araua murrizta da. Orokorrean, lexema barruan eta artikulatu formari dagokionean baino ez da gauzatzen. Hualde eta Beristainek (2017) ikusi zuten bezala, adlatiboan gertatu daitekeen arren, esaterako, *mendire* forman, egungo belaunaldietan galdu den fenomeno dugu. Azkoitiko euskararen arau honek barreiadura bera du (Del Castillo et al., 2001). Elgoibarko hizkeran araua oraindik eta murriztagoa da, izan ere, lexema barruan baino ez da jazotzen, ikus Makazaga Eizagirreraren (2010, 53. or.) hurrengo adibideak: *astua* (eta ez *\*astue*), *ganaua* (eta ez *\*ganaue*), *eguna* (eta ez *\*egune*). Beste hizkera batzuetan, ordea, aplikazio eremua zabalagoa da. Gamindek (2002d, 8 or.) azaltzen du Bizkaiko hainbat hizkeratan eratorpen atzizkiei, *-ka > -ke*, aplikatu dezaketela, baina ez *-tasun*, *-garri* eta *-bako* bezalako atzizkiekin.

Zuloagak (2017, 172. or.), Hualderen (1991) aurkikuntzak laburbilduz, arau honek eratorpen atzizkietan duen indarra azaltzen du, bestelako lau euskal aldaerei aplikatuz. Haren hitzetan:

Araua indar handiagoa du Arbizuko hizkeran Baztangoan baino; halaber, Arbizuko euskararen berrikuntza ez da klitikoetara zabaldu, Baztangoan eta Gernikakoan ez bezala: hain zuzen ere, beheko bokalaren asimilazioa testuinguru bertsuetan gertatzen da bi herri horietan, baina ez Ondarroan, non araua betetzeko baldintza fonologikoak Baztanen eta Gernikan baino askoz murriztagoak diren, eta Arbizukoei erabat kontrajartzen zaizkien.

#### 5.4.1.2. Arauen sekuentziak

Aldaketa fonologikoak gertatzen direnean hurrenkera finko batean gertatzen dira bata bestearen atzetik, hots, lehenik (1), ondoren (2), gero (3), eta (4) azkenik (Hualde, 1991; De Rijk, 1970).

Lan honetan euskara batuko formatik abiatu gara, hots, prozesu fonologikorik gabeko formatik; tarteko formak, Azpeitiko euskararekin bat ez etorri arren, prozesuan gertatzen diren urratsak dira. Azkenik, azaleko forma (ingelesezko *surface representation*) Azpeitiko forma izango genuke. Gehitu beharrekoa da tarteko prozesuak lekukoturik daudela Azpeitiko hizkeratik gertu dauden beste hizkera batzuetan, esaterako Zestoa eta Zumaiakoan (*etxia, mendiya, etxekua*) vs. Azpeitiko euskararen (*etxie, mendiye, etxekue*).

Honela, adibidez, *mendia* hitzak Azpeitiko euskararen aurretik azaldutako (2) eta (4) urratsak baino ez ditu jasaten (Hualde & Gaminde, 1997):

- (3) (1) ---  
 (2) *mendia* → *mendiya*  
 (3) ---  
 (4) *mendiya* → *mendiye*

Bestalde, *neska+a* hitz forma *neskie* da Azpeitiko euskararen. Forma hori izatera iristeko (1), (3) eta (4) erregelak jasan behar izan ditu, baina ez (2).

- (4) (1) *neska+a* → *neske-a*  
 (2) ---  
 (3) *neskea* → *neskia*  
 (4) *neskia* → *neskie*

Beste adibide batzuk gehitzearren, ikusi 3. taula:

3. taula. Bokalki sekuentzia aldaketan zenbait adibide Azpeitiko euskaraz

Araua ↓	Azpiko forma →	<i>neska+a</i>	<i>etxe+a</i>	<i>mendi+a</i>	<i>mendiko+a</i>	<i>egur+a</i>
1		<i>neske-a</i>	---	---	---	---
2		---	---	<i>mendi-ya</i>	---	---
3		<i>neski-a</i>	<i>etxi-a</i>	---	<i>mendiku-a</i>	---
4		<i>neski-e</i>	<i>etxi-e</i>	<i>mendi-ye</i>	<i>mendiku-e</i>	<i>egur-e</i>
<b>Azaleko forma</b>	<b>→</b>	<i>neskie</i>	<i>etxie</i>	<i>mendiye</i>	<i>mendikue</i>	<i>egurre</i>

### 5.4.2. Kontsonanteak

Aldaketa kontsonantikoei dagokienez, palatalizazioa eta bokal arteko kontsonanteen galera dira nabarmendu beharrekoak:

#### 5.4.2.1. Palatalizazioa edo bustidura

Palatalizazioa edo bustidura aipatzen dugunean, euskarari dagokionez bi motatako bustidurak izango ditugula jakin behar dugu: «bustidura adierazgarria» (Mitxelena (2011, 183. or.) *palatalización expresiva* izena eman zion eta Hualdek (1991, 121-122. or.), berriz, *affective palatalization*) eta «asimilazio bustidura» (Hualde, 1991; Oñederra, 2004; Zuazo, 2008, 243. or.). Zuazok (2008) asimilazio bustidurak euskal aldaeren artean duen hedakuntza erakusten digu, non argi ikusten den Bizkaiko mendebaldean, hain zuzen ere, Txorierrin, Zeberion, Orozkon, Arratia eta Nerbioi ibarreko hegoaldean busdura ahula dela. Bestelako mendebaldean, Arabako Aramaion, oro har Gipuzkoa osoan, eta Nafarroako ipar-mendebaldean bustidura indartsua dugu (ikus Zuazo, 2008, 245. or.). Osterantzean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean ez dago bustidurarik.

Azpeitiko euskararen kasuan, hemen azaltzen diren bustidura kasuetatik ia guztiak asimilaziozko kasuak dira, bakarra izanik adierazgarria ( $t \rightarrow [c] \langle tt \rangle$ ). /i/ bokal erdiaren eraginez sortutako kasuak asimilazio bustiduraren adibide dira. Bokal altua izanik, atzetik duen kontsonante hobikaria sabaikari izatera igarotzen da (Zuazo, 2008). Bustidura adierazkorra, berriz, Zuazoren (2008, 243. or.) arabera «txikitasuna edo goxotasuna adierazi nahi denean» erabiltzen dena da.

#### a) $l \rightarrow \lambda / i \_ V$

Hau da, /l/  $\rightarrow$  [λ] bihurtzen da bokal arteko eremuetan, lehen bokala /i/ bada (edo honen alofonia den [j]). /i/ bokala goiko bokala denez, /l/ soinuaren palatalizazioari lagunduko dio, adib. *mutila* hitza Azp. eusk. *mutille* [mutiλe] da. /k/ fonema, ordea, ez da hizkera guztietan gauzatzen, izan ere, Euskal Herrian bai euskarari bai gaztelaniari dagokienez, *yeismoa* zabaltzen ari den prozesua dugu, hau da, /k/ eta /j/ soinuen neutralketa [j]-rantz (Oñederra, 2012). *Yeismoa* duten hizkerek, eusk. *mutila* [mutija], eta gaztelaniaz *pollo* [pojo] esango zuket. Azpeitiko euskararen ordea, orokorrean, /k/ eta /j/ fonemak garbi bereizten dira bai euskaraz (Hualde & Beristain, argitarabidean-a), bai gaztelaniaz, orokorrean. Elgoibarko euskararen kasuan, adinekoek mantentzen dute soinu alternantzia, baina gazteengan galdu dela dirudi (Makazaga, 2010, 41. or.).

Bestalde, alternantzia hori hitz amaieran dagoenean, beronen erabilera ez da orokorrean jazotzen Azpeitiko euskararen. Hau da, *mutil* hitza Azp. Eusk. [mutil]~[mutiλ] bezala ahoskatu daiteke. Alternantzia hori kontsonante baten aurretik gertatzen bada, ordea, hitz barnean edo bi hitzen artean, ez dago palatalizaziorik, adib. Eusk. Bat. *mutil bat hil da*, Azp. Eusk. [mutiλ bat il dá], artikulazioari dagozkion arrazoiak direla eta. Bi hitzen artean ez da jazotzen bustidura Azpeitiko euskararen; esaterako, *mendi luzea* [mendi lusie] bezala ahoskatuko da. Kontuan izan behar da arau horiek badituztela kontra-adibideak. Esaterako, eusk. bat. *abila*, eta Azp. Eusk. *abillé* forman araua

betetzen den arren, gaur egungo gazte azpeitiarren euskaran *abilidadade* forman ez da gertatzen<sup>6</sup>.

Hualdek (1991) azaltzen du Baztaneko hizkeran /l/ eta /n/-k palatalizazioa jasateko baldintza gehiago behar dituztela izan. Horien kasuan, kontsonantearen aurretik erdi bokal bat egon behar da. Eta gero, bokal bat izan behar dugu kontsonantearen ondoren palatalizazioa gertatu dadin. Kontsonantea hitz amaieran agertzen bada, nahiz eta erdi bokal bat izan aurretik, ez dago palatalizaziorik. Honela, *erdoil* hitza [erðoɪl] da, baina *erdoila* [erðoɪla] da Baztaneko hizkeran. Beste hizkera batzuetan, berriz, Gernikakoan esaterako, kontsonantea /i/ soinuaren ostean dagoenean hitz amaieran beti izango dugu bustidura, esaterako, Gernika /ibilten/ → [iβiɫcen] (Hualde, 1991, 60-61. or.). Azpeitiko euskaran ez da horrela. Kontsonantea hitz barnean badugu, /i/ soinua izanik aurretik eta atzetik beste kontsonante bat, kasu horretan ez dugu bustidurarik izango, esaterako *albaitaria* hitza Azpeitiko euskaran [alβaitáje]<sup>7</sup> da.

b)  $n \rightarrow \eta$  / i\_\_# ;  $n \rightarrow \eta$  / i\_\_V

Bustidurari dagokionez, /n/ soinu hobikariaren palatalizazioak badu ezberdintasun bat. Soinu hau, hitz amaierako testuinguruan beti izango da [ɲ], Zestoako zein Elgoibarko hizkeretan bezala (Azpeitia, 2003; Makazaga, 2010). Adibide gisa Azp. Eusk. *miñ forma* dugu.

Gero, Azpeitiko euskaran /n/-ren palatalizazioa ez da gauzatuko kontsonante aurretik bada, nahiz eta /i/ soinua izan aurretik, esaterako *intolerantziye* (intolerantzia). Zestoako hizkeran berdin gertatzen da, *intentoak* (saiakerak) hitza, esaterako, *intentuak* esaten da (Azpeitia, 2003, 112. or.).

Bokal arteko ingurunean /n/-ren palatalizazioa gauzatuko da orokorrean. Zestoan *haina* hitza [aɲa] da (Azpeitia, 2003, 24. or.), eta Ondarroan *binaka* [biɲaka] da, Azpeitian bi forma ditugu [biɲaka]~[biɲeka]. Bestalde, beste hizkera batzuk, Baztanekoak esaterako, murriztasun handiagoa erakusten dute arau honi dagokionez, aurretik azaldu den bezala, hizkeran /n/-ren palatalizazioa gertatu dadin kontsonantearen aurretik erdibokal bat beharko dugu eta atzetik bokal bat; esaterako, Baztanen *artzain* [artʃaɪn] da, baina *artzaina* [artʃaɲe] (Hualde, 1991, 114. or.); Azpeitiako kasuan, bi formatan dago bustidura, *artzain* [artʃaɲ] eta *artzaina* [artʃaɲe].

Palatalizazioko (a) atalean azaldu den bezala, Gernikako euskarak hainbat desberdintasun ditu palatalizazioa gertatzeko izan genitzakeen ingurune edo kontestuei dagokionez, izan ere, kasu honetan, kontsonante baten aurretik gertatu ahal izango da, adibidez Gernika /ipinten/ → [ipiɲcen] bezala ahoskatzen da (Hualde, 1991, 61. or.).

6 Adibide horretako palatalizazioa gazteengan galdu den arren, aurreko belaunaldietan mantentzen da, hots, *abilidadade* forma erabil dezakete (ikus corpus hau).

7 Edo *beténayue*.

Erregela honek baditu salbuespenak Azpeitiko euskararen: izen propioak eta mailegu berriak. Izen propioei dagokienez, *Ina* eta *Ináziyo* bezalako izenak ditugu, non bustidura ez den emankorra. Mailegu berrietan, esaterako, *seminariyue*, *minerue*, *kasinue*, ez dugu bustidurarik, aldiz, sudurkari hobikaria mantentzen da. Testuinguru morfologikoei dagokienez, sudurkari hobikariaren bustidura ez da jazoko bi hitzen artean edo hitz konposatuen artean. Esaterako, \**zazpi ñeska* ez da gauzatuko, baik eta [saspi neska] bezala ahoskatuko da. Hitz konposatuen kasuan, *erdi-nahasia* eta *erdi-lotan* bezalako formak lexikalizatuta ez egon arren, bustidurarik ez dagoela ikusi dezakegu.

c) s → ʃ / i\_\_k

- desilúsiyo, desilúsiyue, desilúsiyuek* (iz.): disillusion, disappointment / desilusión.
- desilusionáu du/da, desilusionátzea/desilusionátzeu* (ad.): to disillusion, to disappoint / desilusionar(se).
- deskargáu du, deskargátzeu* (ad.): to unload / descargar.
- deskonfiantza, deskonfiantzie, deskonfiantzak* (iz.): mistrust / desconfianza.
- deskonfíau du, deskonfíatzeu* (ad.): to mistrust / desconfiar.
- deskuénto, deskuéntue, deskuéntuek* (iz.): discount / descuento.
- desmontáu du, desmontátzeu* (ad.): to dismount / desmontar.
- desnibél, desnibéla, desnibélak* (iz.): unevenness / desnivel.
- desobedeziú du, desobedeziúteu* (ad.): to disobey / desobedecer.
- desobédiente, desobédientie, desobédientiek* (izond.): disobedient / desobediente.
- desórden, desórdena, desórdenak* (iz.): disorder, disarray, mess / desorden.
- desordenáu du, desordenátzeu* (ad.): to disarray / desordenar.
- despedída, despedídie, despedídak* (iz.): goodbye / despedida.
- despedíu du/da, despedítzeu/despeditzea* (ad.): to say goodbye / despedir(se).
- dezidíu du, dezidítzeu* (ad.): to decide / decidir.
- diar, diarrá, diárrak edo búlla, búllie, búllak* (iz.): scream / grito.
- dibidíu du, dibidítzeu edo zatitú du, zatítzeu* (ad.): to divide, to distribute / dividir.
- dibortziáda, dibortziádie, dibortziádak* (iz.): divorcee / divorciada.
- dibortziáu da, dibortziátzea* (ad.): to divorce / divorciar(se).
- dibortziáu, dibortziáue, dibortziáuek* (iz.): divorce(e) / divorciado.
- dibórtziyo, dibórtziyue, dibórtziyuek* (iz.): divorce / divorcio.
- diferénte, diferéntie, diferéntiek* (izond.): different / diferente.
- diferéntzi, diferéntziye, diferéntziyek* (iz.): difference / diferencia.
- diferéntziau du, diferéntziatzeu* (ad.): to differ; to distinguish / diferenciar(se).
- dijeríu du, dijerítzeu* (ad.): to digest / digerir.
- dijestíyo, dijestíyue, dijestíyuek* (iz.): digestion / digestión.
- diktadóre, diktadórie, diktadóriek* (iz.): dictator / dictador.

*diktadura, diktadúrie, diktadúrak* (iz.): dictatorship / dictadura.  
*diktáu, diktaué, diktáuek* (iz.): dictation / dictado.  
*diputáziyo, diputáziyue, diputáziyuek* (iz.): provincial government / diputación.  
*dirú, dirué, dirúek* (iz.): money / dinero.  
*dirudún, dirudúne, dirudúnek* (izond.): rich, wealthy / rico, adinerado.  
*disgustáu da, disgustátzea* (ad.): to displease; to be displeased / disgustar(se).  
*disgústto, disgústue, disgústuek* (iz.): disgust / disgusto.  
*dísco, dískue, dískuek* (iz.): disk, record / disco.  
*diskusíyo, diskusíyue, diskusíyuek* (iz.): discussion / discusión.  
*diskutíu du, diskutítzeu* (ad.): to discuss / discutir.  
*diximúlau du, diximúlatzeu* (ad.): to disguise, to conceal / disimular.  
*diximúlo, diximúlue, diximúluek* (iz.): dissimulation / disimulo.  
*dizípulo, dizípulue, dizípuluek* (iz.): disciple / discípulo.  
*dobláu du, doblátzeu* (ad.): to fold / plegar.  
*dóble, dóblie, dóbliek* (iz.): double / doble.  
*dokuméntu, dokuméntue, dokuméntuek* (iz.): document / documento.  
*domináu du, dominátzeu* (ad.): to dominate / dominar.  
*domináziyo, domináziyue, domináziyuek* (iz.): domination / dominio.  
*donánte, donántie, donántiek* (iz.): donor / donante.  
*donazíyo, donazíyue, donazíyuek* (iz.): donation, gift / donación.  
*dósi, dósiye, dósiyek* (iz.): dose / toma, dosis.  
*dotoré* (izond., adb.): elegant(ly) / elegante(mente).  
*dozéna, dozénie, dozénak* (iz.): dozen / docena.  
*dudá, dudié, dúdak* (iz.): doubt / duda.  
*dútxa, dútxie, dútxak* (iz.): ducha.  
*dutxáu da, dutxátzea* (ad.): to take a shower / ducharse.

## E

*e* (adb.): also / también.  
*e(g)arrí, e(g)arríye, e(g)arríyek* (iz.): thirst / sed.  
*é(g)uardi, é(g)uardiye, é(g)uardíyek* (iz.): 1. Midday, 2. midday meal / 1. mediodía 2. comida del día.  
*e(g)ún, e(g)uné, e(g)únek* (iz.): day / día.  
*e(g)únero* (adb.): every day / cada día.  
*e(g)unéz* (adb.): in the day / por el día, de día.  
*e(g)únnon* (iz.): good morning (salutation) / buenos días (saludo).  
*ean* (ad.): to drink / beber.  
*eár, earrá, eárrak* (izond.): nice / bueno.  
*earkí* (adb.): very well, beautifully / perfectamente, hermosamente.  
*ebakí, ebakíye, ebakíyek* (iz.): cut / corte.  
*ebanjélista, ebanjélistie, ebanjélistak* (iz.): evangelist / evangelista.  
*ebanjéliyo, ebanjéliyue, ebanjéliyuek* (iz.): gospel / evangelio.  
*edadé, edadé, edadéek* (iz.): age / edad.  
*edadéko, edadékue, edadékuek* (izond.): old / mayor, de edad.

- edái, édaye, édayek*<sup>20</sup> (iz.): drink / bebida.  
*edifíziyo, edifíziyue, edifíziyuek* (iz.): building / edificio.  
*efékto, eféktue, eféktuek* (iz.): effect, impression / impresión.  
*égan* (adb.): flying; quickly / volando; muy rápido.  
*égi, égiye, égiyek* (iz.): truth / verdad.  
*egoáize, egoáizie, egoáiziek* (iz.): south wind / viento del sur.  
*egó, egué, egúek* (iz.): wing; fin / ala; aleta.  
*egoísta, egoístie, egoístak* (izond.): egoist / egoísta.  
*egósí du, egósteu* (ad.): to boil, to cook / cocer, cocinar.  
*egúr, egurré, egúrrek* (iz.): wood, timber / leña, madera.  
*egurrézko, egurrézkue, egurrézkuek* (izond.): wooden / de madera.  
*eizién ibillí da, eizién ibiltzeá* (ad.): to hunt / andar de caza, cazar.  
*ejértzito, ejértzitue, ejértzituek* (iz.): army / ejército.  
*ejertzíziyo, ejertzíziyue, ejertzíziyuek* (iz.): exercise / ejercicio.  
*ekarrí du, ekártzeu* (ad.): to bring / traer.  
*ekipáje, ekipájie, ekipájiek* (iz.): luggage / equipaje.  
*ekípo, ekípue, ekípuek* (iz.): team / equipo.  
*eláu, elaué, eláuek* (iz.): ice cream / helado.  
*eldú, eldué, eldúek* (izond.): ripe / maduro.  
*ele(g)ánte, ele(g)ántie, ele(g)ántiek* (izond.): elegant / elegante.  
*elejú du, elejítzeu* edo *aukeráu du, aukerátzeu* (ad.): to choose / elegir.  
*elektrizidade, elektrízidadie, elektrízidadiék* (iz.): electricity / electricidad.  
*elektrizista, elektrízistie, elektrízistak* (iz.): electricist / electricista.  
*elekzíyo, elekzíyue, elekzíyuek* (iz.): election / elección.  
*eleménto, eleméntue, eleméntuek* (iz.): element; guy / elemento; individuo.  
*elizá, elizíe, elizak* (iz.): church / iglesia.  
*elkartú da, elkártzea* (ad.): to get together / reunirse.  
*eltxó, eltxué, eltxúek* edo *moskíto, moskítue, moskítuek* (iz.): mosquito / mosquito.  
*elúr, elurré, elúrrek* (iz.): snow / nieve.  
*elurbústi, elurbústiye, elurbústiyeek* (iz.): sleet / aguanieve.  
*emakúme, emakúmie, emakúmiek* (iz.): woman / mujer.  
*emán du, emáteu* (ad.): 1. to give; 2. to carry / 1. dar; 2. llevar.  
*emé, emié, emíek* (iz.): female (said of animals) / hembra (de animal).  
*eméndik áurree* (adb.): from now on / de ahora en adelante.  
*emerétzi* (zenb.): nineteen / diecinueve.  
*emezázpi* (zenb.): seventeen / diecisiete.  
*emezórtzi* (zenb.): eighteen / dieciocho.  
*enána, enánie, enának* (iz.): female dwarf / enana.  
*enáno, enánue, enánuek* (iz.): male dwarf / enano.  
*enbajáda, enbajádie, enbajádak* (iz.): embassy / embajada.  
*enbidióso, enbidiósue, enbidiósuek* (izond.): envious / envidioso.

20 Hitz honetan d>r aldaketa baimentzen da Azpeitiko hitzun batzuetan. Honela, *érari, éraríye, éraríyek* formak onartuz (ikus Hualde & Beristain, argitarabidean-a).

*enbolbíu du, enbolbítzeu* (ad.): to wrap / envolver.  
*enemígo, enemígue, enemíguek* (iz.): enemy / enemigo.  
*enkargáu du, enkargátzeu* (ad.): to commission / encargar.  
*enkargáu, enkargáue, enkargauék* (iz.): person in charge / encargado.  
*enkargú, enkargúe, enkarguek* (iz.): commission / encargo.  
*enkuésta, enkuéstie, enkuéstak* (iz.): poll, survey / encuesta.  
*enpatxáu da, enpatxátzea* (ad.): to get indigestion / empacharse.  
*enpatxó, enpatxúe, enpatxuek* (iz.): indigestion / empacho.  
*enpolláu du, enpollátzeu* (ad.): to cram, to study hard / empollar.  
*enpollói, enpollóye, enpollóyek* (izond.): bookworm (male) / empollón.  
*enpollóna, enpollónie, enpollónak* (izond.): bookworm (female) / empollona.  
*enprésa, enprésie, enprésak* (iz.): enterprise / empresa.  
*enredáu du/da, enredátzea/enredátzeu* (ad.): to entangle, to get entangled / enredar(se).  
*ensaláda, ensaládie, ensaládak* (iz.): salad / ensalada.  
*enterráu du, enterrátzeu* (ad.): to bury / enterrar, dar tierra.  
*entiérro, entiérrue, entiérruek* (iz.): burial / entierro.  
*entráda, entrádie, entrádak* (iz.): entrance / entrada.  
*entregáu du, entregátzeu* (ad.): to deliver / entregar.  
*entreténiu du, entreténitzeu* (ad.): to entertain / entretener.  
*entzaiáu du, entzaiátzeu* (ad.): to try, to rehearse / ensayar.  
*entzáio, entzáyue, entzáyuek* (iz.): rehearsal / ensayo.  
*entzún du, entzúteu* (ad.): to listen, to hear / oír, escuchar.  
*eo edo o* (junt.): 1. or; 2. approximately, about / 1. o; 2. a eso de. E.g.: *ordúbitako eo allaukó gea* ‘we will arrive around two o’clock’ / ‘llegaremos a eso de las dos’.  
*eón da, eótea* (ad.): to be, to stay / estar.  
*eonóiz* (zenbtz.): any time / en cualquier tiempo, cualquier día.  
*eónon* (zenbtz.): anywhere / (en) dondequiera.  
*eóze* (zenbtz.): anything / cualquier cosa.  
*eozéiñ* (zenbtz.): anybody / quienquiera.  
*epél, epelá, epélak* (izond.): mild (temperatura) / templado (temperatura).  
*epeldú du, epéltzeu* (ad.): to warm up / templar, entibiar.  
*epér, eperrá, epérrak* (iz.): partridge / perdiz.  
*er(re)lójó, er(re)lójue, er(re)lójuek* (iz.): watch, clock / reloj.  
*éra, érie, érak edo modú, modué, modúek*<sup>21</sup> (iz.): form / modo.  
*éranun* (iz.) (adb.): day before yesterday / antes de ayer.  
*erabáki, erabákiye, erabákiyek* (iz.): decision / decisión.  
*eragíñ, eragíñe, eragíñek* (iz.): influence, clout / influencia, poder.  
*erakútzi du, erakúzteu* (ad.): 1. to show 2. to teach / enseñar.  
*erantzún, erantzúne, erantzúnek* (iz.): answer, reply / respuesta.  
*eráztun, éráztune, éráztunek*<sup>22</sup> (iz.): ring (jewel) / anillo.

21 Hitz honek baimentzen ditu *morú, morué, morúek* formak ere (Hualde & Beristain, argitarabidean-a).

22 Hitz honek baimentzen ditu *éraztun, éráztune, éráztunek* formak ere.

- érdera, érderie, érderak* (iz.): Spanish language / lengua castellana.
- erdí, erdiyé, erdíyek* (iz.): 1. half 2. middle / 1. mitad; 2. medio.
- erdíbana* (adb.): fifty-fifty, half for each / a medias (en un reparto).
- érdizka* (adb.): so so, half done / así así, a medias.
- eriótz, eriótza, eriótzak* (iz.): death / muerte.
- eriú du/da, erítzeu/erítzea* (ad.): to (get) hurt / herir(se).
- erlé, erlié, erlíek* (iz.): bee / abeja.
- ermitá, ermitié, ermitak* (iz.): hermitage / ermita.
- erói da, eróitzea* (ad.): to fall / caer(se).
- erosí du, erósteu* (ad.): to buy / comprar.
- erramiénta, erramiéntie, erramiéntak* (iz.): tool / herramienta, cacharro.
- errátz, erratzá, errátzak* (iz.): broom / escoba.
- erratzá pasau du, erratzá pasatzéu* (ad.): to sweep / barrer.
- erré du/da, errétzeu/errétzea* (ad.): to burn / quemar(se).
- erre(g)álau du, erre(g)álatzeu* (ad.): to give as a gift / regalar.
- erre(g)álo, erre(g)álue, erre(g)áluek* (iz.): gift / regalo.
- erregé, erregíe, erregíek* (iz.): king / rey.
- erregiñ, erregiñe, erregiñek* (iz.): queen / reina.
- erreká, errekíe, errekak* (iz.): stream / riachuelo.
- errekáu, errekáue, errekáuek* (iz.): errand / recado.
- errémeyo, errémeyue, errémeyuek* (iz.): remedy / remedio.
- errén, errená, errénak* (iz.): limp / cojera.
- errespétau du, errespétatzeu* (ad.): to respect / respetar.
- errespéto, errespétue, errespétuek* (iz.): respect / respeto.
- erréta* (izond.): 1. burnt; 2. exhausted, lacking energy / 1. quemado 2. falta de energía.
- erretráto, erretrátue, erretrátuek* edo *argázki, argázkiye, argázkiyek* (iz.): portrait / retrato, foto.
- erreúsai, erreúsaiye, erreúsayek* (iz.): smell of burning / olor a quemado.
- erréx, errexá, erréxak* (izond.): easy / fácil.
- erréx*<sup>23</sup> (adb.): easily / fácilmente.
- errezáu du, errezátzeu* (ad.): to pray / rezar.
- errí, erriyé, erríyek* (iz.): village, country / pueblo, país.
- errobéra, errobérie, errobérek* (iz.): wheel / rueda.
- erroméi, erroméye, erromeyek* (iz.): festive gathering, normally at a local shrine / romería, verbena.
- erropá, erropíe, erropak* (iz.): clothes / ropa, vestido.
- errósaio, errósayue, errósayuek* (iz.): rosary / rosario.
- errudún, errudúne, errudúnek* edo *kulpáble, kulpáblie, kulpábliek* (izond.): guilty / culpable.
- esáera, esáerie, esáerak* (iz.): saying / dicho.
- esámiñ, esámiñe, esámiñek* (iz.): exam / examen.

23 *erréz* forma ere erabiltzen da adberbio gisa.

*esán du, esatéu* (ad.): to say / decir.  
*eskalé, eskalíe, eskáliek* (iz.): beggar / mendigo.  
*eskándalo, eskándalue, eskándaluek* (iz.): scandal / escándalo.  
*eskapárate, eskapáratie, eskapáratiek* (iz.): showcase / escaparate.  
*eskapáu da, eskapátzea* (ad.): to escape / escapar.  
*eskáu du, eskátzeu* (ad.): pedir / to ask for.  
*eskéla, eskélie, eskélak* (iz.): death notice / esquela.  
*éskerrak emán ditu, éskerrak emateitú* (ad.): to thank, to give thanks / agradecer, dar las gracias.  
*eskerrík asko*: thank you / gracias.  
*eskertú du, eskértzeu* (ad.): to thank / agradecer.  
*eskértzarreko, eskértzarrekue, eskértzarrekuek* (izond.): ungrateful / desagradecido.  
*eskién ibillí da, eskién ibiltzeá* (ad.): to beg / mendigar.  
*esklabízau du, esklabízatzea* (ad.): to enslave / esclavizar.  
*esklabó, esklabúe, esklabúek*<sup>24</sup> (iz.): slave / esclavo.  
*eskóla, eskólie, eskólak* (iz.): school / escuela.  
*eskopéta, eskopétie, eskopétak* (iz.): rifle / escopeta.  
*eskritó(r)iyo, eskritó(r)iyue, eskritó(r)iyuek* (iz.): desk / escritorio.  
*eskú, eskué, eskúek* (iz.): hand / mano.  
*eskubí, eskubíye, eskubíyek* (iz.): right (hand) / derecha.  
*eskulán, eskulána, eskulának* (iz.): craft / artesanía, manualidad.  
*eskumútur, eskumúture, eskumúturek* (iz.): wrist / muñeca (de la mano).  
*eskurtziyo, eskurtziyue, eskurtziyuek* edo *ibilláladi, ibilláladiye, ibilláladiyek* (iz.): excursion / excursión.  
*esné, esnié, esniék* (iz.): milk / leche.  
*espantáu du, espantátzeu* (ad.): to scare away / espantar, ahuyentar.  
*esperántza, esperántzie, esperántzak* (iz.): hope / esperanza.  
*esperiéntzi, esperiéntziye, esperiéntziyek* (iz.): experience / experiencia.  
*espiáu du, espiátzeu* (ad.): to spy / espiar.  
*espíritu, espíritue, espírituek* (iz.): spirit / espíritu.  
*esplikáu du, esplikátzeu* (ad.): to explain / explicar.  
*esplikáziyo, esplikáziyue, esplikáziyuek* (iz.): explanation, explicación.  
*esplosíyo, esplosíyue, esplosíyuek* (iz.): explosion / explosión.  
*esplotáu du, esplotátzeu* (ad.): to explode / explotar.  
*espónja, espónjie, espónjak* (iz.): sponge / esponja.  
*estaziyo, estaziyue, estaziyuek* (iz.): station / estación.  
*esté, estié, estíek* (iz.): intestine / intestino.  
*estimáu du, estimátzeu* (ad.): to appreciate, to be grateful, to esteem / estimar, apreciar, agradecer.  
*estiráu da, estirátzea* (ad.): to stretch / desperezarse.  
*estirói, estiróye, estiróyek* (iz.): pull / estirón.

24 Hitz honek baimentzen ditu *esklábo, esklábue, esklábuek* formak ere. Halere, gaztelaniarako kutsu nabarmenagoa izatea azpimarratu zuten hiztegia irakurri zuten azpeitiarrek.

*estorbáu du, estorbátzeu* edo *molestáu du, molestátzeu* (ad.): to bother, to get in the way / estorbar.

*estorbú, estorbúe, estórbuek* (iz.): bother / molestia, estorbo.

*estropáda, estropádie, estropádak* (iz.): regatta / regata, competición de traineras.

*estropeáu du, estropeátzeu* (ad.): to spoil / estropear.

*estropúz (e)in du, estropúz (e)iteu* (ad.): to trip / tropezar.

*estu, estué, estúek* (izond.): narrow / estrecho.

*estudiáu du, estudiátzeu* edo *ikaxí du, ikáxteu* (ad.): to study / estudiar.

*estúdiyo, estúdiyue, estúdiyuek* (iz.): study / estudio.

*estutú du/da, estútzeu/estútzea* (ad.): 1. tighten 2. to worry / 1. apretar. 2. apurar(se).

*etorri da, etórtzea* (ad.): to come / venir.

*etorri, etorríye, etorríyek* (iz.): fluency / oratoria, labia.

*etxé, etxié, etxiék* (iz.): house / casa.

*etxekó, etxekúe, etxekúek* (iz.): familiar / familiar.

*etxekoándre, etxekoándrie, etxekoándrak* (iz.): housewife / ama de casa.

*etxezúlo, etxezúlue, etxezúluek* (izond.): home-loving / apegado a la casa, que sale poco de casa.

*etzán da, etzátea* (ad.): to lie down / tumbarse.

*etzí* (adb.): day after tomorrow / pasado mañana.

*eukí du, eukítzeu* (ad.): to have / tener.

*eulí, euliyé, eulíyek* (iz.): fly / mosca.

*éun* (zenb.): a hundred / cien.

*eurí, euriyé, euríyek* (iz.): rain / lluvia.

*éuro, éurue, éuruek* (iz.): euro / euro.

*euskáldun, euskáldune, euskáldunek* (izond.): Basque, Basque speaker / vasco, vasco-parlante.

*éuskera, éuskerie, éuskerak* (iz.): Basque language / lengua vasca.

*eutzí du, euzteu* edo *eldú du, éltzeu* (ad.): to hold / sostener, agarrar.

*éuzki, éuzkiye, éuzkiyek* (iz.): sun / sol.

*ewaldí, ewaldíye, ewaldíyek* (iz.): weather / tiempo (meterológico).

*exerí da, exértzea* (ad.): to sit / sentarse.

*ez* (adb.): no, not / no.

*ezagún, ezagúne, ezagúnec* (izond.): known; acquaintance / conocido.

*ezautú du, ezáutzeu* (ad.): to know, to be acquainted with / conocer.

*ezérrez* (Pro, ezer+ere+ez): nothing / nada.

*ezezágun, ezezágune, ezezágunek* (izond.): unknown / desconocido.

*ezík* (adb.): except / salvo, excepto.

*ezín du, ezín izeteu* (ad.): not to be able / no poder. E.g.: *ezin det ekarrí* ‘I cannot bring it’ / ‘no puedo traerlo’; *okerro eziñ* ‘it couldn’t be worse’ / ‘peor imposible’.

*eziñézko, eziñézkue, eziñézkuek* edo *inposible, imposible, imposiblek* (izond.): impossible / imposible.

*ezizén, ezizéna, ezizénak* (iz.): nickname / mote, apodo.

*ezkáz, ezkazá, ezkázak* edo *exkáx, exkaxá, exkákak* (izond.): little, of little value / es-caso, menudo, de poco valor.

*ezkeó* (junt.): if, provided that, in case of / supuesto que, en caso de. E.g. *etorri ezkeo* ‘in case of coming’ / ‘en caso de venir’.



*ezkér, ezkerrá, ezkérarak* (iz.): left (hand) izquierda.  
*ezkerróneko, ezkerrónekue, ezkerrónekuek* (izond.): thankful, grateful / agradecido.  
*ezkértiar, ezkértiarra, ezkértiarrak* (izond.): left-handed / 1. zurdo; 2. de izquierdas.  
*ezkondú da, ezkóntzea* (ad.): to marry / casar(se).  
*ezpañ, ezpañé, ezpañek* (iz.): lip / labio.  
*ezpañetako, ezpañetakue, ezpañetakuek* (iz.): lipstick / pintalabios.  
*ezpatá, ezpatie, ezpátak* (iz.): sword / espada.  
*ezpatádantza, ezpatádantzie, ezpatádantzak* (iz.): sword-dance / ezpatadantza, danza tradicional vasca de las espadas.  
*éztarri, éztarriye, éztarriyek* (iz.): throat / garganta.  
*éztarriko miñ, éztarriko miñé, éztarriko miñék* (iz.): throat ache / dolor de garganta.  
*eztí, eztiyé, eztiyek* (iz.): honey / miel.  
*eztúl, eztulé, eztulék* (iz.): cough / tos.  
*ezúr, ezurré, ezúrrek* (iz.): bone / hueso.

## F

*fabórez* (adb.): please / por favor.  
*fábrica, fábríkie, fábríkak* (iz.): factory / fábrica.  
*faltá da, faltátzea* (ad.): to lack / faltar.  
*famíli, famíliye, famíliyek* (iz.): family / familia.  
*famosá, famosíe, famosák* (izond.): famous (female) / famosa.  
*famosó, famosúe, famosúek*<sup>25</sup> (izond.): famous (male) / famoso.  
*fanfarrói, fanfarróye, fanfarróyek* (iz.): braggard / fanfarrón.  
*farmázi, farmáziye, farmáziyek* (iz.): pharmacy / farmacia.  
*fáro, fárué, fáruék* (iz.): lighthouse / faro.  
*farolá, farolíe, farólak*<sup>26</sup> (iz.): street light / farola.  
*fedé, fedíe, fedíek* (iz.): faith / fe.  
*fededún, fededúne, fededúnek* (izond.): believer / creyente.  
*festá, festíe, festák* (iz.): party / fiesta.  
*fiáu da, fiátzea* (ad.): to trust / fiarse.  
*fíla, fílie, fílak edo illerá, illeríe, illérak* (iz.): row / fila.  
*fiñ, fiñé, fiñek* (izond.): fine, well-behaved, honest / fino, cortés, honesto.  
*fláuta, fláutie, fláutak* (iz.): flute / flauta.  
*flétxa, flétxie, flétxak* (iz.): arrow / flecha.  
*flotáu du, flotátzeu* (ad.): to float / flotar.  
*fóliyo, fóliyue, fóliyuek* (iz.): folio / folio.  
*formál, formalá, formálak* (izond.): formal / formal.

25 Hitz honen forma femenino zein maskulinoek baimentzen dituzte *famósol/famósa, famosuel/famosíe*, formak ere. Halere, aurreko kasuan bezala, gaztelaniazko hitzaren kalko nabarmenagoa izatea leporatzen zaio, eta azentua silaba bat aurrerago izatea hobesten da.

26 Hitz honek hainbat azentu erakutsi ditzake: *faróla, farolíe, farólak*.

*formaldú du/da, formáltzeu/formáltzea* (ad.): to make or become formal / formalizar(se).  
*frallé, frallié, fralliek* (iz.): monk, friar / fraile. *Cfr. praillé.*  
*frantzés, frantzesa, frantzésak* (iz., izond.): French(man) / francés.  
*frantzésa, frantzésie, frantzésak* (iz., izond.): Frenchwoman / francesa.  
*fregáu du, fregátzeu* (ad.): to mop / fregar el suelo.  
*fregáu, fregaué, fregáuek* (iz.): mopping / fregado del suelo.  
*fregóna, fregónie, fregónak* (iz.): mop / fregona.  
*frenillo, frenillue, frenilluek* (iz.): muscle under the tongue / frenillo.  
*frexkotú edo prexkotú du, frexkótzeu edo prexkótzeu* (ad.): to become chilly (weather) / refrescar (el tiempo).  
*frexkó, frexkúe, frexkúek edo prexkó, prexkúe, prexkúek* (izond.): fresh; chilly / fresco.  
*frontói, frontoyé, frontóyek* (iz.): ball court or wall / frontón.  
*frutá, frutié, frútak* (iz.): fruit / fruta.  
*fuból, fubolá, fubólak* (iz.): football / fútbol.  
*fuérte, fuértie, fuértiek* (izond.): strong / fuerte.  
*fundaménto, fundaméntue, fundaméntuek* (iz.): judgement, sense / fundamento, sentido.  
*fusiláu du, fusilátzeu* (ad.): to shoot with rifles / fusilar.  
*fusill, fusillé, fusillek* (iz.): rifle / fusil.

## G

*gabé* (posp): without / sin.  
*gabón, gabónak* (iz.): Christmas / Navidades.  
*Gabón!*: good night! (greeting) / ¡buenas noches!  
*Gabonégun, Gabonégune, Gabonégunek* (iz.): Christmas day / día de nochebuena.  
*gái, gayé, gáyek* (iz.): topic / tema.  
*gaixkí* (adb.): badly / mal, de mala manera.  
*gaixó, gaixué, gaixúek* (iz., izond.): sick, ill / enfermo.  
*gaixotásun, gaixotásune, gaixotásunek* (iz.): illness / enfermedad.  
*gaixotú da, gaixótzea* (ad.): to become ill / enfermar.  
*gaiztakéi, gaiztakéye, gaiztákeyek* (iz.): mischief / travesura, travesura.  
*gaiztó, gaiztué, gaiztúek* (izond.): bad, evil / malo, malvado.  
*gaiztotú da, gaiztótzea* (ad.): to become evil / volverse malvado.  
*galánt, galantá, galántak* (izond.): large, robust / grande, robusto.  
*gáldera, gálderie, gálderak* (iz.): question / pregunta.  
*galdéu du, galdétzeu* (ad.): to ask / preguntar.  
*galdú du/da, gáltzeu/gáltzea* (ad.): to lose, to get lost / perder(se).  
*galléta, gallétie, gallétak* (iz.): cookie, wafer / galleta.  
*ganáu, ganaué, ganáuek* (iz.): cattle / ganado vacuno.  
*gánbara, gánbarie, gánbarak* (iz.): chamber in a ship; attic / camarote; ático, desván.  
*gánora, gánorie, gánorak* (iz.): sense, judgement / juicio, sentido.  
*ganorágabe, ganorágabie, ganorágabiek* (izond.): senseless, thoughtless / sin sentido.  
*gañ, gañé, gañek* (iz.): top / parte de arriba.  
*gáñea* (adb.): besides / además.  
*gáñezka éin du, gáñezka eiteu* (ad.): to overflow / rebosar.

*garbantzó, garbantzüe, garbántzuek*<sup>27</sup> (iz.): garbanzo bean / garbanzo.  
*garbí, garbiyé, garbíyek* (izond.): clean / limpio.  
*garbitásun, garbitásune, garbitásunek* (iz.): cleanliness / limpieza.  
*garbiú du, garbítzeu* (ad.): to clean, to wash / lavar, limpiar.  
*gárbo, gárbue, gárbuek* (iz.): jauntiness / garbo, confianza.  
*garí, gariyé, garíyek* (iz.): wheat / trigo.  
*garrafói, garrafóye, garrafóyek* (iz.): big bottle / garrafón.  
*garrátz, garratzá, garrátzak* (izond.): sour, bitter / amargo.  
*garún, garuné, garúnek edo zerébro, zerébrue, zerébruek* (iz.): brain / cerebro.  
*gas, gasá, gásak* (iz.): gas / gas.  
*gasá, gásie, gásak* (iz.): gauze / gasa.  
*gasolína, gasolínie, gasolínak* (iz.): gasoline / gasolina.  
*gasolínera, gasolínerie, gasolínerek* (iz.): gas station / gasolinera.  
*gastáu du, gastátzeu* (ad.): to spend / gastar.  
*gatz, gatzá, gátzak* (iz.): salt / sal.  
*gatzipéko, gatzipékue, gatzipékuek* (*gatzik+gabe*) (izond.): without salt / soso, sin sal.  
*gáu, gaué, gáuek* (iz.): night / noche.  
*gáur* (adb.): today / hoy.  
*gáur egún* (adb.): nowadays / hoy en día.  
*gauzá, gauzié, gáuzak edo gauzé, gauzié, gáuzek* (iz.): thing / cosa.  
*gazí, gaziyé, gazíyek* (izond.): salty / salado.  
*gazitú du, gazítzeu* (ad.): to salt / salar.  
*gaztá, gatzayé, gatzáyek* (iz.): cheese / queso.  
*gazté, gaztié, gatzíek* (izond.): young / joven.  
*gaztetán* (adb.): in one's youth / de joven.  
*gaztetásun, gaztetásune, gaztetásunek* (iz.): youth / juventud (edad).  
*geáu du/da, geátzeu/geátzea* (ad.): to stop / parar(se), detener(se).  
*géiketa, géiketie, géiketak* (iz.): addition / suma (operación aritmética).  
*geitú du, géitzeu* (ad.): to add / sumar.  
*geldí, geldiyé, geldíyek* (izond.): slow / lento, parado.  
*geó* (adb.): later / después, luego.  
*geráu du, gerátzeu* (ad.): to stop; to stay; to remain / quedar, parar.  
*gerrá, gerrié, gérrak* (iz.): war / guerra.  
*gerrí, gerriyé, gerriyek* (iz.): waist / cintura.  
*gerrikó, gerrikúe, gerrikuek* (iz.): belt / cinturón.  
*gertú* (adb.): near / cerca.  
*gerturáu da, gerturátzea* (ad.): to approach / acercarse.  
*géyen bat* (adb.): most of all / sobre todo.  
*géyo* (adb.): more / más.  
*gezúr, gezurré, gezúrrek* (iz.): lie / mentira.  
*gezúrti, gezúrtiye, gezúrtiyek* (izond.): liar / mentiroso.

27 Hitz honek baimentzen ditu *garbantzo, garbántzue, garbántzuek* formak ere.

- gibél, gibelá, gibélak* (iz.): liver / hígado.
- giltzurruín, giltzurruíne, giltzurruínek* (iz.): kidney / riñón.
- gipúzkerá, gipúzkerie, gipúzkerak* (iz.): Gipuzkoan Basque dialect / dialecto guipuzcoano.
- Gipúzku, Gipúzkué, Gipúzkuék* (iz.): Gipuzkoa / Guipúzcoa, Gipuzkoa.
- gitárra, gitárrie, gitárrak* (iz.): guitar / guitarra.
- gixája, gixájie, gixájak* (izond.): poor woman / pobre mujer.
- gixájo, gixájue, gixájuek* (izond.): poor guy / pobre hombre.
- gizén, gizená, gizénak* (izond.): fat, fatty meat / grasa, gordo de la carne.
- gizón, gizoná, gizónak* (iz.): man / hombre.
- gizondú da, gizóntzea* (ad.): to become a man / hacerse hombre.
- gizonésko, gizonéskue, gizonéskuek* (izond.): male / hombre.
- go(g)ó, go(g)ué, go(g)úek* (iz.): intention, desire, will / intención.
- go(g)ór, go(g)orrá, go(g)órrak* (izond.): strong, hard, violent / fuerte, duro, violento.
- go(g)ortásun, go(g)ortásune, go(g)ortásunek* (iz.): hardness / dureza.
- go(g)ortú du, go(g)órtzeu* (ad.): to harden / endurecer.
- go(g)óz kóntra* (adb.): against one's will, by necessity / en contra de la voluntad, por necesidad. E.g. *au gogoz kontra ai naiz iten, ez nai detelako* 'I am doing this against my will, not because I like it' / 'lo hago contra mi voluntad, no porque quiera'.
- gobernáu du, gobernátzeu* (ad.): to govern, to direct / gobernar.
- gobernú, gobernúe, gobernúek* (iz.): government / gobierno.
- gói, goyé, góyek* (iz.): top / parte de arriba.
- goitibéra, goitibérie, goitibérek* (iz.): wooden child cart / goitibehera, especie de carrito que usan los jóvenes para bajar cuestras.
- goiz, goizé, góizek* (iz.): morning / mañana.
- goizaldé, goizaldíe, goizaldiek* (iz.): early morning / temprano por la mañana.
- goizetík* (adb.): early / temprano.
- gólpe, gólpie, gólpiek* (iz.): blow / golpe.
- góna, gónie, gónak* (iz.): skirt / falda.
- gor, gorrá, górrak* (izond.): deaf / sordo.
- goráintzi, goráintziye, goráintziyek* (iz.): greetings, regards / recuerdos.
- gordé du, gordétzeu* (ad.): to keep / guardar.
- gordiñ, gordiñé, gordiñek* (izond.): raw; green, not ripe / verde, no maduro; crudo.
- gordiñík* (pred. adj.): raw / crudo. E.g. *aragiyé gordiñík jan du* 's/he has eaten the meat raw' / 'se ha comido la carne cruda'.
- gorpú, gorpué, gorpúek* (iz.): corpse / cadáver.
- gorpút, gorputzé, gorpútzeak* (iz.): body / cuerpo.
- gorrí, gorriyé, gorriyek* (izond.): red / rojo.
- gorringó, gorringúe, gorringuek* (iz.): yoke / yema.
- gorritásun, gorritásune, gorritásunek* (iz.): redness / rojez.
- gorritú da, gorrítzea* (ad.): to redden / enrojarse.
- gorrotó, gorrotúe, gorrótuek* (iz.): hatred / odio.
- gósai, gósaye, gósayek* (iz.): breakfast / desayuno.
- gosaldú du, gosáltzeu* (ad.): to have breakfast / desayunar.
- gosé, gosié, gosíek* (iz.): hunger / hambre.
- gosetú da, gosétzea* (ad.): to become hungry / tener hambre.

*gosetú, gosetúta* (izond.): hungry, starved / hambriento.  
*gosík akátzen daó, gosík akátzen eótea* (ad.): to be starving / estar muerto de hambre.  
*gotéra, gotérie, gotérak* (iz.): drip / gotera.  
*goxóki, goxókiye, goxókiyek* (iz.): candy / caramelo.  
*goxó, goxué, goxúek* (izond.): sweet; delicious / dulce; sabroso.  
*gozozále, gozozálie, gozozáliek* (izond.): sweet-toothed / goloso.  
*grádu, grádue, gráduek* (iz.): grade; degree / grado.  
*granáte, granátie, granátiek* (izond.): granate / granate.  
*gráno, gránue, gránuek* (iz.): 1. grain 2. pimple / 1. grano (semilla); 2. grano (piel).  
*grásá, grasié, grásak* (iz.): grease / grasa.  
*grípe, grípie, grípiek* (iz.): influenza / gripe.  
*grix, grixé, gríxek* (izond.): grey / gris.  
*guardiazíbil, guardiazíbill, guardiazíbillak* (iz.): Guardia Civil, Spanish police(man) / guardia civil.  
*gudarí, gudaríye, gudaríyek* (iz.): Basque soldier / soldado vasco.  
*gúraizek, gúraizek* (iz.): scissors / tijeras.  
*guráso, gurasúe, gurasúek* (iz.): parents / padres.  
*gurutzé, gurutzíe, gurútziek* (iz.): cross / cruz.  
*gustáu zaio, gustátze zaio* (ad.): to like / gustar.  
*gústó, gústue, gústuek* (iz.): taste, gusto / gusto.  
*gústoko, gústokue, gústokuek* (izond.): preferred / preferido.  
*gutxí* (adb.): little / poco.  
*gútxi(ye)nez* (adb.): at least / al menos.  
*gutxigórabera* (adb.): more or less / más o menos.  
*gutxitú da, gutxítzea* (ad.): to decrease, to diminish / disminuir.  
*guztí, guztiyé, guztiyek* (izond.): everything / todo.

## 7. ERREFERENTZIAK

- Altuna, P. (1956). Azpeitiko euskerea aztertuz. *Euskera*, 1, 169-173.
- Altuna, P. (1985). Azpeitiko euskal ebakeraz. *Euskera*, 31(2), 333-340.
- Argoitia, J. A., Azkarate, N., & Gezuraga, X. (1998). *Eibarko euskararen esaerak eta bestelako berezitasun batzuk*. Eibar: Eibarko Udala.
- Aurrekoetxea, G. (2003). *Dimako etxe eta leku-izenak*. Dima: Dimako Udala.
- Aurrekoetxea, G. (2008). Sociolinguistic Variation in Dima Basque. *Euskalingua*, 12, 17-26.
- Aurrekoetxea, G. (2010). Sociolinguistic and Geolinguistic Variation in the Basque language. *Slavia Centralis*, 1, 88-100.
- Askoren artean. (2014). *Elhuyar hiztegia*. Durango/Usurbil: Elhuyar Fundazioa.
- Azpeitia, A. (2003). *Zestoarren erretolika: hitzen, esamoldeen eta atsotitzen bilduma*. Zestoa: Zestoako Udala.
- Azpiazu, A. (2009). *Gipuzkoako hegoaldeko euskara*. Legazpia: Burdinola.
- Basauri, S. & Sarasua, A. (2003). *Eibarko Hiztegi Etnografikoa*. Eibar: Eibarko Udala.
- Beristain, A. (2018). *Basque dialectal substrate in the realization of /s/ in L2 Spanish* (Master tesia). Urbana-Champaign: University of Illinois.
- Bonaparte, L. L. (1863). *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*. Londres: Stanford's Geographical Establishment.
- Camino, I. (1994). Etxenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa. *Euskera*, 39(2), 417-434.
- Camino, I. (1999). Goñerriko hizkera (I). *ASJU*, 33(1), 5-78.
- Camino, I. (2000). Goñerriko hizkera (II). *ASJU*, 34(1), 137-196.
- Camino, I. (2001). Goñerriko hizkera (III). *ASJU*, 35(2), 445-509.
- Camino, I. (2003). Hego-nafarreraren egituraz. *FLV*, 94, 427-468.
- Camino, I. (2005). Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta daguen fidagarritasuna. *FLV*, 99, 265-286.
- De Rijk, R. (1970). Vowel interaction in Biscayan Basque. *FLV*, 5(2), 149-168.
- Del Castillo, V., Romo, J. A. & Giralt, B. (2001). *Azkoittiko euskerie*. Azkoitia: Azkoittiko Udala.
- Elexpuru, J. M. (2005). *Bergara aldeko berbak*. Bergara: Bergarako Udala.
- Etxebarria, T. (1965-1966). Lexicón del euskera dialectal de Eibar. *Euskera*, 10-11, 1-658.
- Fraile, I. & Fraile, A. (1996). *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Gaminde, I. (1992). *Urduliz eta Gatikako Herri hizkeren Azterketa Linguistikoa*. Deusto: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1997). *Gatikako Euskaraz*. Gatika: Gogoz.
- Gaminde, I. (2000). *Zamudio Berbarik Berba*. Bilbo: Labayru.
- Gaminde, I. (2002a). *Meñakako laminaren urregorria*. Meñaka: Meñakako Udala.
- Gaminde, I. (2002b). Leioako azentueraz. *FLV*, 90, 233-247.
- Gaminde, I. (2002c). Gaurko Bilboko Euskararen Ezaugarriak. In A. Arejita, A. Elejabeitia, C. Isasi & J. Otaegi (arg.), *El espacio lingüístico. Simposio 700 Aniversario* (391-414 or.). Deusto: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (2002d). Bizkaiko euskararen ezaugarri fonologiko batzuen inguruan. *Euskalingua*, 1, 4-14.

- Gaminde, I. (2003a). *Zaldibar Berbarik Berba*. Zaldibar: Zaldibarko Udala.
- Gaminde, I. (2003b). Intonazio ereduak Zeanurín. *FLV*, 93, 287-308.
- Goikoetxea, J. (1967). Loyola inguruan osatutako iztegitxoak. *Euskera*, 12, 25-60.
- Hualde, J. I. (1991). *Basque Phonology*. Routledge: New York.
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuakerak*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde, J. I. (1998). A gap filled: Postpostinitial accent in Azkoitia Basque. *Linguistics*, 36, 99-117.
- Hualde, J. I. (2010). Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihenart*, 25, 89-116.
- Hualde, J. I. & Beristain, A. (2017). Azpeitiko azentuaren gauzatze fonetikoaz. *FLV*, 123, 65-86.
- Hualde, J. I. & Beristain, A. (argitarabidean-a). *Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskararen*. Urbana-Champaign: University of Illinois.
- Hualde, J. I. & Beristain, A. (argitarabidean-b). *Analyzing new Basque varieties: Accentuation and grammatical number in Standard Basque and local dialects*. Urbana-Champaign: University of Illinois.
- Hualde, J. I., Elordieta, G. & Elordieta, A. (1994). *The Basque Dialect of Lekeitio*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde, J. I. & Bilbao, X. (1992). *A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Hualde, J. I. & Gaminde, I. (1997). Vowel interaction in Basque: A nearly exhaustive catalogue. *ASJU*, 31(1). 211-245.
- Hualde, J. I., Lujanbio, O. & Zubiri, J. J. (2010). Goizueta Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 40(1). 113-127.
- Iturain, I. & Loidi, L. (1995). *Orioko Euskara*. Orio: Orioko Udala.
- Izaguirre, C. (1970). El vocabulario vasco de Oñate-Aránzazu y zonas colindantes. *ASJU*, 4, 3-248.
- Makazaga Eizagirre, J. M. (2010). *Elgoibarko ahozko hizkera*. Villatuerta: Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindia.
- Mitxelena, K. (2011 [1961]). *Fonética histórica vasca*. (Berrarg. in *Obras completas VI*. J. Lakarra & I. Ruiz Arzallus (arg.), *ASJU*ren gehigarriak LVIII).
- Oñederra, M. L. (2004). *Fonetika eta fonologia hitzez hitz*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Oñederra, M. L. (2012). Sobre la deslateralización de las palatales o «yeísmo». In B. Camus Bergareche (arg.), *El castellano del País Vasco* (139-154 or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Yrizar, P. (1991). *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano: Tomo I, Subdialecto Septentrional*. Zarautz: Euskaltzaindia.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak: euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuloaga, E. (2017). Beheko bokalaren asimilazioaren historiarako: mendebaleko lekukotasunak. *FLV*, 123, 167-199.

# Ezeztapenaren hurrenkera euskal egitura perifrastikoetan: hurbilpen diakroniko-tipologikoa

---

El orden de la negación en las construcciones perifrásticas en euskera: un enfoque diacrónico-tipológico

---

The order of negation in Basque periphrastic constructions: a diachronic-typological approach

Iker SALABERRI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, UPNA/NUP

ikersalaberr@gmail.com

Patxi Salaberrri Zaratiegiri eskerrak eman nahi nizkioke, artikulua ginean egindako iruzkin eta zuzenketak guztiengatik.

Jasotze data: 18/10/2017. Behin-behineko onartze data: 03/12/2017. Behin betiko onartze data: 19/02/2018.



## LABURPENA

Lan honen helburua euskarazko ezezko perpausetako aditz nagusiak eta laguntzaileak historian zehar izan duten hurrenkera aztertzea da. Hizkuntzaren historiako hainbat testuren hitz-hurrenkerari begiratuz, *aditz nagusia - ezezkoaren marka - aditz laguntzailea* ordena (*ikusi ez zuen* modukoa) perpaus nagusietan desagertzen eta mendekoe-tan gordetzen dela erakusten da, eta, aldi berean, desberdintasun horri azalpen tipologikoa emateko saioa egiten da. Ezeztapenaren hurrenkerari eragiten dioten zenbait faktoreren inguruan ere (perpaus mota, euskalkia etab.) hausnarketa egiten da.

**Gako hitzak:** Euskararen idatzizko historia; ezeztapena; egitura perifrastikoa; diakronia; tipologia.

## RESUMEN

Este estudio tiene como objetivo investigar el desarrollo histórico del orden de los verbos principal y auxiliar en oraciones negativas en euskera. En el artículo se muestra, tras realizar un análisis del orden de palabras en textos históricos, que en las oraciones principales se pierde el orden en el que la partícula negativa va entre el verbo principal y el auxiliar (como en *ikusi ez zuen*), mientras que en las subordinadas dicho orden se mantiene. Se intenta explicar esta asimetría en términos tipológicos y se toman en consideración ciertos factores que afectan al orden de la negación, como el tipo de oración o el dialecto.

**Palabras clave:** Historia del euskera escrito; negación; construcción perifrástica; diacronía; tipología.

## ABSTRACT

This study aims to investigate the historical development in Basque of the order of the main and auxiliary verb in negated clauses. By analyzing word order in a number of historical texts it is shown that the pattern according to which the negative particle follows the main verb and precedes the auxiliary (as in *ikusi ez zuen*) is lost in main clauses. At the same time, subordinate clauses are shown to preserve this pattern. An attempt is made to account for this asymmetry in typological terms. A number of factors that affect the order of negation, such as clause type and dialect, are also considered.

**Keywords:** History of written Basque; negation; periphrastic construction; diachrony; typology.

1. SARRERA. 1.1. Ezeztapena egungo euskaran. 1.2. Ezeztapena euskararen historian. 1.3. Ezeztapena perpaus nagusietan eta mendekoetan. 2. EZEZTAPENAREN HURRENKERA HISTORIAN ZEHAR. 2.1. Ezeztapena literaturan. 2.1.1. Ezeztapena XVI. mendean. 2.1.2. Ezeztapena XVII. mendean. 2.1.3. Ezeztapena XVIII. mendean. 2.1.4. Ezeztapena XIX. mendean. 2.1.5. Ezeztapena XX. mendean. 2.2. Ezeztapena: datuen interpretazioa. 2.3. Ezeztapena zenbait faktoreren arabera. 2.3.1. Perpaus mota. 2.3.2. Euskalkia. 3. ONDORIOAK. 4. ERREFERENTZIAK.

## 1. SARRERA

Lan honen helburua ezezko perpausetako aditz nagusiak eta laguntzaileak historian zehar izan duten hurrenkera aztertzea da. Hainbat testuren hitz-hurrenkerari begiratu, *aditz nagusia - ezezko marka - aditz laguntzailea ordena (ikus ez zuenen erakoa)* perpaus nagusietan desagertzen eta mendeko perpausetan gordetzen dela erakusten da, eta desberdintasun honi azalpen tipologikoa emateko saioa egiten da. Xede hau kontuan izanik, 1.1 atalean ezezko egitura perifrastikoen ikuspegi sinkronikoa aurkezten da. 1.2 atalean, berriz, egitura hauen berauen ikuspegi diakronikoa erakusten da, eta euskararen historian ezezko egitura perifrastikoei jasan dituzten aldaketan inguruan idatzitako azterketa kritikoa egiten da. 1.3 atalean aztergai hartu diren perpaus motak definitzen dira, eta hauei buruzko aipu tipologikoa egiten. 2.1 atalean euskararen historiako hainbat testutako datuak bildu eta eztabaidatu ondoren, 2.2 eta 2.3 ataletan datu horiek interpretatu eta eragin diezaieketen hainbat faktoreren inguruan hausnarketa egiten da. Hirugarren atalean, azkenik, ondorioak ateratzen dira.

### 1.1. Ezeztapena egungo euskaran

Eguno euskaran, baiezko perpaus nagusietan, hitz-hurrenkera markatugabea aditz nagusia aditz laguntzailearen aurretik duena da (1a). Ezezkoetan, berriz, aditz nagusiak aditz laguntzaileari darraio (1b) (Laka, 1990, 27. or.; Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 519, 559-561. or.). Gainera, ezezko perpaus nagusietan aditz laguntzailea aditz nagusiaren atzetik paratzeak esaldia agramatikal bihurtzea dakar (1c-d); ez, ordea, mendeko perpausetan (1e-f):

- (1) a. *Dirua ikusi dut*  
 b. *Ez dut dirurik ikusi*  
 c. *\*Ez dirurik ikusi dut<sup>1</sup>*  
 d. *\*Dirurik ikusi ez dut*  
 e. *Dirurik ikusi ez dudalako*  
 f. *Ez dudalako dirurik ikusi*

Perpau nagusien eta mendekoen arteko desberdintasun hau azaltzeko De Rijkek (1969, 330. or.) hurrengo proposamena egiten du: mendeko perpausetan *ezezko marka - aditz laguntzailea - aditz nagusia* (E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub><sup>2</sup>) hurrenkera *Aux(iliary)-Movement* delakoagatik sortzen da, hots, *-la-z* bestelako edozein atzizki daraman aditz laguntzaile orok nagusiari jarraitu behar dio; beraz, (2a) bezalako esaldietan, aditz laguntzailea (*da*) aditz nagusiaren aurrean (*etorri*) ager daiteke, menderagailua *bait-* delako. Aldiz, (2b)-n aditz laguntzaileak *-lako* darama, eta horregatik ezin du aditz nagusiaren aurretik agertu (2c):

- (2) a. *Ez dut ikusi, ez bait da etorri*  
 b. *Etorri ez delako ez dut ikusi*  
 c. *\*Ez delako etorri ez dut ikusi*

Perpau nagusietan, berriz, *Aux(iliary)-Movement* nahitaezkoa da, hots, E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkera ezinbestekoa da halako perpausetan<sup>3</sup>. Azalpen honek balio sinkronikoa dauka, eta hizkuntzalaritza sortzaile-bihurtzailearen printzipioei jarraituz (Chomsky 1965, 128-147, 1986, 68) bi egitura hartzen ditu aintzat: *sakoneko egitura (D(eep)-Structure)*, sintaxi eragiketak osatu aurretik esaldiaren osagaiak sortzen direna, eta *azaleko egitura (S(urface)-Structure)*, sintaxi eragiketen emaitza erakusten duena. De Rijken (1969, 331. or.) proposamenaren arabera, euskaraz sakoneko egituran hitz hurrenkera A<sub>N</sub>-A<sub>L</sub> da (3a), eta ezeztapenak *Aux-Movement* eragiketa gauzatzea dakar (3b). Honek azaleko egituran A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> sortzen du (3c):

- 1 Alabaina, (1c)-ren moduko esaldiak *ez* lokailutzat erabiltzean gramatikalak direla esan beharra dago: *Ez dirurik ikusi dut, ez lanik egin dut*. Ikus hurrengo atala *ez* lokailua ikerketa honetan nola tratatu den jakiteko.
- 2 Hemendik aurrera hurrengo laburdurak erabiliko dira: «E» = ezezko marka, «A<sub>N</sub>» = aditz nagusia, «A<sub>L</sub>» = aditz laguntzailea, «(pn)» = perpau nagusia, «(m)» = mendeko perpausa.
- 3 *Aux(iliary)-Movement* delakoa baiezko perpausetara ere zabal daiteke eta, horregatik, ezezko perpau nagusietako aditz nagusia eta laguntzailea tokialdatzeko eragiketak baiezko perpau nagusiei ere eragin diezaietke (De Rijk, 1969, 334. or.). Honen adibideak Iparraldeko euskalkietan izaten dira, *Egun ogia erosi dutlegun dut erosi ogia* moduko pareetan. *Egun dut erosi ogia* bezalako perpausetan galdegaiak (*egun-ek*) aditz nagusia eta laguntzailea lekualdatzea ahalbidetzen du (Lafitte, 1944, 47. or.; Ortiz de Urbina, 1987, 342-343. or.). Honen harira, De Rijkek (1969, 334. or.) iradokitzen du Iparraldeko euskalkietan *Aux(iliary)-Movement* delakoa baiezko perpau nagusietan nahiz ezezkoetan egiteko aukera dagoela, baina Hegoaldean bakarrik ezezkoetan gauzatu daitekeela. Edozein modutan, Iparraldeko euskalkietako baiezko perpau nagusietan aditz nagusia eta laguntzailea tokialdatzeko aukera berrikuntza dela dirudi: «[T]he testimony of older writers indicate [sic] that the modern system – or lack of system – is an innovation» (ibid.). Horrek ez luke, beraz, euskarazko ezeztapenaren ikerketa diakronikorako bestelako ondorioz izan behar. Beste alde batetik, egungo euskaraz *Aux(iliary)-Movement* delakoa mendeko perpausetan ez ezik, *Ezagutuko ez dut ba!*-ren moduko harridura perpausetan ere ez da gertatu: ezezko harridura perpausak esamolde finkoak, hots, fosilizatuak dira (Reguero-Ugarte, 2013, 435. or.).

- (3) a. Lehen urratsa: \**Etorri ez da* (sakoneko egitura,  $A_N-A_L$ )  
 b. Bigarren urratsa: *Aux-Movement* (eragiketa sintaktikoa)  
 c. Hirugarren urratsa: *Ez da etorri* (azaleko egitura,  $A_L-A_N$ )

Hizkuntzalaritza sortzaile-bihurtzailearen esparruko beste ikertzaile batzuek ere euskarazko ezeztapenaren antzeko azterketa proposatu dute<sup>4</sup> (Goenaga, 1980; Ortiz de Urbina, 1987, 342-349. or.; Laka, 1990, 27-31. or.; 1991, 908-910. or.). Hurbilpen hau, nolana ere, gaur egungo euskarari dagokio. Hurrengo atalean erakutsiko den moduan, euskararen historian zehar edireten den ezeztapenaren hurrenkera ez da erabat egungo euskararen aurki daitekeena.

## 1.2. Ezeztapena euskararen historian

Euskararen historian zehar, ezezko egitura perifrastikoetan, batik bat lau konbinazio daude lekukotuta: *ezezko marka - aditz laguntzailea - aditz nagusia* perpaus nagusietan ( $E-A_L-A_N$  (pn)) (4a-b) zein mendekoetan ( $E-A_L-A_N$  (m)) (4e), eta *aditz nagusia - ezezko marka - aditz laguntzailea* bai perpaus nagusietan ( $A_N-E-A_L$  (pn)) (4c, 4d (?)) eta bai mendekoetan ( $A_N-E-A_L$  (m)) (4f):

- (4) a. *Aytzetec mendecaceco onlacoac eztu sines escacen* (Berriain, 1621, 93. or.)  
 b. *Ni emen nayzala eçuen scribatu bear berçeri* (Juan de Irañeta, 1549; Mitxelena, 1964, 59-60)  
 c. *Gure eusquerac bazter oietan orrelaco guizaseme andien patu onic izan ez du* (Kardaberatz, 1761b; Altuna & Zulaika, 2004, 24. or.)  
 d. *Guec ajutu eç dugu* (Donemiliagako glosa, ≈ 1000; Irigoien, 1975, 170. or.)<sup>5</sup>  
 e. *Munduac balecusa eztuçula batere iuramēturic eguiten* (Axular, 1643, 265. or.)  
 f. *Ascotan jarraituten dira bere oñean, gueroric guero andiagotuten ezpadira* (Añibarro, 1803, 32. or.)

Aurreko atalean azaldu den moduan, gaurko euskararen (4c) bezalako hitz-hurrenkera agramatikala da perpaus nagusietan, baina ez, ordea, mendekoetan. (4c)-k erakusten duenez, hala ere, XVIII. mendeko euskararen bi hitz-ordenak, hots, (4a-b)-ren eta (4c)-ren modukoak ziren gramatikalak perpaus nagusietan. Horrek iradokitzen du gaur egungo euskararen perpaus nagusietan baitezpadakoa den *Aux(iliary)-Movement* arau sintaktikoa XVIII. mendean aukerakoa zela. Aipatutako gizaldiko euskararen eta

4 Alabaina, mendeko perpausetako ezeztapenaren hurrenkeraren analisisa ez da horren sinplea, hemen aipatu ez diren bestelako faktore batzuek ere –hala nola aditza jokatua edo ez-jokatua izateak–, hitz ordenari eragiten baitiote (Etxepare & Uribe-Etxebarria, 2009, 344. or.).

5 *Ajutu* hitzaren balioa ziurra ez denez (Irigoien, 1975, 170. or.), ezin da zalantzarik gabe baieztatu Donemiliagako glosa (4c) bezalakoa dela, hots,  $A_N-E-A_L$  (pn) hurrenkera islatzen duela.

egungoaren arteko desberdintasun hori du ikerketa honek aztergai, izan ere<sup>6</sup>. Gainera, ez dago garbi euskararen historian E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> eta A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkeren arteko aldakortasuna zer faktorek baldintzatzen duten, eta hau argitzeko saioa ere egingo da.

Ezezko egitura perifrastikoen bilakaera landu duten ikerketei begira, aipatzekoa da ez dagoela hau ikergai bakartzat hartu duen lanik, honetan zentratu denik. Ezeztape-naren hurrenkera orain arte iragaitzaz baizik ez da ukitu, hizkuntzaren beste alder-di batzuk landu bidenabar: adibidez euskararen oinarrizko hitz-hurrenkera (De Rijk, 1969, 330-334. or.; Mitxelena, 1978, 223-224. or.) eta euskalkien ezaugarriak (Lakarra, 1986, 655. or.) aztertzean, edo testuren baten edizioan (Lakarra, 1996, 254-255. or., 18. oin oharra). Mitxelenaren (1978, 223-224. or.) arabera, XVIII. eta XIX. mendeko Gipuzkoako idazleen artean bi joera ikus daitezke, hitz hurrenkerari zein bestelako kontuei dagokienez: alde batetik Agirre Asteasukoak ez du A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkera erabiltzen, bere idazkera herrikoiagoa delako, eta Lardizabalek berriz bai<sup>7</sup>, teoriarik eta gramatika arauemailean aritua delako:

En resumen, podría apuntarse [...] que en la gran tradición guipuzcoana [...] la que va más o menos de 1750 a 1850, aunque cuente después con valiosos epígonos que la prolongan, se manifiestan al menos dos tipos de narración, una, acaso más próxima a modelos populares, que hemos personificado en Aguirre, y otra más libresca, más gramatical, para la cual hemos tomado de cabeza de turco a Lardizabal (Mitxelena, 1978, 224. or.)

Honen harira, erraza da Lardizabalen lanetan A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkera aurkitzea, (5a-b) pasartetxoetan, kasu; Agirre Asteasukoak, aldiz, bere garaiko ahozko euskar-  
an ohikoa zen hurrenkera besterik ez du erabiltzen, nonbait, (5c-d) lekukotasunetan esaterako:

- (5) a. *Anchume bat egundaño eman ez didazu* (Lardizabal, 1908, 530. or.)  
 b. *Zure semearen icenic ere mereci ez det* (Lardizabal, 1908, 531. or.)  
 c. *Baña etcion iñorc ematen nai adiña* (Agirre, 1978)  
 d. *Baña ez dira contentatu Erregue berac onembesterequin* (Agirre, 1978)

Baieztape hau garrantzitsua da, XIX. mendearen erdialderako A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenke-  
ra ahozko hizkeratik desagertua zela iradokitzen duelako. Bigarren atalean erakutsiko

6 Bestelako egiturek ere, hots, baiezko perpausak eta aditz trinkoa daukaten ezezko perpausak ere, aldakortasuna erakusten dute euskararen historian zehar, baina horien bilakaeraren azterketa lan honen helmenetik kanpo dago. Horregatik (4a-f) moduko ezezko egitura perifrastikoak baizik ez dira izango hemendik aurrera aztergai. Ikerketa honetatik lekora gelditu dira, orobat, *ezin izan* aditz modala daramaten perpausak. *Ez* lokailutzat erabiltzen duten perpausak ere, hau da, *Ez lanik egiten du, ez lanik egiten uzten du*-ren modukoak, eztabaidatik at utzi dira, aparteko hitz-hurrenkera baitute (Altuna, 2004, 104. or., 102. oin oharra).

7 Ezin da baztertu, beste alde batetik, Lardizabalek (1856) erabiltzen duen A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkera zuzenean Larramendirengandik (1729) hartua delako susmoa, lehena pasarte askotan bigarrenaren hitzez hitzeko kopia baita (Mitxelena, 1978, 224. or.). Honek Lardizabalen adibideen balioa zalantzan jartzen du.

denez, gizaldi horren erdialdetik aurrera  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera oso gutxitan ikusten da, baina autore batzuek erabiltzen dute, eta ezin da guztiz baztertu, beraz, garai horretan oraindik ere erabiltzen zelako ustea. Beste alde batetik, Lakarrak (1986, 655) dio, bizkaiera zaharraren ezaugarri bereziak eztabaidatzean, euskalki honetan  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera lekukotuta dagoela, baina  $E$ - $A_L$ - $A_N$  (pn) askoz ere ohikoagoa dela.  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera zinez ohikoa da bizkaiera zaharreko testuetan, Lakarrak berak ematen dituen adibideek erakusten duten moduan (6a-b). Alabaina,  $E$ - $A_L$ - $A_N$  (pn) ordena ere garai eta euskalki bereko testuetan agertzen da (6c-d), bai eta  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera garai bereko beste euskalkietan ere (6e-f):

- (6) a. *Lagun esteyo guerrara* (1688; Lakarra, 1984, 120. or.)  
 b. *Galdu çe eguic aldia ta ydoro dayc naya* (1596; Lakarra, 1996, 330. or.)  
 c. *Aranguiño estau ondo arguitu* (Micoleta, 1653; Fita, 1897, 22, 30)  
 d. *Basuac beste acayti estaude gausaric eguiten artex* (Micoleta, 1653; Fita, 1897, 22. or.)  
 e. *Egun hartan gal ezquiten aycinetic veguira* (Etxepare, 1545; Altuna, 1980, 48. or.)  
 f. *Niorc ere esanen estu ni<c> estudan partiduric* (Amendux, 1564; Mitxelena, 1964, 108. or.)

Adibide hauek ikusirik, ez dirudi  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera bizkaiera zaharraren ezaugarri berezia denik. Hala ere, hurrenkera honen erabilera eta galera euskalkiaren arabera aldatzen ote diren egin daitekeen galdera da; bigarren atalean helduko zaio berriz honi. Lakarrak (1996, 254-255. or., 18. oin oharra) dio ezezko perpausetako  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera esaldi positiboak oinarri hartuta sortu zela, eta gero  $E$ - $A_L$ - $A_N$  bilakatu zela: «[D]iakronikoki oinarrizko ordena positibokoa izanik (*Ad. Nag. - Ad. Lag.*), hortik negatiboarena sortu (*Ad. Nag. - EZ - Ad. Lag.*) eta beranduago berrantolatu dela baitirudi (*EZ - Ad. Lag. / - Ad. Nag.*)». Baieztapen honek iradokitzen du  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera  $E$ - $A_L$ - $A_N$  baino zaharragoa dela, bai perpaus nagusietan bai mendekoetan. Reguero-Ugartek (2013, 434. or.) ere hala uste du: «[A]nother word order is also found with periphrastic verbs, which seems to be older».

Donemiliagako glosa (4d)  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn)-ren adibidetzat hartzeak ez du esan nahi  $E$ - $A_L$ - $A_N$  (pn) ordena berriagoa dela. Lehen testu luzeetan bai (4a-b) eta bai (4c) motako hurrenkera lekukotuta dagoela kontuan izanik, datuetan bakarrik oinarrituta zaila da  $E$ - $A_L$ - $A_N$  (pn) berria dela frogatzea. Berdin zaila da  $E$ - $A_L$ - $A_N$  zaharra dela baieztatzea, Mitxelenak egiten duen bezala: «[E]z dute ikusiko *que es, y siempre parece haber sido, la forma corriente de expresar la negación*» (Mitxelena, 1978, 224. or.).

Beste alde batetik, hizkuntzaren ekonomia printzipioari jarraituz (Zipf, 1949, 1-2. or.), ideia bera adierazteko egitura formal bat baino gehiago izatea (kasu honetan, ezeztapena adierazteko bi hitz-hurrenkera, hots,  $E$ - $A_L$ - $A_N$  eta  $A_N$ - $E$ - $A_L$ ) *luxutzat* ikus daiteke, hau da, giza hizkuntzak egin daitekeen ahalegin txikienarekin ahalik eta gehien komunikatzeko joera daukanez gero, sinkronikoki bi hitz-hurrenkera izateko arrazoia, segur aski, diakronikoki bata bestea ordezkatzan ari izatea izango da. Hartara,  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera zahartzat hartuz gero,  $E$ - $A_L$ - $A_N$  berritzailatzat eman

beharko litzateke, eta alderantziz. Zentzu honetan, forma zaharra eta berritzailea luzaroan batera eta aldizka erabiltzea hizkuntza aldaketan espero izatekoa da (Kroch, 2001, 720. or.). Lan honen asmoa da  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera zaharra ote den argitzen laguntzea.

Laburbilduz, beraz, ikerketa honek ondoko lau galderen erantzuna bilatuko du: (1) Noiz galdu zen zehatz-mehatz  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera euskararen historian? (2) Zein faktorek baldintzatzen dute  $E$ - $A_L$ - $A_N$  eta  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkeren arteko aldakortasuna? (3) Zer desberdintasun daude euskalkien artean  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkeraren erabilerari eta galerari dagokienez? (4)  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera  $E$ - $A_L$ - $A_N$  baino zaharragoa da?

### 1.3. Ezeztapena perpaus nagusietan eta mendekoetan

Aurreko ataletan erakutsi den moduan, ezezko egitura perifrastikoen hitz-ordena aldatu egiten da, perpausa nagusia edo mendekoa izan. Horregatik, egitura hauen diakronia aztertzen duen edozein ikerketak perpaus nagusien eta mendekoen artean bereizketa garbia egin beharko luke. Alabaina, perpaus nagusi eta mendeko azpimota asko dago, eta azpimota hauek kontuan ez hartzeak ikerketan xehetasun ugari galtzeko arriskua lekarke. Horregatik, perpaus nagusiei dagokienez, Euskaltzaindiaren (2002, 2. or.) lanaren ildo beretik, perpaus nagusi jokatuak eta jokatugabeak bereiziko dira, eta lehen taldearen barruan adierazpenezkoak (7a), agintezkoak (7b) eta galdezkoak (7c)<sup>8</sup>:

- (7) a. *Escátzen ezut nic justicia erchia* (Lizarraga, 1821; Apezetxea, 1983, 65. or.)  
 b. *Nehor obraz hil etçacu* (Suarez d'Aulan, 1740, 9. or.)  
 d. *Cegaiti lauoi bardin on erechi ez derausteçu euren amoreetan?* (Lazarraga, 1602; Bilbao et al., 2011, 28. or.)

Mendeko perpausekin hainbat sailkapen desberdin egiteko aukera dago. Mounolek (2011, 11. or., 9. oin oharra), adibidez, eta ikerketa erraztearren mendeko perpausekin bi multzo egiten ditu: *-(e)n* atzizkia daramatenak lehenik, hots, erlatiboak eta kausazkoak, eta *-la* atzizkia daramatenak gero, hau da, osagarriak eta zirkunstantzialak. De Rijckek (1969, 330-334. or.) *-la* atzizkiak *Aux(iiliary) Movement* blokeatzeari buruz dioena kontuan izanik, ezeztapenaren hurrenkera ikertzean ez dirudi ideia txarra denik *-la* daramaten perpaus guztiak alde batean eta gainerakoak bestean ezartzea. Hala ere, hemengoa bezalako ikerketa batean segur aski sailkapen bitarra orokorregia litzateke, eta xehetasun gehiegi geldituko lirarteke aintzat hartu gabe.

Euskaltzaindiak (1999; 2005), bestalde, askoz ere banaketa finagoa egiten du, mendeko perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak,

8 Egitura perifrastikoak normalean jokatuak direnez, Euskaltzaindiak (2002, 2. or.) aipatzen dituen perpaus jokatugabeak ez dira aintzat hartu. Gainera, harridura perpausak kontuan eduki ahal izateko gutxiagian agertzen dira ikerkutatuko corpusean, eta, beraz, hauek ere ikerketatik kanpo utzi dira.

denborazkoak, helburuzkoak, kausazkoak, kontzesiozkoak eta moduzkoak (hamar guztira) bereizten baititu. Hau Mounolenaren (2011) parean oso sailkapen zehatza da, baina hainbat arrazoiengatik hemengoa bezalako ikerketa baten irismenetik kanpo dago horren banaketa fina egitea. Horrela bada, bitarteko konponbidetzat lau perpaus mota ohikoenak hartuko dira hemen kontuan: osagarriak (-*la*) (8a), erlatibozkoak (-*en*, *zein(a)*, *non*) (8b), baldintzazkoak (*ba-*, *balidin*) (8c) eta kausazkoak (*bait-*, *-lako*, *-gatik*, *ezen*, *zeren*) (8d). Gainerakoak *bestelako-tzat* sailkatuko dira (*nahiz (eta)*, *harik eta*, *baizik (eta) etab.*) (8e):

- (8) a. *Ni bezain gaizqui vicitudenac ez luqueala ni nagoen lecuac egon behar* (Mikelestorena, 1751, 43. or.)  
 b. *Dantzaan sartuten ez dirianac* (Fraibartolome, 1816, 69. or.)  
 c. *Baldiñ sensuec uqitcen ezpadute eguia* (Gazteluzar, 1686, 251. or.)  
 d. *Ecen ezitite ikutzen bere escuac oguia iaten dutenean* (Leizarraga, 1571; Linschmann & Schuchardt, 1990, 336. or.)  
 e. *Bekhatuic ez eguitecotz ardura behardu herioaz* (Tartas, 1666, 13. or.)

Menderagailuei dagokienez, *zeren*, *nahiz (eta)*, *ezen*, *zeinalnon*, *harik eta*, eta *baizik (eta)* partikuletatik bat daukan esaldi oro mendekotzat hartu eta goian adierazitako bost motetako batean sartu da, menderagailuaren arabera. Honen arrazoia da partikula hauek menderakuntza adierazten dutela, ez elkarketa (Garzia, 2014, 51. or., 28. oin oharra). *Zeren* partikula daramaten esaldietan maiz aditzak *bait-* edo *-en* hartzen du, eta horrelakoetan *zeren* menderagailutzat erabiltzen da (Euskaltzaindia, 1990, 178. or.). Ondorioz, *bait-* eta *-en* mendekotasun markatzat hartu dira.

Mendekotasunaren gaineko azken ohar gisa, euskarazko ezeztapenaren hurrenkera aldaketa eta galera hobeki ulertzen lagun lezakeen kontua aipatu beharra dago. Hizkuntza aldaketaren eta tipologiaren inguruko literaturan askotan esan izan da mendeko perpausak perpaus nagusiak baino gordetzailleagoak direla<sup>9</sup>, hau da, aldaketa perpaus nagusietan mendekoetan baino lehenago burutzen dela<sup>10</sup>, besteak beste hitz-hurrenkeraren aldaketari dagokionez (Givón, 1979, 259-261. or.; Lightfoot, 1982, 154. or.; Hock, 1986, 332. or.; Frajzyngier, 1996, 165-173. or.; Matsuda, 1998, 2-3. or.; Bybee, 2002, 4-5. or.; Crowley & Bower 2010, 231. or.), baina baita analogiazko aldaketari (Matsuda, 1993, 20. or.), berranalisiari (Mitchell, 1956, 80-86. or.; Bybee

9 Ikerketa honetako datuak ulertzeko moduaren arabera, hitz-hurrenkera bat galtzea (kasu honetan  $A_N$ -E- $A_L$  (pn)) berrikuntzat ikus daiteke, eta ondorioz hurrenkera bera mantentzea ezaugarri gordetzailatzat. Horrela bada, eta joera tipologikoari jarraikiz, euskaraz ere perpaus nagusiak berritzaileak direla esan daiteke, eta mendeko perpausak gordetzailleak (ikus 2. puntuko eztabaida).

10 Kontrako baieztapena ere, mendeko perpausak berritzaileak eta perpaus nagusiak gordetzailleak direlakoa alegia, egin da literaturan, batez ere hitz-hurrenkeraren aldaketari (Stockwell & Minkova, 1991, 399-400. or.) eta *pro-drop* ezaugarriaren galerari (Axel, 2007, 307-314, 321-325. or.) dagokienez. Egia esan, eztabaidak dagoeneko hamarkada batzuk dituen arren, ez dago inondik inora itxita, eta hizkuntza gehiagotako datuak jaso ahala ondorioak eta orokortzeak aldatuz joango dira. Oraingoz, behintzat, mendeko perpausak gordetzailleak direla segurtatzeko datu gehiago daude, eta autore gehiagok hala onartu dute.



et al., 1994, 230-231. or.) eta ezaugarri morfosintaktikoen galerari (Poplack, 1997, 293, 296-297. or.) begira ere. Mendeko perpausen gordetzailetasunak, beraz, gramatikaren alderdi frankori (morfologiari, morfosintaxiari, sintaxiari) eta hizkuntza aldaketa mekanismo gehienei (analogiari, berranalisiari, hedapenari, galerari) eragiten diela dirudi.

Izaera gordetzaille horren emaitza sinkroniko muturrekoena perpaus nagusietan eta mendekoetan hitz-hurrenkera desberdinak izatea da. Hau da, esate baterako, nederlanderaren eta hebreera biblikoaren kasua (Givón, 1977, 192. or.). Oro har, hortaz, mendeko perpausen gordetzailetasunak arealki, tipologikoki eta genetikoki lotuta ez dauden hizkuntzen sinkroniari aski eragiten diola ematen du. Hau eta aurreko ataleko adibideak ikusirik, interesgarria izan daiteke mendeko perpausen gordetzailetasuna euskararen garapenean aztertzea<sup>11</sup>.

## 2. EZEZTAPENAREN HURRENKERA HISTORIAN ZEHAR

### 2.1. Ezeztapena literaturan

Ikerketa honetako corpora osatzeko XVI. mendetik XX.era idatzitako hainbat testu hartu dira. Gainera, hizkuntzaren lagina ahalik eta adierazgarriena izan dadin eta emaitzak objektiboak eta alderagarriak izan daitezen, hainbat generotako testuak eduki dira kontuan, euskalki nagusi guztietakoak<sup>12</sup>: corpus honetan mendebaldeko eta erdialdeko euskararen, nafarreraren, nafar-lapurteran eta zubereraren idatzitako testuak daude<sup>13</sup>. Azkenik, ezeztapenaren hurrenkeraren garapena garbiagoa izan dadin, testuak mendez mende banatuta ikertu dira, ondoko ataletan ikus daitekeen bezala.

11 Euskararen mendeko perpausen gordetzailetasuna lehenago ere aipatu da: ikus Aldai (2002, 262; 2015, 332) eta Mounole (2011, 11-12, 298, 340. oin oharra).

12 Hurrengo generoek eta testuek osatzen dute ikertutako corpora: olerkiak (Etxepareren *Linguae vasconum primitiae*, Bertso bizkaitarrak, *Cantica ezpiritualac*, Dagerrenen *Othoitce eta cantica ezpiritualac*, Lizarragaren *Koplak*, *Euscaldunen eliz-cantac*, Gallophen *Vingt-cinq chansons populaires* eta Lauaxetaren *Bide barriak*), hitz laua (Axularren *Guero*), antzerkia (Jakes Oihenarteren *Kaniko eta Belxitina*), saiakera (Kardaberatzen *Eusqueraren berri onac*), saiakera erlijiosoa (Leizarragaren *Catechisme*, Beriainen *Tratado de como se ha de oyr Missa*, Tartasen *Onsa bilceco bidia* eta Arima *penitentaren occupatione devota*), Etxeberri Sarakoaren *Lau-urdirri gomendiozco carta, edo guthuna*, Suarez d'Aulanen *Catichima*, Ubillosen *Christau doctriñ berri-ecarlea* eta Frai Bartolomeren *Euscal-errietaco olgüeta*), itzulpenak (Betolatzaren eta Otxoa de Arinen *Doctrina christianak*, Larregiren *Testamen çaharreco eta berrico historia*, Bruneten *Jesu Cristoren euanjelioa* eta Arrueren *Santa Genovevaren vicitza*), legezko testuak (*Laphurdico comitatearen adierazpena*), gutunak, epaiketetan esandakoak eta bestelako testu laburrak (ikus atal bakoitza), esaera zahar bildumak (*Refranes y sentencias*), ipuinak eta eleberririk (Wentworth Websterren *Euskal ipuinak*, Muxika Egañaren *Umientzako ipuyak*, Coyosen *Zubererazko istorioak* eta Errose Bustintzaren *Euskalerriko ipuñak*), eta olerki eta hitz lau nahasketa (Lazarragaren *Eskuizkribua*). Ez litzateke ahaztu behar, jakina, corpus honen ezaugarriek emaitzetan eragina izan dezaketela, hots, corpus handiagoa edo desberdina ikertzeak agian bestelako emaitzak sortuko lituzkeela.

13 Euskalkien banaketa Zuazoren (2008) arabera egin da.

### 2.1.1. Ezeztapena XVI. mendean

Hitz hurrenkerari dagokionez, hasiera-hasieratik ezezko egitura perifrastikoen testigantzek aldakortasuna erakusten dute. Horrela, Lakarraren (1996, 254-255. or., 18. oin oharra) eta Reguero-Ugarteren (2013, 434. or.) aburuz berritzailea den E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> ordena testu askotan dago lekukotuta, ondoko perpaus nagusietan (9a-h) ikus daitekeen moduan:

- (9)
- a. *Eçayz yxilduco ardancopa matela* (1536; Maiora, 2011, 30. or.)
  - b. *Estou oussyc eguinan soury hin er darstura eguy harm* (Rabelais, 1542; Mitxelena, 1964, 148. or.)
  - c. *Eceyn iaunec eztu nahi muthil gaixtoa eduqui* (Etxepare, 1545; Altuna, 1980, 10. or.)
  - d. *Ni emen nayzala eçuen scribatu bear berçeri* (Juan de Irañeta, 1549; Mitxelena, 1964, 59-60. or.)
  - e. *Ezta erran nahi botherea baduela* (Leizarraga, 1571; Linschmann & Schuchardt, 1990, 1293. or.)
  - f. *Batez ere arreposturic ezitic vqhven* (Beltran d'Echoux, 1584; Mitxelena, 1964, 155. or.)
  - g. *Hao ysian eztoa sartu eullia, ta aldi guztietan ezta eder eguia* (1596; Lakarra, 1996, 280. or.)
  - h. *Ydi çarrari çe eguioc alauneris sorosi* (1596; Lakarra, 1996, 288. or.)

Hurrengo adibideek erakusten dute E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkera, perpaus nagusietan baino gutxiagotan agertzen bada ere, hasieratik mendeko perpausetan ere ez dela arraroa (10a-c):

- (10)
- a. *Ceren eztu eçagucen hala hongui eguina* (Etxepare, 1545; Altuna, 1980, 130. or.)
  - b. *Eta deus ezteela eguiten harçaz baicen* (Leizarraga, 1571; Linschmann & Schuchardt, 1990, 1296. or.)
  - c. *Erran draut eçela aren echetic alaco despachuric probeytu* (1598; Maiora, 2011, 106. or.; Santazilia, 2015, 129-130. or.)

Hala ere, esan beharra dago batez ere gizaldi honetan A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkera nahiko hedatuta dagoela, hurrengo adibideetako perpaus nagusietan (11a-g) ikusten den bezala. Gainera, hitz-ordena hau adierazpenezko (11a-c, f) nahiz aginterazko (11d-e, g) esaldietan aurki daiteke:

- (11)
- a. *Esquer hon bat vqhen eztut çuyeganic vician* (Etxepare, 1545; Altuna, 1980, 64. or.)
  - b. *Niorc ere esanen estu ni<c> estudan partiduric* (Amendux, 1564; Mitxelena, 1964, 108. or.)
  - c. *Valizco oleac burniaric eguin eçtaroa* (1571; Garibai, 1854)
  - d. *Echiezeyguçu jausten tentaciñoan* (Betolatza, 1596; Arana-Martija, 1986, 3. or.)
  - e. *Çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric* (1596; Lakarra, 1996, 254. or.)
  - f. *lazquereac parrahua eguite ez du* (1596; Lakarra, 1996, 302. or.)
  - g. *Emongo badeustaçu luzatu çe eguidacu* (1596; Lakarra, 1996, 364. or.)

Azkenik,  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkeraren testigantzak mendeko perpausetan ere aurkitzea erraza da (12a-e), bai erlatiboekoetan (12a, e), bai osagarrietan (12b), bai kausazkoetan (12d) eta bai bestelakoetan (12c) ere:

- (12) a. *Esango dabee yn bidiaç aurqui esango bearr ez tirean gauçaac* (1537; Sarasola, 1983, 98-99. or.)  
 b. *Hora il daguien mendian guiçona idoro ez didila* (1571; Garibai, 1854)  
 c. *Asi dira, ta onegaz vrten daude beralan oñeztar barruangoac çein erre ez citeçan* (1588; Mitxelena, 1964, 83. or.)  
 d. *Pena eternea gorde ez cituelaco* (Betolatza, 1596; Arana-Martija, 1986, 4. or.)  
 e. *Apizetan eztina edarayté da* (1596; Lakarra, 1996, 368. or.)

Hurrengo taulak XVI. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu:

1. taula. Ezezko egitura perifrastikoak XVI. mendean

Idazlana	Urtea	$E$ - $A_L$ - $A_N$ (pn)	$A_N$ - $E$ - $A_L$ (pn)	$E$ - $A_L$ - $A_N$ (m)	$A_N$ - $E$ - $A_L$ (m)
<i>Linguae vasconum</i>	1545	27 (% 62.8)	16 (% 37.2)	6 (% 22.2)	21 (% 77.8)
<i>Gutunak, epaiketak</i> <sup>14</sup>	1550	9 (% 81.8)	2 (% 18.2)	1 (% 50.0)	1 (% 50.0)
<i>Catechismea</i>	1571	95 (% 99.0)	1 (% 1.0)	36 (% 42.4)	49 (% 57.6)
<i>Doctrina christiana</i>	1596	0 (% 0.0)	1 (% 100)	0 (% 0.0)	7 (% 100)
<i>Refranes y sentencias</i>	1596	8 (% 23.5)	26 (% 76.5)	0 (% 0.0)	7 (% 100)
<b>Oso tara</b>		139 (%75.1)	46 (% 24.9)	43 (% 33.6)	85 (% 66.4)

Datuei begira, esanguratsua da XVI. gizaldiko testu batzuetan, Betolatzaren *Doctrina christiana* eta *Refranes y sentencias*en adibidez,  $E$ - $A_L$ - $A_N$  hurrenkeraren testigantzarik ez egotea ia, ez perpaus nagusietan ez mendekoetan. Leizarragaren *Catechismean*, berriz, kasik ez dago  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkeraren lekukotasunik. Zentzu honetan, datu hauek Lakarraren (1986, 655) iradokizuna bermatzen dute: beste euskalkien parean  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera bizkaiera zaharrean dagoela hedatuen XVI. mendeko testuetan. Nolanahi ere, (11a-b) eta (12a) adibideek gizaldi honetan  $A_N$ - $E$ - $A_L$  hurrenkera beste euskalkietan ere erabiltzen zela erakusten dute.

14 (9-12) adibideetan emandako testigantzez gain, hurrengo perpausak izan dira kontuan gutunak, epaiketak atalean corpuseko estatistikak osatzeko orduan: «*Avnque las causas principales eztitut scriviçen por buenos respettos*» (1545; Mitxelena, 1964, 60. or.); «*Batre eztici pagatu nahi vquen*» eta «*Lehiac ez taraçut ezcribacen luçazago*» (1584; Mitxelena, 1964, 155. or.); «*Heure bician estuc trataçen falçueriatan bayce*» (Pedro Martínez de Betolatza, 1596; Urrizola, 2007, 300. or.; Santazilia, 2015, 124. or.) eta «*Es omen çen alcateen baytan firmatu*» (1598; Maiora, 2011, 107. or.; Santazilia, 2015, 129-130. or.).

### 2.1.2. Ezeztapena XVII. mendean

Hurrengo gizaldian, XVII.ean, egoera bestelakoa da. Oraindik aldakortasun zerbait ikus badaiteke ere, E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkera ohikoago bihurtzen da, bereziki perpaus nagusietan (13a-h). E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hitz-ordena, adierazpen perpausetan (13a-d, g-h) ez ezik, galdera perpausetan (13e-f) ere lekukotuta dago:

- (13)
- a. *Beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (Lazarraga, 1602; Bilbao eta beste, 2011, 69. or., 6. oin oharra)
  - b. *Vorondateas eztu alacoac, sines escatcen* (Berriain, 1621, 91. or.)
  - c. *Beharriez baicen ez tut hor carela sinhetzten* (Etxeberri Ziburukoa, 1665, 51. or.)
  - d. *Baina nic orai presenteon, ez tut bat baicen eccarrico* (Axular, 1643, 221. or.)
  - e. *Cergatic ezaiz leheneco gogoan, eta sinhestean fin egotu?* (Axular, 1643, 132. or.)
  - f. *Eztoçu Paternosterrean, eta Aue Marian laungoicoagaz, eta bere ameagaz verba eguiten?* (Kapanaga, 1656, 42. or.)
  - g. *Ezta oraiño aditu çure haurretaric duela laincoac abandonatu* (Gazteluzar, 1686, 32. or.)
  - h. *Ez eban nay çeruac gura euquean pobluc* (1688; Lakarra, 1984, 118. or.)

Mendeko perpausetan ere E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkeraren testigantza asko daude (14a-g), bai osagarrietan (14a, d), kausazkoetan (14b-c, f-g) eta baldintzazkoetan (14e):

- (14)
- a. *Bere bician oy ez ebela gente obaric topadu* (Lazarraga, 1602; Bilbao eta beste, 2011, 83. or.)
  - b. *Eta ezpayluque sartunay vere viotzean* (Berriain, 1621, 126. or.)
  - c. *Non sainduric baicen deus ezpaita sarcen* (Haranburu, 1635, 54. or.)
  - d. *Eztioela cigorrac minic equinen* (Axular, 1643, 305. or.)
  - e. *Leguiaç ezpalu erran, ezteçala desira iniustoqui* (Tartas, 1666, 28. or.)
  - f. *Ezpaçara etorcen demboran* (Voltaire, 1684, 41. or.)
  - g. *Ceren espiritu bat ezpaitate eracoux* (1696; Belapeire, 1983, 54. or.)

Hala ere, E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> ordenaren maiztasun honek ez du inondik inora esan nahi A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkeraren lekukotasunak gutxi direnik. Hurrengoak ordena honen perpaus nagusietako lekukotasunak dira (15a-f):

- (15)
- a. *Neure bician ecusi ez dot ayn gauça abisaduric* (Lazarraga, 1602; Bilbao eta beste, 2011, 86. or.)
  - b. *Nic eztaquit jauna, ni<c> ycusi ezaytut* (1611; Sarasola, 1983, 108. or.)
  - c. *Eta falta ez dira machetaç sorrotsaq* (1619; Ulibarri, 2011, 368. or.)
  - d. *Behiñere ichilduco ezta hequin ahoa* (Etxeberri Ziburukoa, 1665, 195. or.)
  - e. *Gauça gasqui irabaciac eguiten estute secular etorcen fiñ onic* (Voltaire, 1684, 13. or.)
  - f. *Yzango esta ne[u]re ustean ain golpe segurua* (1688; Lakarra, 1984, 117. or.)

Azkenik, mendeko perpausetan  $A_N$ - $E-A_L$  hurrenkera ere aurki daiteke (16a-e), bai osagarrietan (16b), bai baldintzazkoetan (16c-d), bai kausazkoetan (16e) eta bai beste-lakoetan (16a) ere:

- (16) a. *Cegaiti artu ez daiquean* (Lazarraga, 1602; Bilbao et al., 2011, 79. or., 4. oin oharra)  
 b. *Eztuela halaco guerlaric eta eguitecoric sentitcen* (Axular, 1643, 479. or.)  
 c. *Incoa ezpada giten asqui sarri gure socorritcera* (Tartas, 1672, 40. or.)  
 d. *Vizicea ezaguzen espadaue* (1688; Lakarra, 1984, 117. or.)  
 e. *Cerren laungoicoa apartadu ez da gorpuceean ez arimeaganic* (1691; Sarasola, 1983, 151. or.)

Hurrengo taulak XVII. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu:

2. taula. Ezezko egitura perifrastikoak XVII. mendean

Idazlana	Urtea	$E-A_L-A_N$ (pn)	$A_N-E-A_L$ (pn)	$E-A_L-A_N$ (m)	$A_N-E-A_L$ (m)
<i>Eskuizkribua</i>	1602	53 (% 60.9)	34 (% 39.1)	13 (% 29.5)	31 (% 70.5)
<i>Tratado</i>	1621	39 (% 100)	0 (% 0.0)	26 (% 57.8)	19 (% 42.2)
<i>Guero</i> (I-XV)	1643	171 (% 100)	0 (% 0.0)	75 (% 50.7)	73 (% 49.3)
<i>Onsa hilceco bidia</i>	1666	154 (% 100)	0 (% 0.0)	125 (% 76.7)	38 (% 23.3)
<i>Arima penitentaren</i>	1672	85 (% 98.8)	1 (% 1.2)	30 (% 81.1)	7 (% 18.9)
<i>Eguia catholicac</i>	1686	188 (% 98.4)	3 (% 1.6)	89 (% 71.8)	35 (% 28.2)
<i>Bertso bizkaitarrak</i>	1688	8 (% 72.7)	3 (% 27.3)	2 (% 66.7)	1 (% 33.3)
<b>Oso tara</b>		698 (% 94.5)	41 (% 5.5)	360 (% 63.8)	204 (% 36.2)

Datu hauek ikusita bi ondorio nagusi atera daitezke: alde batetik,  $E-A_L-A_N$  hurrenkera ohikoagoa da, XVI. mendearen aldean, batez ere perpaus nagusietan. Beste alde batetik, perpaus nagusietako  $A_N-E-A_L$  hurrenkeraren galera dela eta, XVI. mendean ikus zitezkeen joera are garbiagoa da XVII. gizaldian: mendebaldeko euskaran hurrenkera hau oraindik nahiko arrunta da, Lazarragaren *Eskuizkribuan* adibidez. Aldiz, ekialdeko euskalkietan ordena hori ia erabat desagertu da: Axularrek, Gazteluzarrek eta Tartasek ia ez dute erabiltzen, beren idazkiak nahiko luzeak diren arren. Datuek, beraz, goian aipatutako Lakarraren (1986, 655. or.) iradokizuna bermatzen dute.

### 2.1.3. Ezeztapena XVIII. mendean

Gizaldi honetan aurreko mendeko  $E-A_L-A_N$  hurrenkera nagusitzeko joerak neurri batean atzera egiten duela ematen du. Halarik ere, artean ere  $E-A_L-A_N$  da hitz-ordenarik arruntena, kasu hontan perpaus nagusietan (17a-g). Hurrenkera hau ohikoa da adierazpen perpausetan (17a-d, g) eta galderetan (17e-f):

- (17) a. *Escuarac eztu gambiaduratic hartu* (Etxeberri Sarakoa, 1712; Urkixo, 1907, 43. or.)

- b. *Orregatican ere nay izandu ez ceban aitaric izan ceguian lurrean* (Otxoa de Arin, 1713, 26. or.)
- c. *Baña atricioac eztu au eguyten* (Elizalde, 1735, 68. or.)
- d. *Ez alzaitú antústeac amildúco* (Larramendi, 1747; Telletxea, 1990)
- e. *Animen salvacioagatic, cer ez degu eguin bear?* (Kardaberatz, 1761b; Altuna & Zulaika, 2004, 21. or.)
- f. *Jauna, ez digu ezer erosten?* (Munibe, 1762; Altzibar, 1991, 253. or.)
- g. *Ordean Faraonec etçuen entçun eguiten ciçaioen othoitz humila* (Larregi, 1775, 121. or.)

Mendeko perpausetan ere E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkeraren testigantzak ez dira gutxi (18a-e), hala nola baldintzazkoetan (18a-c), osagarrietan (18e) eta bestelakoetan (18d):

- (18) a. *Bainan gogoan eta bihotcetán duguna ez badugu eracusten hitcetán* (Etxeberri Sarakoa, 1718; Bilbao, 2006, 332. or.)
- b. *Ezpadupagacén ebatsi duena* (Elizalde, 1735, 57. or.)
- c. *Jaincoac emán ezpacizún Jesúsén biotzaréquico dezún jayerá hori* (Larramendi, 1747; Telletxea, 1990)
- d. *Alaco moduz nun momenturic laburrena ez det galduco* (1761; Kardaberatz, 1896, 72. or.)
- e. *Uste dut ez nazulà utcico ni galduric* (Mendiburu, 1765, 200. or.)

Ezeko marka hasieran daukan hurrenkera ohikoena bada ere ere, honek ez du esan nahi XVIII. mendean A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkera gutxitan kausitzen dela. Hurrengo adibideak perpaus nagusiak dira, bai adierazpenak (19a-d) eta bai galderak (19e):

- (19) a. *Guizonic aguerí ezta* (Larramendi, 1729, 4. or.)
- b. *Gogoac ematen dizuna baicic eguiten ez dezu* (Mendiburu 1747, 141. or.)
- c. *Ceruco doai, añ ugari Jaun onec eman naidizquitzunac, artcen ezdituzu* (Kardaberatz, 1761a, 336. or.)
- d. *Bestelako tratamenturic merezitzen ez dozu* (Munibe, 1764; Altzibar, 1991)
- e. *Cer behar ez-ciçaión gosta haren amudioari ume maite baten sacrificatcea?* (Larregi, 1775, 221. or.)

Azkenik, A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkera hainbat mendeko perpaus motatan aurki daiteke, besteak beste baldintzazkoetan (20a-b), osagarrietan (20c), erlatibozkoetan (20e) eta bestelakoetan (20d):

- (20) a. *Içaten ezbanaiz* (1714; Urte, 1900, 154. or.)
- b. *Batbatetàn aditzen ezpadirá* (Larramendi, 1747; Telletxea, 1990)
- c. *Seygarrena araguiazco beccaturic eguin estazagula* (1749; Reguero-Ugarte, 2017, 149. or.)
- d. *Ucatuco ez didazulaco ustean* (Mendiburu, 1765, 54. or.)
- e. *Vici bat secula acaba eztadiena* (1780; Santazilia, 2016, 77. or.)

Hurrengo taulak XVIII. mendeko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu:

3. taula. Ezezko egitura perifrastikoak XVIII. mendean

Idazlana	Urtea	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)
<i>Doctrina christiana</i>	1713	37 (% 94.9)	2 (% 5.1)	14 (% 19.4)	58 (% 80.6)
<i>Lau-urdiri gomendio</i>	1718	7 (% 100)	0 (% 0.0)	6 (% 17.6)	28 (% 82.4)
<i>Catichima edo fedia</i>	1740	29 (% 72.5)	11 (% 27.5)	37 (% 61.2)	23 (% 38.8)
<i>Gutunak eta abar</i> <sup>15</sup>	1750	25 (% 92.6)	2 (% 7.4)	24 (% 60.0)	16 (% 40.0)
<i>Eusqueraren berri o.</i>	1761	5 (% 25.0)	15 (% 75.0)	2 (% 15.4)	11 (% 84.6)
<i>Testamen çaharreco</i>	1775	178 (% 100)	0 (% 0.0)	122 (% 78.2)	34 (% 21.8)
<i>Christau doctriñ be</i>	1785	29 (% 74.4)	10 (% 25.6)	10 (% 21.7)	36 (% 78.3)
<i>Laphurdico comitate</i>	1790	12 (% 100)	0 (% 0.0)	6 (% 60.0)	4 (% 40.0)
<b>Oсотara</b>		322 (% 89.0)	40 (% 11.0)	221 (% 51.4)	209 (% 48.6)

Datuak ikusita argi dago Mitxelenak (1978, 223-224. or.) proposatzen duen 1750 eta 1850 arteko idazle herrikoien eta gramatikarien bereizketa XVIII. gizaldian oraindik ez dela garbia: hainbat idazlek agertzen dute perpaus nagusietako A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkera, besteak beste Kardaberatzek, Larramendik, Otxoa de Arinek, Ubillosek eta Suarez d'Aulanek. Gainera, oro har A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> ordena XVII. gizaldian baino ohikoagoa da, baina ez XVI. mendekoa bezainbeste. Egia da, bestalde, beste idazle batzuek –tartean Etxeberri Sarakoa eta Larregi daude– ez dutela hurrenkera hau biltzen. Honek Iparraldean A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) ordena gutxitan erabiltzen dela erakusten badu ere, bereziki Suarez d'Aulanen lanean agertzeak idarokitzen du A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkera ez dela bakarrik mendebaldeko euskararen ezaugarria, XVIII. mendean behintzat.

#### 2.1.4. Ezeztapena XIX. mendean

Aurreko mendeekin alderatuta ikusten da E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkerak XIX. mendean atzera egin duela, ez aurrera. Hala ere, E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> da ohikoena perpaus nagusietan (21a-e), hala nola adierazpenetan (21b, d-e) eta galderetan (21a, c):

15 (20c, e) adibideetan emandako testigantzez gain, hurrengo perpausak izan dira kontuan *gutunak eta abar* atalean corpuseko estatistikak osatzeko orduan: «*Cer da ansi, enzunle gueyenac erausi hura aditzen ezpadute?*», «*Icasi ez dutenen artean, botatze eztituzten andican bera*», «*Eztute icen obeagoric mereci*», «*Oyec utzi bear eztitugu*» eta «*Eztezu ayetan aurquituco*» (Larramendi, 1747; Telletxea, 1990); «*Ceren guardatu echitusten*», «*Bigarrena estaguigula iuramenturic banoqui*», «*Bosgarrena nior ill eztecegula*», «*Seygarrena araguiazco beccaturic eguin estazagula*», «*Zazpigarrena deusic ebatchi estezagula*», «*Zorcigarrena falso testimonioriq alsa estezagula*», «*Bedezigarrena berceren senarriq edo emasteriq desececegula*» eta «*Amargarrena berceren ontasuniq desececegula*» (1749; Reguero-Ugarte, 2017, 360. or.); «*Vici bat deus ere falta eztaquitana, trabajuric igare eztezana*», «*Eztuela irabazten asqui mantenaceco*», «*Eztuzu caimbere trabaju bear*», «*Eztiten gendeac gal*», «*Eztiten guisa contan pasageroac gal*», «*Eztiatequezu gueyago desece*», «*Eziaucuzun Jaungoicoac berce legueric eman*», «*Eztugularic usacen*», «*Ezitela sar contuan zure sierboequin*», «*Eztezazula juzga zure sierboac*» eta beste hainbeste (1780; Santazilia, 2016, 76-96. or.).

- (21) a. *Cegaitic auxe berau eztozue ceuroc gaitic uste izaten?* (Añibarro, 1803, 33. or.)  
 b. *Baina ez dau onec gueure bijotzetati quenduten alegrija eguijazcua* (Frai Bartolome, 1816, 22. or.)  
 c. *Norc bada eztu deseyetuco, deseyo ta aleguiñ guciequi alaco diche?* (≈ 1850; Salaberri & Urrizola, 2008, 265. or.)  
 d. *Ez dute hunkituko hortakoz khilurik* (Berjes, 1867, 1. or.)  
 e. *Etzan ezer entzuten inguru ayetan* (Artzak, 1894, 15. or.)

Ordena hau berau mendeko perpausetan ikus daiteke (22a-d), besteak beste osagarrietan (22a), baldintzazkoetan (22c), erlatibozkoetan (22d) eta bestelakoetan (22b):

- (22) a. *Ez dezala Jaincoac nai inoiz Belgiacoac buruac arrotzea* (Mogel, 1802; Mahn, 1857, 51-52. or.)  
 b. *Çouretaco baici ezteçan hasperenic eguin* (Dagerre, 1823, 30. or.)  
 c. *Ferdinanek ez balu ordenuan bertzela egin* (Daskonagerre, 1870, 72. or.)  
 d. *Zeñac ez dira izan sortuac odolez* (Brunet, 1884, 4. or.)

Ezezko marka hasieran daraman hurrenkera XIX. gizaldian ohikoagoa izateak ez du esan nahi, hala ere,  $A_N$ -E- $A_L$  ordena gutxitan aurki daitekeenik. Horren adibide dira hurrengo perpaus nagusietako testigantzak (23a-f):

- (23) a. *Iguituco ez da ecertara* (Mogel, 1802; Mahn, 1857, 47. or.)  
 b. *Secúlan aditu eztá bat berére otói acuditu zaióna beñére* (Lizarraga, 1821; Apezetxea, 1983, 30. or.)  
 c. *Ecarri ez dituzu sagárrac* (Lardizabal, 1856, 66. or.)  
 d. *Jaungoicoác naigabe munduan iñorc ere gordetzen ez nau* (Arrue, 1882, 13. or.)  
 e. *Zeñen gana etorri nai ez dezute, bizia izan dezazuten?* (Brunet, 1884, 5. or.)  
 f. *Jaunaz oroitzen ez da* (Campion, 1884, 231. or.)

Azkenik,  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera mendeko perpausetan ere ez da gutxitan aurkitzen, tartean erlatibozkoetan (24a), osagarrietan (24b), baldintzazkoetan (24d) eta bestelakoetan (24c):

- (24) a. *Necesidadericbaga trabajace eztauenac* (≈ 1800; Salaberri, 2004, 538. or.)  
 b. *Adizáze, causa aurquitzen eztudála* (Lizarraga, 1821; Apezetxea, 1983, 95. or.)  
 c. *Norc berac communiatcen ez duenean errealki* (Animoa, 1846, 34. or.)  
 d. *Aitortuko ezpanu bijotzik eznuke* (Artzak, 1894, 11. or.)

Hurrengo taulak XIX. gizaldiko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu:



4. taula. Ezezko egitura perifrastikoak XIX. mendean

Idazlana	Urtea	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (pn)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (pn)	E-A <sub>L</sub> -A <sub>N</sub> (m)	A <sub>N</sub> -E-A <sub>L</sub> (m)
<i>Cantica izpiritualac</i>	1804	16 (% 100)	0 (% 0.0)	2 (% 50.0)	2 (% 50.0)
<i>Euscal-errijetaco o.</i>	1816	86 (% 90.5)	9 (% 9.5)	30 (% 28.8)	74 (% 71.2)
Lizarragaren <i>Koplak</i>	1821	136 (% 81.4)	31 (% 18.6)	63 (% 58.3)	45 (% 41.7)
<i>Othoitze eta cantica</i>	1823	38 (% 100)	0 (% 0.0)	18 (% 58.1)	13 (% 41.9)
<i>Jesu Cristoren evan.</i>	1834	166 (% 96.5)	6 (% 3.5)	47 (% 48.5)	50 (% 51.5)
<i>Kaniko eta Belxitina</i>	1848	64 (% 100)	0 (% 0.0)	21 (% 65.6)	11 (% 34.4)
<i>Euskal ip.</i> (1-110)	1877	161 (% 100)	0 (% 0.0)	52 (% 76.5)	16 (% 23.5)
<i>Santa Genovevaren</i>	1882	25 (% 23.4)	82 (% 76.6)	4 (% 9.5)	38 (% 90.5)
<b>Osotara</b>		692 (% 84.4)	128 (% 15.6)	237 (% 48.8)	249 (% 51.2)

Datuek lehenbiziko begiradan erakusten dute XIX. mendean A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> hurrenkera XVII. eta XVIII. mendeetan baino ohikoago bihurtu dela, perpaus nagusietan nahiz mendekoetan. Hala ere, idazleei begiratuz gero ikus daiteke joera honen erantzuleak bi autore direla: Lizarraga eta, batez ere, Arrue. Hauen lanak alde batera utziz gero, ikusten da E-A<sub>L</sub>-A<sub>N</sub> hurrenkera perpaus mota guztietan orokortu dela. Euskalkiei dagokienez, ez dago banaketa garbirik, A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkera *zaharra* autore bizkaitarrek (Frai Bartolome), gipuztek (Arrue, Brunet) eta nafarrek (Lizarraga) erabiltzen dutelako. Hori bai, Dagerrek eta Oihenartek hurrenkera hori bera ez erabiltzeak iradokitzen du A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) Iparraldean galdu zela lehenik.

#### 2.1.5. Ezeztapena XX. mendean

Aurreko gizaldiko joerari jarraituaz, XX. mendearen lehen erdian A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkeraren azkeneko testigantzak ikus daitezke. Horrela, XX. gizaldiko corpusean autore gutxi batzuek baizik ez dute ibiltzen ordena hau: Lauaxetak (25c), Lopez de Mendizabal gramatikariak (25b) eta autore ezezagun batek (25a), adierazpen perpausetan (25b) nahiz galderetan (25a, c):

- (25) a. *Urricarriz biotza norc urratuco ez du?* (Anonimoa, 1906, 4. or.)  
 b. *Potoko esnea baño geiago estutzen ez da* (Mendizabal, 1908, 134. or.)  
 c. *Maitatzen eztozu?*<sup>16</sup> (Lauaxeta, 1931, 57. or.)

16 Lauaxetak (1931, 57. or.) *Maitatzen eztozu?* hurrenkera darabil, baina hau *metri causa* egiten du: olerkieren errima *x-a-x-a* da, eta lerro honetako azken silabak (-zu) bigarrenekoarekin errima egin dezan aditz laguntzaileak azken tokian joan behar du (*Zer esaten dautzu ... Maitatzen eztozu*). Idazleak hurrenkera markatugabea erabili balu (*Eztozu maitatzen*) errima hautsiko zuen. Horrela bada, adibide hau A<sub>N</sub>-E-A<sub>L</sub> (pn) hurrenkeratzat hartzea zalantzazkoa da.

Lopez de Mendizabalek (1908)  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hurrenkera erabiltzen duela De Rijkek (1969, 333) eta Mitxelenak (1978, 224) aipatzen dute, baina ez, ordea, Lauaxetak (1931) eta autore ezezagunak (1906) gauza bera egiten dutela. Horregatik, XX. mendearen lehen erdian  $A_N$ - $E$ - $A_L$  (pn) hitz-ordenaren erabilpena orain arte uste zen baino hedatuago zegoela esan daiteke. Egia da, hala ere, garai bereko idazle eta gramatikari gehienek gaur egungo euskaran ohikoa den  $E$ - $A_L$ - $A_N$  hurrenkera besterik ez dutela erabiltzen, perpaus nagusietan (26a-e):

- (26) a. *Lenengo Antontxo'k ez ziyen erantzuten eiztariyaren galderari* (Muxika, 1914, 10. or.)  
 b. *Sare andirik be eztabe artzen* (Altube, 1920, 21. or.)  
 c. *Ondoko urrikiak ez du balio deus* (Gallop, 1928, 31. or.)  
 d. *Xoko-moko gūziak ikertūrik deūs ere ez dūe edireiten* (Coyos, 2013, 24. or.)  
 e. *Aitak ez balu untzia aurdiki atzo* (Lafitte, 1944, 49-50. or.)

Hurrengo taulak XX. gizaldiko corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu:

5. taula. Ezezko egitura perifrastikoak XX. mendean


Idazlana	Urtea	$E$ - $A_L$ - $A_N$ (pn)	$A_N$ - $E$ - $A_L$ (pn)	$E$ - $A_L$ - $A_N$ (m)	$A_N$ - $E$ - $A_L$ (m)
<i>Euscaldunen eliz-cantac</i>	1906	41 (% 93.2)	3 (% 6.8)	6 (% 37.5)	10 (% 62.5)
<i>Umientzako ipuyak</i>	1914	24 (% 100)	0 (% 0.0)	4 (% 26.7)	11 (% 73.3)
<i>Vingt-cinq chansons</i>	1928	10 (% 100)	0 (% 0.0)	5 (% 83.3)	1 (% 16.7)
<i>Bide barriak</i>	1931	29 (% 93.5)	2 (% 6.5)	4 (% 66.7)	2 (% 33.3)
<i>Zubererazko istorioak</i>	1939	181 (% 100)	0 (% 0.0)	64 (% 79.0)	17 (% 21.0)
<i>Euskalerriko ipuñak</i>	1952	151 (% 100)	0 (% 0.0)	25 (% 39.7)	38 (% 60.3)
<b>Oso tara</b>		436 (% 98.9)	5 (% 1.1)	108 (% 57.8)	79 (% 42.2)

Perpaus nagusiei buruz aipatutakoez gain, datuei oharturik interesgarria da ikustea XX. mendean, XIX.aren aldean, mendeko perpausetan  $E$ - $A_L$ - $A_N$  hurrenkera berriz ere ohikoago bihurtu dela. Gainera, euskalkien arabera joera garbia ikusten da:  $A_N$ - $E$ - $A_L$  gehien erabiltzen duen euskalkia mendebaldekoa da, eta, kontrara, ekialdekoek  $E$ - $A_L$ - $A_N$  hurrenkera nahiago dutela dirudi. Hau Lakarraren (1986, 655. or.) iradokizunarekin lotuz gero, pentsa liteke  $A_N$ - $E$ - $A_L$  lehenbizi Iparraldean eta ekialdean galdu zela perpaus nagusietan, segur aski XVIII. mendearen bukaeran edo XIX.aren hasieran, eta galera gero mendebalderantz hedatuz joan zela,  $A_N$ - $E$ - $A_L$  ordena XX. gizaldiaren hasieran gutziz lekutu arte. Kontu honi hurrengo atalean helduko zaio berriz.


## 2.2. Ezeztapena: datuen interpretazioa

Aurreko atalean XVI. eta XX. mendeen arteko ezezko egitura perifrastikoen bilakera ikertu da, mendez mende. Atal honek, berriz, egitura horien garapenaren ikuspegi

orokorra aurkeztuko du. Hurrengo grafikoek ezezko egitura perifrastikoen bilakaera erakusten dute, perpaus nagusietan (lehen grafikoa) eta mendeko perpausetan (bigarren grafikoa):



1. grafikoa. Ezezko egitura perifrastikoen hurrenkeraren garapena, perpaus nagusietan.



2. grafikoa. Ezezko egitura perifrastikoen hurrenkeraren garapena, mendeko perpausetan.

Datuek erakusten duten bezala, euskararen historian zehar  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera murriztu egin da, bai perpaus nagusietan eta bai mendekoetan ere. Perpaus nagusietan erabat galdu da, beranduenez XIX. gizaldiaren bukaerarako edo XX.aren hasierarako, antza. Hortaz, esan daiteke De Rijkek (1969, 330-334. or.) proposatutako *Aux(iliary)-Movement* arau sintaktikoa garai honetarako bihurtu zela derrigorrezko, idatzizko hizkuntzan bederen: ahozkoan agian franko lehenago gertatuko zen hau<sup>17</sup> (Mitxelena, 1978, 223-224. or.). Mendeko perpausak  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera atxikitzea hainbat hizkuntzatan ikus daitekeen perpaus hauen gordetzailatasunaren bidez azal daiteke (Bybee, 2002, 4-5. or.), sarreran aipatu den bezala. Hala ere, badirudi E- $A_L$ - $A_N$  ordenaren maiztasuna mendekoetan ere igo dela, batez ere Iparraldeko euskalkietan. Horregatik, espero izatekoa litzateke mendeko perpausak ere  $A_N$ -E- $A_L$  hurrenkera noizbait galtzea, eta, modu honetan, perpaus nagusietara lerratzea. Aldaketaren izaerari dagokionez, ez dirudi ezezko egitura perifrastikoen garapenak literaturan anitzetan proposatu den *S-bihurguneko* (*S-curve*, *Sigmoid*, *S-shaped curve*) aldaketa *naturala* jarraitzen duenik<sup>18</sup> (Osgood & Sebeok, 1954, 155. or.; Bailey, 1973, 77. or.; Kroch, 2001, 719. or.).

Hurrenkera bakoitzaren adinaren karietara, zenbakiak ez dute argitzen zaharrena zein den. E- $A_L$ - $A_N$  perpaus nagusietan orokortzeak ordena hau berritzailea dela esan nahi duke, Lakarrak (1996, 254-255. or., 18. oin oharra) eta Reguero-Ugartek (2013, 434. or.) proposatzen duten moduan, baina hau ez da segurua, E- $A_L$ - $A_N$  ordena lehen testuetarako oso ohikoa delako. Galdera honi ezin zaio, beraz, erantzun garbirik eman, oraingoz. Honek gelditzen diren bi galderetara gakartza: zein faktorek baldintzatzen dute hurrenkera bakoitzaren erabilera? Ba al dago euskalkien artean alderik erabilerari dagokionez?

### 2.3. Ezeztapena zenbait faktoreren arabera

#### 2.3.1. *Perpaus mota*

Sarreran aipatu da perpaus mota desberdinak kontuan ez hartzeak xehetasun franko ez ikusteko arriskua izango lukeela. Horregatik, atal honetan ezezko egitura perifrastikoen hitz hurrenkera perpaus motaren arabera aztertuko da. Hurrengo taulak corpusaren ikerketaren emaitzak erakusten ditu, kasu honetan perpaus nagusi motaren arabera:

17 Datuei erreparaturik, ez dago garbi  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) hurrenkera ahozko eta idatzizko hizkuntzan aldi berean edo garai desberdinetan galdu zen. Galdera honi erantzuteko modu bat litzateke euskararen gramatika historikoetan, arauemailetan batez ere,  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) hurrenkerari buruz esaten dena begiratzea. Gai hau oraingo lan honen helmenetik landa badago ere, etorkizunerako galdera interesgarria da.

18 Lan honen ebaluatzaile batek aipatu duen moduan, hau aldaketaren txandakatzeagatik izan daiteke:  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) ordenaren galera lehen testu luzeak agertu baino lehen, hots, XVI. mendearen aurretik hasi zela dirudi. Horrela bada, zenbakiak erakusten duten irudia ez da erabatekoa, aztertutako corpusaren ezaugarriek ere eragina izan baitezakete honetan.

6. taula. Ezezko egitura perifrastikoak perpaus nagusi motaren arabera

Perpaus nagusi mota	$E-A_L-A_N$ (pn)	$A_N-E-A_L$ (pn)
Adierazpenak	1848 (% 91.2)	179 (% 8.8)
Aginduak	153 (% 66.5)	77 (% 33.5)
Galderak	286 (% 98.6)	4 (% 1.4)
Denetara	2287 (% 89.8)	260 (% 10.2)

Datuek erakusten duten moduan, perpaus nagusi mota guztietan ikus daiteke  $E-A_L-A_N$  (pn) ordena orokortzeko joera. Salbuespen bakarra, agian, agintezko perpausak dira: kasuen heren batean (77, % 33.5) hurrenkera  $A_N-E-A_L$  (pn) da. Salbuespen hau joera tipologikoen bitartez azal daiteke: hizkuntza askotan aginte perpausetan aditz nagusia perpausaren hasieran jartzen da, salbuespen ugari badaude ere (Aikhenvald, 2010, 92-93. or.). Euskaraz ezezko aginte perpausak (edo, hobeki esan, debeku perpausak) bestelako perpausak baino neurri txikiagoan jasan dute aldaketa, aditz nagusia hasieran ezartzeko, hots, *ikus ez ezazu* bezalako ordena izateko, joera tipologikoa dela eta. Hau hurrengo adibideetan ikus daiteke (27a-c):

- (27) a. *Echiezeyguçu jausten tentaciñoan* (Betolatza, 1596; Arana-Martija, 1986, 3. or.)  
 b. *Nehor obraz hil etçacu* (Suarez d'Aulan, 1740, 9. or.)  
 c. *Iñor obraz illco ez dezu* (Ubillos, 1785, 170. or.)

Adierazpen eta galdera perpausak, berriz,  $E-A_L-A_N$  izateko joera garbia erakusten dute, bi perpaus motetan hurrenkera hau % 90ean baino gehiagotan ikus baitaiteke. Ondoko taulak corpusaren ikerketaren emaitzak azaltzen ditu, kasu honetan mendeko perpaus motaren arabera:

7. taula. Ezezko egitura perifrastikoak mendeko perpaus motaren arabera

Mendeko perpaus mota	$E-A_L-A_N$ (m)	$A_N-E-A_L$ (m)
Osagarriak	482 (% 80.1)	120 (% 19.9)
Erlatibozkoak	25 (% 7.7)	300 (% 92.3)
Baldintzazkoak	152 (% 42.9)	202 (% 57.1)
Kausazkoak	218 (% 82.3)	47 (% 17.7)
Bestelakoak	92 (% 36.8)	158 (% 63.2)
Denetara	969 (% 54.0)	827 (% 46.0)

Datuek erakusten dute mendeko perpausen  $A_N-E-A_L$  (m) hurrenkera gordetzeko joera perpaus motaren arabera asko aldatzen dela: alde batetik perpaus osagarriek (% 80.1) eta kausazkoek (% 82.3)  $E-A_L-A_N$  (m) hobesten dute. Beste aldetik, baldintzazkoek (% 57.1), bestelakoek (% 63.2) eta batez ere erlatibozkoek (% 92.3)  $E-A_L-A_N$  ordena

dute nahiago. Zentzu honetan jakina da egungo euskaran  $E-A_L-A_N$  ordena erlatibozko perpausetan debekatuta dagoela (28b). Debeku honen arrazoia da horietan erlatiboaren marka aditz jokatuari (egitura perifrastikoetan, laguntzaileari) eratziki behar zaiola eta aditz laguntzaileak perpausaren amaieran agertu behar duela (28a);  $E-A_L-A_N$  hurrenkera erabiltzeak, aldiz, bi arau horiek betetzea galarazten du (28b) (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003, 767. or.):

- (28) a. *Altubek kontutan hartu ez zuen oinarrizko partiketa batekin egin dut topo*  
 b. *\*Altubek ez zuen kontutan hartu oinarrizko partiketa batekin egin dut topo*<sup>19</sup>

Bistan da, beraz, erlatibozko perpausak bereziak direla hitz hurrenkerari dagokionez, bai gaurko euskaran, bai gaurdainokoa. Erlatiboak alde batera utziz gero, mendeko perpausen gordetzailetasuna ez da hain nabarmena: 527/1471-k (% 35.8) daukate  $A_N-E-A_L$  (m) hitz-ordena.

### 2.3.2. Euskalkia

Aurreko ataletan iradoki da euskalkiak ere eragina izan lezakeela ezezko egitura perifrastikoen hitz hurrenkeraren aldaketan. Galdera honi erantzuteko asmoz, ondoko taulak ikertu diren XVI. gizalditik XX.era bitarteko testuen emaitzak biltzen ditu, euskalkiaren arabera sailkatuta:

8. taula. Ezezko egitura perifrastikoak euskalkiaren arabera

Euskalkia	$E-A_L-A_N$ (pn)	$A_N-E-A_L$ (pn)	$E-A_L-A_N$ (m)	$A_N-E-A_L$ (m)
Mendebaldeko euskara	335 (% 81.7)	75 (% 18.3)	74 (% 31.6)	160 (% 68.4)
Erdialdeko euskara	513 (% 81.0)	120 (% 19.0)	163 (% 39.9)	246 (% 60.1)
Nafarrera	184 (% 84.8)	33 (% 15.2)	90 (% 58.1)	65 (% 41.9)
Nafar-lapurtera	771 (% 96.1)	31 (% 3.9)	402 (% 58.7)	283 (% 41.3)
Zuberera	484 (% 99.8)	1 (% 0.2)	240 (% 76.7)	73 (% 23.3)
Denetara	2287 (% 89.8)	260 (% 10.2)	969 (% 54.0)	827 (% 46.0)

Datuek joera garbia erakusten dute: ekialdera joan ahala  $A_N-E-A_L$  gutxiagotan kausitzen da, perpaus nagusietan nahiz mendekoetan. Lakarraren (1986, 655. or.) eta Regue-ro-Ugarteren (2013, 434. or.) ildotik, eta Mitxelenaren (1978, 224. or.) aurka,  $E-A_L-A_N$  ordena berritzailea dela pentsatzeak esan nahiko luke ekialdeko euskalkiak direla

19 Hizkera batzuetan analogiaz *-ko* atzizkiarekin osatutako ezezko perpaus adberbialetara hedatzen da ezezko erlatibozko perpausen hitz-hurrenkera, hots,  $A_N-E-A_L$  (m). Horren ondorioz, *aspaldidanik ikusi ez ditudan lagunak > aspaldidanik ikusietako lagunak* bezalako esaldiak osatzen dira (Txillardeggi, 2005, 10. or.). Ematen duenez, hau berrikuntza da eta ez litzateke, arrazoi horrengatik, hemengo eztabaidarako kontuan hartu behar.

berritzaileenak, eta mendebaldekoak berriz gordetzaileenak. Hau Ipar Euskal Herriko dialektoetan ikusten da garbienik: corpusean aztertu diren Iparraldeko egileetatik,  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) hurrenkera erabiltzen azkena Suarez d'Aulan da, XVIII. gizaldia-  
ren erdialdean (1740). Hegoaldean, berriz, ordena hori erabiltzen azkena Lauaxeta (1931) da.

### 3. ONDORIOAK

Laburbilduz, lau galderari erantzuna emateko ahalegina egin da:  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) hurrenkera euskara idatzian XIX. mendearen bukaeran edo XX.aren hasiera aldean galdu zela erakutsi da; ezezko egitura perifrastikoen hitz ordenari perpaus motak eta euskalkiak eragiten diotela azaldu da, eta  $A_N$ -E- $A_L$  (pn) hurrenkeraren galerari dagokionez, ekialdeko euskalkiak berritzaileenak eta mendebaldekoak gordetzaileenak direla aurkitu da. Kasu gehienetan ordena aldeak, debeku perpausetan eta mendekoetan adibidez, joera tipologikoengatik sortu direla iradoki da. Zoritxarrez, datuetan oinarrituta aztertutako bi hurrenkeren artean, hau da, E- $A_L$ - $A_N$  eta  $A_N$ -E- $A_L$ -ren artean, zaharrena zein den ezin izan da osotara argitu. Oro har, lan honetan egindako ekarpenek Lakarraren (1986; 1996) eta Reguero-Ugarteren (2013) baieztapenak berresten dituzte. Azkenik, Mitxelenak (1978, 224. or.) proposatutako ahozko eta idatzizko euskararen arteko bereizketa etorkizuneko ikerketan aztertu beharko litzatekeen gaia dela aipatu da.

## 4. ERREFERENTZIAK

- Agirre, J. B. (1978). *Confesioco, eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldiak*. Donostia: Hordago.
- Aikhenvald, A. Y. (2010). *Imperatives and commands*. Oxford: Oxford University Press.
- Aldai, G. (2002). *The grammaticalization of present and past in Basque* (doktoze tesia). University of Southern California, Los Angeles.
- Aldai, G. (2015). Subordinadas completivas del verbo gertatu 'ocurrir' en Haraneder: ¿Subjuntivo extendido o conservación del aoristo perifrástico? *FLV*, 120, 327-344.
- Altube, S. (1920). *De sintaxis euskerica*. Donostia: Imprenta de Martin, Mena y Compañia.
- Altzibar, X. (1991). *Gabonsariak, El borracho burlado*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Añibarro, P. A. (1803). *Lora-sorta espiritualala, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*. Tolosa: Don Francisco la Lama.
Artikulua honelaxe dago antolatuta: 2. atalean, datuen analisi akustikoa eginda agertzen diren azentu patroiak deskribatzen dira. Aipatu dudanez, Mitxelenak esaten digu «hitz normalekin» singularra eta plurala bereizten direla azentuaren bidez. Hala ere, bere hitz zerrenda egin zuenean bereizkuntza horren izaera ez zuen aztergai. 3. atalean singularren eta pluralen azentueraz esan dezakeguna adierazten dut. 4. atalean nire azterketa eta hitzen sailkapen prosodikoa Mitxelenak alde aurretik egindakoarekin konparatzen dut, ikusteko zein neurritan hitzen banaketak antzekoak diren Mitxelenak prestatutako langaian eta Berrondoren ahoskeran. 4.1. eta 4.2. azpiataletan azentu patroï markatuen banaketa lexikala eta horri buruz egin ditzakegun orokorpenak kontsideratzen ditut. Azkenik, 5. atalean emaitzak laburbiltzen ditut.

## 2. AZENTU PATROIAK

Erabili dudan grabaketan ondo entzuten diren hitzak banan banan segmentatu ditut eta azentuaren ezaugarri akustikoak (tonua, intentsitatea eta iraupena) azertu Praat programaren bidez (Boersma & Weenink, 2017).

Mitxelenak prestatutako hitz zerrendan hitzak bi zutabetan badaude ere, doinuera kontuan hartuz gero hiru hitz mota behintzat aurkitzen ditugu grabaketan. Esan bezala, antolakuntza bi azentu klasetan Mitxelenaren Erreteriko hizkerarena da, hiztun bezala zeuzkan intuizioen arabera, eta Berrondok, aldiz, Oiartzungo azentuera erabiltzen du. Argi dago Mitxelenaren eta Berrondoren azentuerak desberdinak zirela. Batzuetan Mitxelenak Berrondok esandako hitz bat errepiatzen du edo galdetzen dio ea hitza Oiartzunen erabiltzen den. Kasu horietan, askotan bi hiztunek modu desberdinetan azentuatzen dituzte hitzak. Hala ere, ikusiko dugunez, gehienetan Mitxelenak «ez-normal» bezala sailkatu zituen hitzak bereziak dira Berrondoren hizkeran ere, nahiz eta bereizkuntza prosodikoa beste modu batean egin.

Akustikoki analizatu ditudan datuetan, hitz gehienetan badago tonu gailur bat bigarren silaban eta beste bat bukaeran, adib. *afáiyá*<sup>2</sup> 'afaria', *aldékuá*, *la(r)únbatá*

1 Adibidez, hitz batzuen esanahia argitzeko *parentesco colateral* eta *enclítico* bezalako hitz teknikoak erabiltzen dituzte Mitxelenak eta Berrondok.

2 Adibideak Mitxelenak erabiltzen duen grafian ematen ditut, nire tonu markak gehituz.

(ikus 1-3. irudiak, artikularen bukaeran). Beste hitz batzuetan lehen goiko tonua lehendabiziko silaban kokatzen da, adib. *bázkayá* ‘bazkaria’, *kálekuá*, *láunaká* (ikus 4-6. irudiak). Hitz klase hau ttikiagoa da. Azkenik, hirugarren hitz mota batean, badago gorakada bakar bat, bukaeran, adib. *gosaiyá* ‘gosaria’, *aldikúa*, *labañá* (ikus 7-9. irudiak).

Kasu guztietan, badirudi ondoriozta dezakegula bukaeran kokatzen den goiko tonua esaldi-mailakoa dela eta desagertzen dela beste testuinguruetan, nahiz eta horretarako ebidentzia gutti aurkitzen den grabaketan, adib: *Xoxokó* baina *Xoxokok esán du*. Esan dezakegu erroan goiko tonurik ez daukaten hitzek beheko tonua dutela. Bukaerako tonu gailurra alde batera utziz, beraz, baditugu hiru hitz mota, (1)ean erakusten den bezala. Goiko edo goranzko tonua azentu akutuaren bidez adierazten dut eta behe(ranz)ko tonua azentu grabeez:

- (1) Hitz klase prosodikoak  
 Klase I: Goranzko tonua bigarren silaban; adib. /afáiya/ *afáiyá*  
 Klase II: Goranzko tonua lehen silaban; adib. /bázkaya/ *bázkayá*  
 Klase III: Beheranzko tonua; adib. /gosàiya/ *gosàiyá*

Hau, noski, funtsean Goizuetan gaur egun aurkitzen dugun sistema da (Hualde & Lujanbio, 2008; Hualde, 2008; Hualde, Lujanbio & Torreira, 2008) eta bat dator baita Jacobsenen (1972, 84-85. or.) Oiartzungo azentueraren deskribapen labur baina zehatzarekin ere. Goizuetan argi dago azentu lexikala beti erroaren lehen edo bigarren silaban kokatzen dela eta hitz solteen edo galdegaiaren bukaeran agertzen den tonu gailurra esaldi-mailako gertakari bat dela (adib. Goiz. *zakùrraná* ‘pl’ baina *zakùrran itxéa*). Nahiz eta, esan bezala, gure grabaketan ebidentzia asko ez egon hau baieztatze-ko, ontzat emango dut horrela dela eta errepresentazio fonologikoetan bakarrik erroko tonua, goranzkoa zein beheranzkoa, markatuko dut.

Goizuetan, dena den, lau hitz klase prosodiko ditugu, ez hiru, beheranzko tonua duten hitzek tonu hori lehen edo bigarren silaban izan baitezakete. Goizuetan bokalaren iraupenak modu argi batean adierazten digu beti silaba azentuduna zein den eta, beraz, tonua zein silabari dagokion. Aztertzen ari garen datuetan, aldiz, iraupen diferentziak ttikiagoak dira eta ez dago beti hain garbi zein den silaba azentuduna erroak beheranzko tonua daramanean. Adibide batzuetan erabaki daiteke azentua non dagoen iraupenaren eta intentsitatearen bidez, adib. *platè:rá* /platèra/, *serò:rá* /seròra/ vs *prè:miyá* /prèmiya/ (bokal luzeagoak bi punturekin adierazten ditut, ikus 10-11 irudiak) baina beste askotan ez da erreza. Hau jakingo genuke argiago singular-plural pareak izango bagenitu, baina ia ez dago horrelakorik grabaketan (ikus hurrengo atala).

Nire susmo edo hipotesia da, Goizuetan bezala, badirela lau hitz mota azentuaren arabera fonologikoki, eta ez hiru bakarrik, baina askotan beheranzko azentuaren kokagunea lehen edo bigarren silaba den erabakitzea zaila denez, hemen egiten dugun sailkapenean talde bakar bat osatuko dugu beheranzko tonua daukaten hitzekin, (1)an erakusten den bezala.

3. Goranzko vs beheranzko azentuen arteko kontrastea pare kuasi-minimo batekin erakusten dugu 12-13 irudietan: *belárrián* ‘belarrean’ vs *belàrriyá* ‘belarria’.

### 3. SINGULARRAREN ETA PLURALAREN AZENTUERA

Mitxelenak esaten digu bere hitz «normaletan» singularra eta plurala bereizten direla prosodiaren bidez, baina azentua aztertzeko prestatu zuen zerrendan ez zuen espresuki singular-plural bikoterik jarri. Dena den, pare minimo bat aurkitzen dugu hiru aldiz, *gizónak* ‘erg sg’ vs *gizònak* ‘abs-erg pl’, lehen kasualitatez (hiztunak hitza pluralean irakurri zuen gaztelaniazko itzulpena ikusi baino lehen) eta gero Mitxelenak apropos lortu nahi zuen esaldi-mailako kontraste batetan. Hitz honekin singularrean goranzko tonu bat dugu bigarren silaban (ikus 15. irudia) eta pluralean, aldiz, beheranzko tonua (ikus 14. irudia), Jacobsenek (1972) ere deskribatu zuen bezala. Honetan ere Oiartzungo sistemak antza du Goizuetakoarekin (Irurtzun, 2006).

- (2) Tonu aldaketa pluralean  
 Erg sg: *gizónak é* (= *ere*) /*gizónak*/  
 Abs-erg pl: *gizònak* /*gizònak*/

*gizónak ekárrri ttu* ‘el hombre los ha traído’ (= 14. irudia)

*gizònak ekárrri ttu* ‘(alguien) ha traído a los hombres’ (= 15. irudia)

Jacobsenek (1972, 85. or.) egin zuen analisisian Oiartzungo euskaraz lehendabiziko silaban goranzko tonua zuten hitzek beheranzko tonua hartzen zuten silaba horretan pluralean, adib. erg sg *sémiak* vs abs-erg pl *sèmiak*. Goizuetan ere horrela da (Hualde & Lujanbio, 2008; Hualde et al., 2008). Hala ere, gure grabaketan *sémiá* (= *sémia*) singularra aurkitzen badugu ere, mota honetako hitzen pluralik ez dago absolutibo edo ergatiboan. Komitatiboan adibide bat dugu (hau ere kasualitatez jasota): *ánkakín* (= *ánkakin*) ‘oinarekin’ vs *ànkakín* (= *ànkakin*) ‘oinekin’. Badirudi, beraz, singularraren eta pluralaren arteko bereizkuntza prosodikoa Goizuetan bezala egiten zela Oiartzunen: azentuaren melodia aldatuz baina kokagunea aldatu gabe.

### 4. MITXELENAREN SAILKAPEN BITARRA ETA CORPUSEKO HITZEN BANAKETA PROSODIKOA: KONPARAKETA

Esan bezala, Mitxelenak bi zutabetan antolatutako zituen hitzak azentuaren arabera: normalak («normales») eta bereziak («anormales»). 2. atalean, aldiz, hiru (edo lau) klase prosodiko desberdin bereizi ditugu. Egin dezakegun galdera bat da nola elkartzen den Mitxelenaren sailkapena 2. atalean egin dugun analisiarekin.

Bi azentu sistemek, Mitxelenaren Erreterikoak eta Berrondoren Oiartzungoak, lotura historiko zuzena duten heinean, printzipioz espero genuke Klase I-eko hitzak (bigarren silaban goranzko azentua dutenak) Mitxelenaren hitz normalen taldean egotea eta

beste bi azentu klaseetakoak (azentua lehen silaban dutenak eta beheranzko azentua dutenak) bereziak izatea Mitxelenaren sailkapen bitarrear.

Hitzak bi zutabetan ipintzeaz gain, Mitxelenak azentu markak erabili zituen bere dokumentuan. Oro har, hitz normalek ez dute inolako markarik eta bereziek, aldiz, azentu grabea daramate azken bokalean, adib. *premiyà, arrikà*. Kasu gutti batzuetan, hala ere, hitzak normalen zutabearen egon arren azentu marka du. Beharbada hitz horiek mugitu ziren lana inprentarako prestatzerakoan edo agian Mitxelenak iritzia aldatu zuen haien azentueraz. Bi zutabe eta azentu grabeaz gain, Echeniquek argitaratutako hitz zerrendan hitz askok ikur bat daramate aurrean: «+», «<», «>» eta zenbait kasutan «?». Ez dakit nola interpretatu behar diren ikur horiek eta ez ditut kontuan hartu. Ziur asko Mitxelenak marka horiek ipini zituen grabaketa eginda gero, beste honako ohar hau bezala: «Yo no distingo entre, por ej., *eztittuzte biar: baittuzte* ‘ya los tienen’, y *eztittuzte biar, (baldin) baittuzte* ‘si los tienen’. Yo: sí.» Bide batez, esan behar da grabaketan Mitxelenak eta Berrondok euskaraz hitz egiten dutela denbora osoan. Beraz, ez dakit zergatik edo zertarako idatzi zuen Mitxelenak ohar hori erdaraz.

Zoritzarrez aztertu dudun grabaketan Mitxelenak erabili zuen zerrendaren hasierako hitz batzuk falta dira, haien artean oso esanguratsuak izango liratekeen bikote minimo batzuk. Aztertu dudun zatia *utziya* hitzarekin hasten da (ikus Echeniquek 1988 argitaratutako zerrenda).

Ikus dezagun, beraz, zein neurritan (1)ean egin dugun sailkapena bat datorren Mitxelenak egindako bereizkuntza bitarrarekin. Konparaketa horren emaitzak I. Taulan ipini ditut (ikus 16. irudia ere). Konparaketa horretarako aditz jokatuak eta pertsona izenak albora utzi ditut. Goian esan bezala, kasu batzuetan hitza «normalen» zutabearen dago, baina Mitxelenak hitz bereziak adierazteko erabiltzen duen marka darama (azentu grabea azken bokalean). Hitz hauek ‘nx’ bezala sailkatu ditut. Alderantziz ere gertatzen da kasu gutti batzuetan: hitza berezien zutabearen egon arren ez darama azentu markarik; hauek ‘bx’ taldean kontatu ditut.

1. Taula. Azentu klaseak eta Mitxelenaren sailkapena

	Klase I	Klase II	Klase III	Guztira
Normalak (n)	276	21	14	311
Bereziak (b)	54	29	239	322
Bereziak? (bx)	3	1	3	7
Normalak? (nx)	9	28	11	48
<b>GUZTIRA</b>	342	79	267	688

Argi dago neurri handi batean Mitxelenaren hitz normalak Klase I-ekoak direla eta bere hitz bereziak Klase III-an daudela, espero genuen bezala. Aipatzekoa da, halaber, ‘nx’ taldean jarri ditugun hitz gehienak («normalen» zutabearen, baina berezien azentu ikurrarekin) Klase II-koak direla.



Mitxelenaren sailkapeneko 311 hitz normal analizatu ditugu eta horietariko 276 Klase I-ean sartzen dira; hau da, lagin honetan Mitxelenaren hitz normaletariko % 89k goranzko azentua daramate bigarren silaban Berrondoren ahoskeran gure analisisan. Esan bezala, Mitxelenaren hitz bereziak, aldiz, batez ere Klase III-koak dira gure analisisan; hau da erroaren lehen bi silabetan beheranzko tonua daramatenak: % 74,2 (=239/322). Badirudi Mitxelenak zalantzak zituela 'nx' taldeko hitzen azentuaz (hau da, antza denez, zutabearen eta azentu markaren arteko desadostasuna ez da inprenta kontu hutsa). Horietariko gehienak (%58,3 = 28/48) Klase II-koak dira; hau da azentu «normala» dute (goranzkoa) baina silaba okerrean (lehen silaban).

Egin dugun analisi prosodikoa zuzena bada, honek guztiak esan nahi du Mitxelenaren intuizio prosodikoak (bere garaiko Erreteriko azentueran oinarrituta) eta Berrondoren Oiartzungo datuak ez direla hain desberdinak azentu klaseei dagokienez; are gehiago kontuan hartzen badugu Mitxelenaren Erreteriko sisteman bazirela bakarrik bi hitz mota, antza denez, eta Oiartzunen, aldiz, hitzak hiru (edo, ziur asko, lau) klase desberdinetan sailkatzen zirela azentueraren arabera, bai azentuaren kokagunea, baita doinua ere kontuan hartuz.

Hurrengo ataletan berezi ditugun azentu klaseen banaketa lexikala kontsideratuko dugu sakonkiago. Taulan ikusten denez, lagin honetan Klase II-ko hitzek talderik tikiena osatzen dute. Klase horrekin, beraz, hasiko gara hitzen prosodia miatzen, 4.1.atalean. Gero, 4.2. atalean Klase III-ko hitzak aztertuko ditugu. Klase I patroia prosodiko normala edo ez-markatua denez, beste hitz guztiak talde horretan sartzen dira. Kontuan hartu behar dugu lagin honen ehunekoak ez direla hiztegi osoaren isla, Mitxelenak kontrasteak azertu nahi baitzituen.

Maileguak euskal jatorriko hitzetatik bereziz, hurrengo ehunekoak aurkitzen ditugu: Klase I-ean %40 maileguak dira gure laginean, Klase II-an %57 eta Klase III-an %49. Beraz, maileguak hiru azentu klaseetan aurkitzen baditugu ere, ugariagoak dira klase markatuetan, batez ere Klase II-an.

#### 4.1. Klase II-ko hitzak

Esan bezala, Klase II-ko hitzek goranzko azentua daramate lehen silaban. Azentu klase honetan, alde batetik, erro silabakarreko hitzak ditugu:

- (3) *lúrrian, lúrretik, lúrrekua, lúrrezkua,*  
*úrian, úretik, úrekua,*  
*súrtatik, súrtakua,*  
*gábekua, gábero,*  
*zúrezkua, gáñekua, sóñekua, itzikan, pózikan, góizero, ásteko ('hasteko'), áyena*  
 ('haiena'), *láunaka*

Neurri batean, erro silabakarreko hitzen azentueran Oiartzungo datu hauek bat datoz Goizuetako hizkerarekin (Hualde & Lujanbio, 2008, 384. or.) eta Bortzirietakoarekin (Hualde 1997, 111-112. or.). Goizuetan erro silabakarreko izen-adjektiboek goranzko

azentua hartzen dute erroan singularrean eta beheranzkoa pluralean. Gure grabaketan ez dut pluralik aurkitu mota honetako hitzekin. Horretaz gain, Goizuetan eratorpen atzizki batzuek ere beheranzko azentua eragiten dute: *gàbero*, *gòizero*<sup>3</sup>. (3)n erakutsi bezala, gure datuetan ez dugu hori aurkitu. Badirudi, dena den, beste eratorpen atzizki batzuek beheranzko azentua eragiten dutela Berrondoren hizkeran, adib. *lùrpekoa*, *-pe* atzizkiarekin.

Bigarrenik, erro bisilabaduneko mailegu batzuk ditugu Klase II-an, gehienak zaharrrak edo ez oso berriak, jatorriko hizkuntzan azentua lehen silaban dutenak, Goizuetan bezala kasu honetan ere<sup>4</sup>. Hona hemen laginean aurkitu ditugunak:

- (4) *ánkakua, báñua, dénda, dírua, díruduna, fésta bat, géla bat, kájakua, kálekoa, káñua, káliá, káliza, káskua, kójua, kórdia, kórrika, kóstakua, kóstia, mártxua, méza bat, mún-  
duan, múndukua, mútutua, pála bat, párekua, párian, pázkua, písua, pórrua, pútzura, sédazkua, sókakin, sóñua, trípakua*

Talde horretan letren izenak ere sartzen dira. Mitxelenak bi bikote minimo erabiltzen ditu letra izenekin: *M bat* [éme] vs *emé bat* eta *R bat* [érre] vs. *erré bat*. Badira, baita ere, toponimo batzuk, hala nola *Lézokua*, *Bérakua* eta *Prántziyan*.

Azkenik, zenbait euskal jatorriko hitz arrunt ere kausitzen ditugu azentu patroi honekin:

- (5) *áita, sémia, néska bat,  
éra bat,  
jántziya, jósita,  
íjuka, míatxua* ('bigantxa'),  
*bázkaiya, éndanán* ('ilaran'), *ólako, kóntzeko*

Euskal jatorriko bisilabadunak eta luzeagoak oso guti dira Klase II-n. Ohar batzuk egin behar dira beraz (5)eko hitzei buruz. Hasteko, *áita* eta *sémia* hitzen azentuera bat dator Goizuetakoarekin. Aldiz, *néska* hitza ez da sartzen klase honetan Goizuetan.

Goizuetan /j/-z hasten diren aditz guztiek lehen silaban daramate azentua (Hualde & Lujanbio, 2008, 389. or.). Oiartzunen aditz horiek frikari belarrak hasten dira, baina laginean ditugun biak, *jántziya* eta *jósita*, ados daude Goizuetako azentuarekin.

Luzeagoetan, *bázkaiya* hitza *bazkària* da Goizuetan, beheranzko azentuarekin bigarren silaban. Kasu honetan, kontrazio etimologikoak esplikatzeko du azentuera berezia, h.d. *barázkari* > *bázkari* ~ *bazkàri*. Taldean beste hirusilabadun dugu, *éndanan*. Gure grabaketan hiztunak behin horrela esaten badu ere, beste batean *endàna* esaten du.

3 Bestalde, Goiz. *astèko* 'hasteko' dugu.

4 Adostasuna ez da osoa, adib. Goiz. *dirúduna*, *kàjakoa*. Hau da, adostasuna dugu joera orokorrean, baina ez adibide guztietan.

Beharbada erro hirusilabaduneko hitz batzuekin azentuera aldakorra zen bi aukera markatu horien artean. Esan behar da Klase III-ko hitz luzeak batzuetan hasten direla tonu erlatiboki altuaz, bigarren silaban beheratzen dena. Tonu kontornu honek zalantzak eragin ditzake hitzaren azentueraz; hau da, jakiteko hitzak H tonu bat duen lehen silaban ala L tonu bat bigarren silaban: *ijìtua*, *imàjiña*, *ixtòriya*. Kasu horietan intentsitatea eta iraupena erabili ditugu azentuaren kokagunea erabakitzeke, ikus 8. eta 10. irudiak.

#### 4.2. Klase III-ko hitzak

Klase III-ko hitzetan azentua beheranzkoa da. Esan bezala, kasu batzuetan silaba azentuduna lehendabizikoa da eta beste batzuetan bigarrena. Hala ere, grabaketan ez dago beti guztiz argi beheranzko tonua zein silabatan kokatzen den. Arrazoi horregatik, bi azentu motak (hau da, Hualde & Lujanbioren (2008) Klase III eta Klase IV) ez ditugu bereizi hemen.

Azentu bereizgarria duten mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan, azentu markatua edo berezia duten hitzak antzekoak dira neurri handi batean (Gaminde & Hualde, 1995). Adibidez, beste hizkera askotan bezala, hurrengoek azentuera markatua dute gure grabaketan: *àtzequia*, *àurreekua*, *belàrriya*, *lengùsua*, *ollàxquia*. Funtsean, talde prosodiko honetako hitzak maileguak, hitz eratorriak eta konposatuak dira. Gure datuetan Klase III-ko hitz gehienak mota horietakoak dira. Antza denez eratorpen atzizki batzuek beheranko azentua eragiten dute sistematikoki, (6)ean erakusten den moduan (baina ikus (3)):

- (6) Klase III-ko hitz eratorriak  
 /-(t)arr/ *irùndarra*, *gùtarra*, *pasàitarra*, *lèzoarra*  
 /-ti/ *bildùrtiya*, *màstiya*  
 /-ki/ *tripàkiya*, *odòlkiya*, *xaxpikiya*, *egòkiya*  
 /-txu/ *astòtxua*, *àurtxua*  
 /-en/ *edèrrena*, *jatòrrena*, *laugàrrena*, *gòrrena*  
 /-zko/ *pànazkia*  
 /-pe/ *ànkapiya*, *àrkupia*, *ùrpekua*, *ùrpian*  
 /-te(g)i/ *aràteya*, *aròzteiya*  
 /-dun/ *èrdalduna*, *èuskalduna*  
 /-era/ *èuskeraz*, *èrderaz*, *gàldera*, *juàyera*, *etòrrera*, *izkera*  
 /-ero/ *arràtsero*, *ùrtero*  
 /-ka/ *arrìka*, *astòka*, *bànaka*, *biñaka*, *òyuka*, *usàika*, *zìrika*  
 /-zai/ *àurtzaya*

Hitz elkartuen artean, *galbàya*, *illàbete* eta *suàrriya* aurkitzen ditugu.

Toponimoak edozein kasetakoak izan daitezke gure laginean, adib *Oyártzun*, *Donóstiyan*, *Erníyon*, *Azkóitiyan*, *Endáyan* (K-I), *Lézokua* (K-II), *Goizùtan*, *Oriyon*, *Pasàyan* (K-III). Badirudi, bestalde, herri izenek beheranzko azentua hartzen dutela ezizen bezala erabiltzen direnean, adib *Tolósa*, herria, baina *Ttolòxa* ezizena.

Ezizenen toponimikoen azentuazio berezia fenomeno ezaguna da Gipuzkoako eta Bizkaiko beste hizkera askotan eta argi dago hori zela Mitxelenaren intuizioa ere (Goizuetan ere horrela da).

Maileguei dagokienez, Goizuetan egokitzapen arau interesgarri bat aurkitzen dugu. Alegia, azentua lehen edo bigarren silaban duten mailegu silababakar eta bisilabidun gehienek beheranzko azentuarekin egokitzen dira (Hualde, 2008). Badirudi egokitzapen arau hori erabiltzen zela Oiartzunen ere. Gure grabaketan hitzunak esplizitoki aplikatzen du kasu batean. Euskaraz [ankíná] ahoskatu ondoren, Berrondok honako galdera egiten dio Mitxelenari: «[anxína] edo zer da hau?». Hau da, gazt. *angina* [anxína] → eusk. [ankíná]. Beste batzuen artean, (7)eko maileguak aurkitzen ditugu grabaketan. Gehienak hirusilabadunak dira, batzuek zaharrak eta beste batzuek berriagoak:

- (7) Klase III-ko maileguak
- Erro bisilabadunak: *abilla, apàiza, bàixua, bàla bat, gàuza bat, fuèrtia*
  - Hiru silabako mailegu zaharrak: *aingira, aizkòra, alkàtia, ànima, àntzara, dènbo-ra, gànbara, ixpillua, ijítua, eskòla, katillua, kayòla, medikua, prèmiya*
  - Hiru silabako mailegu berriagoak: *angùla, àntsiya, bonbilla, gorbàta, kanpàna, kamilla, kuñàdua, pelòta, relòjua, tronpèta, txalùpa*

Esan bezala egokitzapen arau emankorra da hau. Batzuetan mailegu zahar bat Klase I-ekoa da jatorriko hizkuntzan azentua bigarren silaban badu eta, aldiz, oso antzekoa den beste mailegu berriago bat Klase III-koa da, adib. *koñáta* vs *koñàdua*.


## 5. LABURBILDUZ

Aztertu dugun grabaketak Oiartzungo hizkeraren azentuera zaharraren berri ematen digu. Azentua den bezainbatean, hitzek lehen edo bigarren silaban izan dezakete azentua eta azentu hori goranzkoa edo beheranzkoa izan daiteke. Gainera, hitz solteetan (edo galdegaian) beste tonu gailur bat dugu azken edo azkenurreko silaban. Guzti honetan sistema honek antza handia du gaurko Goizuetakoarekin.


Grabaketa egin baino lehen, Mitxelenak aztertu zituen hitzak bi taldetan banatu zituen: hitz normalak eta hitz bereziak. Gure azterketa bat dator, neurri handi batean, Mitxelenaren banaketarekin. Hitz normal gehienek goranzko azentua dute bigarren silaban eta Mitxelenaren berezi gehienek beheranzko azentua dute.

Oiartzungo azentuera zaharra eta Goizuetakoa oso antzekoak badira ere, isoglosa prosodiko garrantzitsu bat iragaten da bi herrien artean. Goizuetako euskarari, Nafarroako beste hizkera askotan bezala, bokalak asko luzatzen dira silaba azentudunetan eta murrizten azentugabeetan. Horrek bokal erorketa gertakariak eragiten ditu silaba azentugabeetan (aferesia, adib. *esan* > *san* eta sinkopa, adib. *pasatu* > *pastu*). Oiartzunen, aldiz, ez dugu aurkitzen iraupenaren indartze hori azentu ezaugarri bezala eta sinkopa eta aferesi fenomenoak ez dira nabariak.


6. IRUDIAK




1. irudia. [afáiyá]. Klase I: Goranzko azentua bigarren silaban.




2. irudia. [aldékuá] Klase I: Goranzko azentua bigarren silaban.




3. irudia. [la.únbatá] Klase I: Goranzko azentua bigarren silaban.




4. irudia. [bázkayá] Klase II: Goranzko azentua lehen silaban.




5. irudia. [kálekuá] Klase II: Goranzko azentua lehen silaban. (Bigarren silabaren bukaeran F0-bilatzaile automatikoak hiru errore egin ditu).



6. irudia. [láunaká] Klase II: Goranzko azentua lehen silaban.




7. irudia. [gosàiyá]. Klase III: Beheranzko azentua bigarren silaban.




8. irudia. [aldikúa]. Klase III: Beheranzko azentua bigarren silaban.







9. irudia. [labãñá]. Klase III: Beheranzko azentua bigarren silaban.




10. irudia. [seròrà]. Klase III. Beheranzko azentua bigarren silaban.




11. irudia. [prèmiyá]. Klase III: Beheranzko azentua lehen silaban. Adibide honetan lehen silaba bigarrena baino askoz intentsuagoa da (ikus uhinaren zabalera).




12. irudia. [belárrían] 'belarrean'. Klase I: Goranzko azentua bigarren silaban.




13. irudia. [belàrriyá] ‘belarria’. Klase III: Beheranzko azentua bigarren silaban.



14. irudia. *Gizónak* (erg sg) *ekárrri* (*ttu*) ‘el hombre los ha traído’.



15. irudia. *Gizònak* (abs pl) *ekárrri* (*ttu*) 'ha traído a los hombres'.



16. irudia. Mitxelenaren sailkapena eta gure analisia: beltza = Klase I, gris iluna = Klase II, gris argia = Klase III.

## 7. ERREFERENTZIAK

- Boersma, P. & Weenink, D. (2017). Praat: doing phonetics by computer, version 6.0.30 [computer program]. [www.praat.org](http://www.praat.org).
- Echenique, M. T. (1988). Stress and pitch (Luis Mitxelena zenak utzitako langaia). *Euskera*, 33, 495-521.
- Gaminde, I. & Hualde, J. I. (1995). Euskal azentuen atlaserako: zenbait isoglosa. *ASJU*, 29, 175-198.
- Hualde, J. I. (1997). *Euskararen azentuerak*. Donostia & Bilbo: Gipuzkoako Foru Al-  
dunia & UPV/EHU. (ASJUren gehigarriak XLII).
- Hualde, J. I. (2008). Acentuación y cronología relativa en la lengua vasca. *Oihenart*, 23, 199-217.
- Hualde, J. I. & Lujanbio, O. (2008). Goizuetako azentua. In X. Artiagoitia & J. Laka-  
rra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez* (377-394. or.).  
Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, J. I., Lujanbio, O. & Torreira, F. (2008). Lexical tone and stress in Goizueta  
Basque. *Journal of the International Phonetic Association*, 38(1), 1-24.
- Irurtzun, A. (2006). Fonetikak bideratutako aldaketa fonologikoak. *Oihenart*, 21,  
195-208.
- Jacobsen, W. (1972). Nominative-ergative synchretism in Basque. *ASJU*, 6, 67-109.
- Mitxelena, L. (2011 [1977]). *Fonética histórica vasca*. (Berrarg. in *Obras completas*  
VI, J. Lakarra & I. Ruiz Arzallus (arg.), ASJUren gehigarriak LVIII).

# Erroibarko aldaeraren inguruan

(eta 6 – Esteribarko erdialdeko azpialdaera.  
Bigarren erdia)

---

Acerca de la variedad de Erro (y 6 – Subvariedad del centro de Esteribar. Segunda mitad)

---

A look at the Erro variety (and 6 – Sub-variety of the Esteribar centre. Second half)

Koldo ARTOLA  
Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa  
kmartola@gmail.com

Esker biziak damazkiot lana irakurri eta zenbait iradokizun egin didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziaduna denari.

Jasotze data: 15/01/2018. Behin-behineko onartze data: 12/02/2018. Behin betiko onartze data: 12/02/2018.

## LABURPENA

Honen bidez bukatutzat emango dugu Louis-Lucien Bonaparte euskalariak *Erro* izenekotzat jo zuen aldaerari eskaini diogun sei saiotako lana. Aldaera hau printzeak *cispamplones* azpieuskalkiaren barruan sartu zuen, *Hegoaldeko goi-nafarrera* deitu euskalkiaren baitan, betiere, eta Erroibarko mintzamoldeek zein Esteribarko gehienek elikatzen dute, azken ibar honetako batzuk Bonapartek, sailkapen kontu hauetarako, ibar honetatik bereizi eta *Artze* deitu zuen aldaeraren baitan kokatu zituen.

**Gako hitzak:** Hego-nafarrera; Erroibarko aldaera (Esteribarko erdialdeko azpialdaera); euskal dialektologia.

## RESUMEN

Con la presente entrega finalizamos el trabajo dedicado a la variedad vasca que el príncipe Bonaparte denominó de *Erro*, incluida por él dentro del subdialecto *cispamplonés* e integrado éste, a su vez, en el dialecto *Alto-navarro meridional*. Esta variedad, según Bonaparte, se nutría de las hablas de los valles de Erro y Esteribar, exceptuadas las de algunos pueblos y aldeas del sur de este último valle, que integró en la variedad de *Arce*.

**Palabras clave:** Euskera navarro meridional; variedad de Erro (subvariedad del centro de Esteribar); dialectología vasca.

## ABSTRACT

This instalment brings to a close this study of the variety of the Basque language which Bonaparte referred to as the *Erro* variety and included in the *cispamplonés* subdialect, in turn part of the *Southern Upper Navarrese* dialect. According to Bonaparte, this variety drew from the forms of the language spoken in the Valley of Erro and Esteribar, bar those used in a few villages and hamlets in the south of the latter, which he included in the *Arce* variety.

**Keywords:** Southern Navarrese Basque; Erro variety (sub-variety of the Esteribar centre); Basque dialectology.

1. AZKEN SARRERATXOA. 2. HIZKERA HONEN EZAUGARRIEZ BI HITZ. 3. DATUEN TRANSKRIPZIOEZ BESTE BI. 4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA 5. INBULUZKETA. 5.1. Apolinaria Egozkue Goñi. 6. URDAITZ. 6.1. Fermina Zuazu Urdaniz. 7. EZKIROTZ. 7.1. Domingo Bizkai Santesteban. 8. OSTERITZ. 8.1. Josefa Santesteban Lizoain. 9. ZAI. 9.1. Celedonia Bizkai Santesteban. 10. ERREA. 10.1. Martin Esain Eugi. 10.2. Josefa Esain Eugi 10.3. Maria Etxeberria Erro. 11. BIBLIOGRAFIA.

## 1. AZKEN SARRERATXOA

Louis-Lucien Bonaparte printzearen 1863ko mapa gogoan, alde batetik, eta haren jarraitzaile Pedro de Yrizarrek, hartan oinarriturik, zedarritu zituen azpialdaerak ere kontuan izanda, bestetik, «Erroibarko aldaeraren inguruan» izenburu orokorra eman diogun lanaren azken saioa dakargu orain lerro hauetara, Esteribarren erdialdean-edo kokatu Inbuluzketa, Urdaitz, Ezkirotz, Osteritz, Errea eta Zai herrixka eta baserrietan eskuratu genituen ekaiak azaleratuz. Hauetako batzuk oso urriak dira, 1980ko hamarkadan aurkitu genuen zorigaitzeko egoeraren isla, inondik ere.

Herri hauetatik hegoaldera, nekez aurki zitekeen jende euskaldunik aipatu hamarkadaren hasieran: Ilurdozko gizon bat, Joaquin Garrues Goñi, harrapatu genuen 1982an Iruñean, handik urte batzuetara, 1988an, 93 urtetan hil zena, eta, jakitera iritsi ginez, Gendulainen ere, bertan sortu Juana Irure Etxalar izeneko andre euskaldun bat bizi izan zen, baina hau lehenxeago joan zen, 1977an, 82 urte beterik, inguru honetako gure bilketa-lanari hasiera eman aurretik. Ez genuen, beraz, harekin egon ahal izateko zoria izan.

Ilurdozko jaun horri bildu geniona, aldiz, aldizkari honetako zenbait aletan argitaratu zen<sup>1</sup>, baina ez lan honen emaitzak ekarri dituen ‘Erro’ izeneko aldaeraren

1 Hasiera batean, gure «Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-eta (hurbiltze-saiakera)» delakoan: *FLV* 60, 1992, baina, ondoren eta bereziki, «Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan» izenburuko lau zenbakitan: *FLV* 103-104, 2006-7, eta *FLV* 114-115, 2012.



baitan, printzeak ‘Artzi’ deitu zuenarenean baizik. Izan ere, haren iritziz, Esteribarko Larrasoañatik hegoaldera kokatu herrixkek osatzen zuten multzoa hobeki egokitzen zitzaion, aldaera hauek direla eta, Artzibar aldekoari, Erroibarkoari baino.

## 2. HIZKERA HONEN EZAUGARRIEZ BI HITZ

Honetaz aritu gara «Erroibarko aldaeraren inguruan (2 - Hego Erroibarko azpialdaera. Lehen erdia)» izenburuko saioan, ez aspaldi, eta «Erroibarko aldaeraren inguruan (4 - Ipar Esteribarko azpialdaera)» izenekoan ondoren, esparruotako mintzaireren eta beren hainbat ezaugarriren berri eman dugunean. Beraz, balizko lagunen batek, horietan interesaturik egonez gero, saiootara jotzea aski izanen luke, haietan esanikoak berriro errepikatu behar ez izateko.

## 3. DATUEN TRANSKRIPZIOEZ BESTE BI

Bokal batzuen itxierak: a eta e artekoa ä idatzi dugu; e eta i artekoa ë; o eta u artekoa, ö. Inoiz, i eta u artekoa aditu uste izan dugunean, ü idatzi dugu.

Kakoak [ ] erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu dugunetan, horietan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Ia aditzen ez diren hotsak, honen aurreko saioetan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzarria iruditu zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan, harridura-ikurra (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesi arteko eten-puntuak idatziz (...) ekidin ditugu.

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, berriemaileak zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dion hainbat alditan ere bai, baizik.

## 4. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA

**Inbuluzketa**

Apolinaria Egozkue Goñi, 1895

guraso biak inbuluzketarrak

**Urdaitz**

Fermina Zuazu Urdaniz, 1896

aita: Urdaitz / ama: Sarasibar

**Ezkirotz**

Domingo Bizkai Santesteban, 1909

ama: Setoain / aita: Larraingoa (Erroibar)

**Osteritz**

Josefa Santesteban Lizoain, 1906

ama: Osteritz / aita: Agorreta

**Zai**

Celedonia Bizkai Santesteban, 1899<sup>2</sup>

ama: Setoain / aita: Larraingoa (Erroibar)

**Errea**

Martin Esain Eugi, 1899

Josefa Esain Eugi, 1908

aita: Errea / ama: Errea

eta

Maria Etxeberria Erro, 1911

ama: Inbuluzketa / aita: Esnotz (Erroibar)

**5. INBULUZKETA****5.1. Apolinaria Egozkue Goñi****Eskale batengandik ikasi otoitzak (1980)<sup>3</sup>**

[Eskale batek errezitatu ohi zuen]: «Limosna bat, in al badezakete, itxe ontako ani-maik balin bedago purgotorioko penetan... pena aetaik libra dezan gure Jangoikuak, bere glorie sanduen goza dezan». Y se descansaba. «Errezatiko duu aitagure batekin abemaria bat? Aita guria, zeruetan tzaudena»... ¡Gritando solía estar! el padrenuestro entonces; habíamos, oyendo a aquel pobre? habíamos... aprendido el padrenuestro ¡Y no se olvida!

– Eta, nola erraten zuen?

«Aita guria, zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, betor guregana zure erreñue, egin bedi zure borondate sandue zeruen bezala lurrean ere... –como en el cielo–, zeruen bezala lurrean ere». Erran dizut, (...) gu aitagure bateki, abemarie bat: «Abe Maria grazias betia, Jauna dao zurekin, bedeiketue da, andre guzien ertean eta bedeiketue da tzu-, zure frutue Jesus». Después...

– Eta, gero, ‘Santa Maria, Jainkoaren Ama’?

Nik, ‘Santa María madre de Dios’? eso es... (ez bide zuen ongi ikasi).

– Baina aitagurea ere ez duzu osorik eman; ‘El pan nuestro de cada día’ ez duzu erran...

2 Andre hau, Ezkizozko berriemaile Domingo Bizkairen arreba, ez zen herri honetan sortu, Zai baserrian baizik, Erreatik hurbil. Galdekatu genuenean, baina, Setoainen bizi zen, ama izanikoaren sortetxean.

3 Gai honekin zerikusia duen berriemaile berberaren beste testu bat irakur daiteke EAEL II-an (Aranzadi Zientzia Elkarte, 1990, 204. testua).

«Eman dezazuzu gure egun-, egunesko ogie, orai eta beti, barkazkizu zuk gere-geren zorrak, gu zor gaituztenei, ezkaizkiela utzi tentazioan erortzera, baizik libra gaitzazu gaiz guzietatik, Amen». Después, «Abe Maria, grazias betia, Jauna dao zurekin, be-deiketue da zure sabeleko frutue, Jesus».

– Hori erran duzu, baina ‘Santa Maria, Jaungoikoaren ama’...

Orduen, Amen.

– Eta, gero, el ‘Gloria Patri’?

El Gloria Patri? en castellano... El Gloria no había oído nunca; antes, había vasco, un... el amo del pueblo, y él en la iglesia también, cuando se rezaba, claro, él siempre rezaba... castellano, vamos, vasco, pero Gloria... castellano siempre. Pero ese padre-nuestro aquel pobre.

### Ardiez oro har (1981)

Ni, artzaia? artzaia ni? ni, ni ez-ez; emen gizonak bakarrik artzaëak. Beira, nesako oiek? ta oiek bai, izen, izen dire artzaëak.

– Eta, non ibili dira? zein menditan?

Emen, gutxi... oianian! biña emen berëan.

– Hemendik atera gabe?

Ez-ez-ez-ez, emendik ezta atratzen batre.

– Eta, neguan...

Neguan? emengok ere ez; ¡cada cual con lo suyo!

– Beti hemen orduan, berdin udan edo neguan...

Beti, beti igual.

– Eta, gazta egin izan dute?

Gazta? ez, ez... emen; gazta... iten dire or, Iragin te Eguin (sic), te oietan bai, biña emen? ardi ebek, eztire... esnasdunek, ez.

(Gurekin zen gizonetzko bati, bisitaria bera, guk egin galdera dela eta): Pastora si he sido, me dice, y yo pastora no he sido, y las ovejas que se tenían... Emengo ardiek ez-tele esneik.

– Eta, eilea noiz mozten zaie?

Orai, eldu en... ilbetian [ekainean], mozten dire, bai.

– Nork mozten du?

Nok? al tzakenak! gizon ebek!

– Bai? herri honetako gizonak?

Bai, bai, bai, bai; batek bertzei? laguntzen.

– Eta, eile horrekin zer egiten da?

Ella orrekin? saldu!

– Nora saltzen da, Iruñera?

Ba, tortzen dire Iruñetik ere, Uertetik o, Iruñetik ero, tortzen dire, ta beztenaz? eman!

– Eta, zenbana saltzen da?

A! eztakit.

– Merke ala kario, garesti-edo...

Eztait!... orai bada ardi... merke? batre? ezta, ezta. (Alaba Encarnari eta bisitariari): La lana, a cómo se vende entero... a cómo quedó pero, todos los años igual no, tampoco... urte guzietan ez, eztire beti igual saltzen.

- Eta, ardiak markatu egiten dira?  
Markatu? ez, ez.  
– Belarrietan ez diete egiten koxka bat edo zerbait, ezagutzeko?  
Ez, ez, ebaki ez. (Besteei): Las ovejas ¿ya están marcadas?  
(Bisitaria): Aquí no, en Euzki sí hay algunas marcadas.  
Emen guria pakarrik dire, ta... denak guriak!  
(Bisitaria): Hacen la selección para la leche, precisamente, o sea, ovejas de leche; aquí son churras y en Euzki son latxas, más de leche; como en Gipuzkoa ¿por ejemplo?  
Y en Iragi también...  
– También hay otra que llaman ‘rasa navarra’, ¿no?  
(Bisitaria): Sí, parecida a esta, a la churra, pues eso es igual, es la misma casi, la churra, sí.

### Errokatu ez baina josi bai (1981)

- Zuk errokatu duzu?  
Ez-ez, nik eztut errokatu batre.  
– Eta, hemen izan da errokatu duenik? herri honetan?  
Ez! emen ez, emen ezta errokatu batre.  
– Ez zen biltzen ligua eta algodona eta?  
Ba, ez, ori guttio. Ellak, ellariek zerbait ere bai, makiñe bat izeten e tzire... or, Aezkoatik ero tortzen tzire... makine batzuk; arreak? errokatu te aiek kaltziñe, kalzetinek iten oiendako, biña beste gañerakoik ez.  
– Beraz, ez duzu errokatu...  
Nik ez, nik eztut errokatu, ni, nik yosi, Nik zautu dut, emen ¿cómo le diré pues? lino hay llega yo, a sembrar.  
– Ligua?  
Liguä; ta, nola... trabajatzten tzen ligua. T’ori hi-, ari oiek? Iruñea(n), en casa... en la zapatería ¿cómo era pues? Goñi me parece que era, la zapatería.  
– Erran, erran ezazu euskaraz...  
Bai; arata, an ematen ginue? ta an... tejitui(k) eramaten nituen, tejitui...  
– ‘Ehundu’ edo, nola erraten zen?  
Errietan ere izeten tzire, la Casa (d)el Tejedor nonbratzen da Etsaiñen ere, an ere iten tzire nunbait ere... pero en otro sitio también ya había pues tejedor, de Egüés o... por ahí también hay, bai, izeten dire, bizi dire!... biña, emen ez! emen ez.

### Ogi egiten (1981)

- Ogi egin duzu?  
Bai, bai, ogie bai.  
– Nola egiten zen? erran ezazu ongi, hasieratik beretik, e?  
Lenbizik? garie; gero? eman errotara; gero?... gero io, gari ure io? ta, gero... ogie iteko bezperan? eiten gindue... tornuen! ementxe iten e... itten tzen te! emendik? e... itxe ontan, emen. Ta gero? arratsëan? orantza; orantza, ta gero, biramonian?... ya, goizea ta, in bia bidire, masiak.  
– ‘La masada’, ezta? ogiak eta opilak egiteko, ez?

- Opila, ogiek, ogiak.  
 – Eta, ogiak non ezartzen ziren? ohol batean edo?  
 Bai, oratx! no, pal horno ¿cómo le diría yo?  
 – ¿Una tabla o así? ohol batean edo? lehenbizikorik?  
 Lemizik, arto batian iten ginue; gero, bi orduz eo orrela eoten tzen? bere... bere orduen. Gero? labian biztutzen bigindue(n), ta... or beian d'or. Lenao? sukeldie zen lekuen? ara labia, an dao, labia oraño. Ta gero, sartu labian? ta ogie inik.  
 – Bai, baina sartu nola?  
 Nola? pues, ola batekin.  
 – Eta, ateratzeko?  
 Atratzeko ere ola berian!  
 – Eta pala bat ere bazen, ezta? eta erratza eta...  
 Pala, palak, palak eo? pala... pala arizesköa, aritze.  
 – Ogia zenbat egunetarako egiten zen?  
 Ja! astean eun betez, aste guziko! igande guziek eiten ginuen...  
 – Erran dugu erratz edo eskoba antzeko zerbait ere bazela, ezta?  
 Bai, ta... zerekin? belar tzakarr oiekin... (bisitariari): pa barrer, la escoba dice, y... ¡con hierbas viejas!  
 – Belar zakarrak?  
 Belar zakarrak, ta... labia bistutzeko? orrea, orrea; berotzeko ori? labia? orrea.  
 – Ez dizut galdetu 'levadura'ri nola erraten zaion...  
 Orantza. Ya, azkenian, orantzak ere, nola ogiak egitian, Iruñetik edo ortik kartzen tzire orduen, ogi obia itten tzä, ogia... atratzen tzigute; bestenaz? iten delaik ogie? pues, puxk'et olaxe utzi? te arreki, iten tze bezperan... hacer la levadura, arrekin in? te, arreki.

### Esaera (1981)

- Mayo fardo, ogi t'ardo.  
 – Mayo fardo? hori zer da? zer da 'fardo'?  
 Fardo quiere decir, mayo... siendo blando, pan y vino; pero... hoy les he dicho: «No sé pues»...  
 – Eta, fardo hori zer da? euskara?  
 Klaro! fardoa! bai, bai; ogi t'ardoa, baña...  
 – Erran dute hilabete honetan euri aunitz...  
 Euri aunitz beña... otzik eztu!  
 – ... bota behar duela.  
 Otzik eztu iten ez, beño... denbora makurrao... orai biño, zautu dut nik.

### Haur-jolasen inguruko apurrak (1981)

- Haur edo ume zinelarik, hemen nola jolasten zen?  
 Aurre? 'criatura' es.  
 – Bai, haur-denboran nola jolasten zineten herri honetako karrikan?  
 Karriken... noreki?  
 – Jolasten, bai, zerekin edo zertan?  
 Bakarrik; bai, ezta aurriken emen e! ezta...

- Ez zineten ari kaniketan, tabetan, edo...? ‘juegos de niños’ quiero decir.  
Sí, juegos de niños, pero ¿qué juegos de niños? aquí unos sobrinos suelen venir de (...), a jugar a pelota; aquí no hay un crío, el más joven de este pueblo...
- Erran, erran ezazu euskaraz.  
Zanbalaz!  
– Bai? eta nola?  
Nola? soka bat paratu? te, «Buluno, buluño... bulungo» solían decir ta, ¡hala! zanbala, zanbala.  
– Zabu edo ‘columpio’ bat bezala edo? soka bat dilingatu arbola batetik eta...  
Bai, bai, bai... ala dire, bai.  
– Eta, zer bertzetara? tabak, kanikak, zibak...?  
Ze... biar nik? orai, kartetan edo, naipe o... Bueno, pa decir ‘naipe’ ¿cómo diré yo, pues?  
(Daniel, berriemailearen semea): ¡Porrazo!  
¿A qué juegos? lorean, también, lorea; ¿la flor? «Vamos a jugar a la flor», lorea, lorëa.  
– Tira, konta ezazu nolakoa zen jolas hura.  
Iru... kartetan, lorëa? iruek, flore bateña, iten tzire; flor, juaten tze?... atratzen bazire iruek, flore batetik? flor; beña? zazi!  
– Baina, hori kartetan zen. Eta haurrak, karriketan, nola?  
Launa, beña... ameka ume azi, ameka... izen gindue gu, bertze ameka, bertze... bertze aizpe bat? gero, Erreako ori? bertze ameka; ze in biar gindue? mainderëköak garbitu, bakizu? ori ze gure ju(e)go oi, juega ori ze, jeje!... orduen? ta titi man? ta, azi, orduen etzen mamen-, mamonik eta kosa ez, etze, etze...

### Herrian zenbat familia eta beste zenbait kontu (1981)

- Zenbat familia bizi ziren hemen, zu haur ttipia zinelarik?  
Errien?  
– Herrian, bai; orduan zenbat familia ziren?  
Ba! emen, orduen, iteko konta-, kontatutzeko; emen? bat, bide, iru, lau, borz... sei, zazpi... zortzi o bederatzi bai.  
– Eta, orain, sei bat?  
Orai? cuatro, lau; orei lau.  
– Orduan haur ttipi asko izanen zen...  
Klaro! orduen? apezak maten tziote, mezonduan? eguardi bittertio? bueno, aurei? etzen enseñatu’re; eskola... izein tze bai, orduän aqui, eskola; biño, gero...  
– Apeza nongoa zen?  
Nongöa?... bai! anbertze izen dire!...  
– Apez euskaldunik izan da hemen, zure haurtzaroan?  
Uskaldune? ez... ez.  
– Orduan katekesia ere erdaraz emanen zen...  
Klaro! erderaz, erderaz. Bai, apezak bazakite? uskeraz? jeje! berendako etzakite ta guretako, ze enseñatu ute?  
– Eta, zure senarra nongoa zen?  
Erreakua.  
– Euskaraz ongi jakinen zuen...

Bai, klaro, yakinen! biño ya, emengo gaztek?... gure umek eta, anaiek eta, oiek ere...  
etzute segitzen? ta, akabo!

– Eta, ezkondu zinetenean, senarrak eta zuk elkarren artean bai...

Ez, ez, elkarrekin etzen ez, ez, ez ginduen ya....

– Ez? erdara?

Erdera.

– Eta, hamaika ume izan duzu?

Ameka, ameka... ameka; ta... guk bertze ameka, eta... ori... an, Erreati torri die denak, or badakizu ze... orai, Uarten baitire, andik bertze ameka!

– Eta, hamaikak bizi dira?

Bai, bai-bai, ameka bizi dire.

– Non? Iruñen, Uharten, herri hauetan?

Denetan! denetan... denetan.

### Eultziaren ingurukoak (1981)

– Eultzia bukatu ondoan, zer bertze egiten zen?

Pues, pala oieki! pala ok-, oieki... da aizieiki? garie, garie... gariä, bueno, juaten bada, aizia torri da? aizien aldera, ta bertziak? montonera.

– Eta, hori non egiten zen?

Emen e! emen ere? emen ere denak.

– Lekuari nola deitzen zaio? larraina?

Larrañe, larrañe, bai. Bildu, dena, ta gero, aizia balin bada...

– Baina, eultzia egin aurretik garia larrainera eramane beharko zen; zerekin?

Zerekin eman? pues, kanpuan eiten dira, gariak eta denak ara? larrañera.

– Bai, baina larrainera eramateko...

Karruäkin! karruäki(n); garie barin beda? garie, ta gero? barin beda garagarra? garagarra... delaik.

– Orduan, eultzia egin...

Eultzie.

– Eta, haizea etortzen zelarik, orduan pala horiekin gora?

Aizeratu, aizeatu; artu... aga bat? erdien? te, pikorra alde bat? ta, beztzia? bertze aldera.

– Bertzea zer zen? lastoa edo? ‘la paja’?

La paja, lo que sea; si es paja, paja, si es malkarra, malkarra.

– Eta, ‘paja’ nola erraten da?

Aotza.

– Ahotza edo malkarra?

Malkarra? malkarra<sup>4</sup>, pero la paja de... la paja, aotza.

– Eta, malkarra zer da?

4 Azkuek honela dakar: 2º (BN-s, R), paja de beza y gerón (sic) : *paille de vesce*. Eta Orreaga Ibarrak honela: iz. malkarra <Paja de las legumbres y especialmente de las habas>. *Malkar ura biltzen ginuen ongi* (Mez) (Ibarra, 2007, 97. or.).

(Semea): Es un grano parecido al trigo, otro grano que da pa comer el ganaö (...), otra clase de semilla. Las habas, las habas mismo, pues tienen la part-, ¿lo que le quitas a las habas? es malkarra; no es lo mismo paja que malkarra. Varias clases (...); y en el otro, quitándole la semilla que era, malkarra.

– Y hay un aparato para hacer la trilla, ¿no?

¡Trilladora! (...), porque aquí vino muy tarde.

(Alaba): Sí, pero trilladora en el año cuarenta y ocho había aquí (...).

(Apolinariari): Horrek bazuen izenik euskaraz?

Trilladora? e! orduen, etze, uskerek e, etze orduen.

(Alaba): Pero, en el trigo también ya separaban otra cosa... ¿qué era, qué era aquel trigo dentro del barbudo? pajudo, que le dicen (...), un trigo que tenía una cabeza como un...

Burukek, oiek? txerriendako, txerriendako.

– Zenbat larrain zen herri honetan?

Ba! bakotxak bere larrañä, bai.

– Eta, zerekin biltzen zen garia edo dena delakoa? igitaiarekin edo?

A! klaro, oiek, ta gero... tallak, oeki... a la talla, ¿cómo se decía?

(Semea): ¡Pues talla! guadaña... siempre talla pero, pa comprar... cuando vas a pedir siempre entienden guadaña.

Igiteak!... orrek, patzen tzire(n), goiti aldetik... iite? bueno, pionak tortzen tzire, garie moztera.

– Eta, ez ziren eriak babesteko gauza batzuk? ‘cazoletas’ edo?

Cazoletas.

– Euskaraz nola?

Tsoketak, tsoketak...

### Bidegurutzerainoko bidea (1981)

– Noiz egin zuten, noiz asfaltatu zuten bidegurutzerainoko bidea?

¿Qué años llevará la carretera?

(Semea): Pues llevará, cuarenta y tres o cuarenta y cuatro.

Berrogei igual; berroete lau dio! berroete lau.

– Lehen oinez ibiliko zineten beti...

Je! abrëan tta, beti... denek, oñez? te, abreik etzuenak? oñez, biñä... denek bagintuen e... abriak; batek mandoa? bertzeak zaldiek? beziak biorrak? o astoak?...

– Eta, gauzak eramateko ere berdín, ezta? astoekin eta behorrekin eta...

Gero, iyotzera emateko gariak eta oiek? emengo... errotako? berek egultzi, ibiltzen tzuzte? iru-lau mando, beren... faleaki te, erraten gindue: «Ya viene... febrero», erraten gindue. Ta, tzakuek? guk ere... guk, bide, bertzek bertze bide, bertzek bertze bide, maten tziote? ta, io? ta, gero kartzen tzitue berak, beak. Or, errota ortan, or gelditzen tze, etxe errota, or, orai or baite ostatuik, or, or tzire? ostatuik.

### Ogi bedeinkapena eta fuesen aipamena (1981)

– San Juan egunean zerbait egiten zen hemen?

San Juan?... argitu orduko ilune.

– Ilune?



Nik er'ori egosii tut<sup>5</sup>, «San Juan egune, argitu orduko ilune»... es eso, pal día de San Juan, pa cuando amanece ya oscurece, eso en vasco, ¡no sé por qué diríamos!... como hemos dicho... mayo: «Mayo fardo ogi t'ardo».

– Eta, egun hartan ez zen ezer egiten?

Ez-ez-ez-ez-ez, batre; Esañen, Esañen eite-, eiten tzuten festa? ta, al tzaikena... arara juañ? ta...

– Surik ez zen bizten?

Ez, ez, ez.

– Ez zen deus egiten San Juan egunean edo bezperan?

(Gaizki ulerturik): Ereki, ze?... San Juan egune ze, yatekoak edo, ereki o ala? bedeiketu?

– Ez, ea zerbait egiten zen.

Bedeiketu? menturez? eztakit, eztakit zer.

– Bedeinkatu, San Blas egunean egiten da, ez?

(Semeak elizan banatzen omen zituzten olatak aipatu zituen).

Ogie ere? ogi bedeiketue.

– Eta, nola, zer erraten zuten?

Bueno, ogie, itxetik ematen ginue, bueno, astëan o... yei betian aitte<sup>6</sup> batetik, bertze iendian bertze itxetik, ogie ematen tzute txaskira, ta... uzten tzute. Ta gero? ematen tzute... sakristiera? ta bedeiketze zue apezak? ta, ba... etzakite nori... tokatzen tzaion, gizon oiei eman? ta, nabaleki? iten tzute, kokkor batzuk ola? ta, batek? 'la paz' edo nola...

(Semea): Sí, la paz, la paz, la paz...

La paz y el katillö. Akabatzen tzelaik meza? geren mutikoikin? tortzen tze... fuesetara apeza? ta, bi sosekoa maten bagëndio? sosa urä, mutiko aieki? itzuli, sos batengatik, torriar tzue errezo ittëra. Ze mixerie zen orduen ere! ze miseriä!

### Korpus Eguneko prozesioa (1981)

– Prozesioren bat egiten zen?

A! bai, Korpu Kristi egunian... bai, bai, orai ere bai!

– Nolako prozesioa da? zer ateratzen dute elizatik? lehenbizi gurutzea edo zer...?

Gurutzia? palioan, palioen... bean? o, Gure Jauna! ta, aldareak, e... paratzen dire... ärrien ere. Gero, karrikek, garbitzen dire eta botatzen dire... junkuak, erraten dute, inik ola; klaro! man bueltak? erri? leioak, denak... beztitzen dire.

– Maindirez edo arropa zuriz?

Bai, arropa xuriek!

– Zein ateratzen dira? monagillo bat eta apeza?

Denak, denak...

– Eta, gizonezkoak eta...

5 'Hausnarturik dut' izan liteke hori, agian, zein testuingurutan dagoen ikusita.

6 'Itxe' da hori, testuinguruari behatuz aise antzeman daitekeenez, baina idatzi bezala aditzen uste dugu.

Denak, denak; badaile ortan? jendea?... denak! jendie bizi da? ta, elizea, akabatzen deleik meza? atratzen da, bere palio edo... bidean apäza? ta bere estazioan? iten tu bedeiketutu te o... gero, aldarëak patzen diren... itxetan? emen beian? gure itxean, beien paratzen da, or maian? ta or. Bedeiketutu? ta... gero? juan elizera? ta aka(b)o.

### San Martin eguna (1981)

- Herri honetako patronoa nor da?
- San Martin.
- Egun horretan zerbait egiten da?
- Ejeje!... bazkari ona.
- Deus besterik ez?
- Ez, ez; gutxi, gutti, gutxi ba, ori bai, meza bai.
- Eta, gero zer? musa edo musika edo...?
- Gu? musean?... ta dantza, klaro!
- Nork sonatzen du musika? musikariak kanpotik etortzen dira?
- Tortzen dire, tortzen dire're bai.
- Denbora batez gitarrarekin eta kantatuko zuten...
Eleberrigileak landutako testuak «hutsuneak» ditu irakurleak irakurtzean «bete» ditzan. Bere gogara «hutsuneak» «betez» (Iser, 1989, 133-148 orr.) doan irakurlearen irakurketa bide bizitza hartzen duen testua da. Irakurri bitartean irekia eta mugagabea da, irakurlearen irakurketak «ixten» duen arte. Hartzaile bakoitzak bere gisara bereganatzea dezakeen testua da (Meregalli, 1989). Hala gerta dadin testuak esanahi askotarikoa izatea derrigorrezko. Horregatik, adiera anitzekoa bihurtzen doan hizkera-moldeaz baliatzeagatik, hain zuzen, zehaztasuna eta zorrozatasuna gune dutenetatik bereizten da. Kazetariaren edo historialariaren kronikari data, gertalekua, gertari horien egile eta abarren izendapenean doitasuna galdegiten bazaie, beste eskakizunen bat du eleberrigileak. Beraz, Barbier kronikagilea aztertzean, ez da behatuko gorde zuen zorrozatasun-maila, alderdi askoko testua osatzera eginiko ekarria baino.

Ondorioak aurreratuz: kazetariaren eta historialaren berbaldiek nahitaezko duten zehaztasun eta zorrozatasuna alde batera utzita, baina, aldi berean, adiera bakarrekoa den kontakizuna onduz, eleberritik ere aldentzen den idazlana gauzatzen du Barbierrek. «Hutsune»rik gabeko testua burutzera jo zuen. Irakurketetara zabalik legokeenaren orde, nola jaso ezartzen duena. Mezu jakina helarazi nahi du: etxea gorde. «Etxea» euskal etxea da. Euskal etxe hori, etxeko bizilagunen, elizaren eta arbasoen egoitza den hilerriaren gain eraikitzen da. *Piarres I* eta *II*ko Piarres pertsonaia nagusiaz kontalariak dioenez,

Oihanaldean sortua, Oihanaldean biziko zen beraz eta Oihanaldean hilen, Jainkoak nahiko zuelarik. (...).

Oihanaldean bethi hola gelditzen, *elizaren*, *etxearen* eta *hilerrien* gainean bermatuko da<sup>1</sup>.

1 Azterketarako edizio eskuragarriago batera jo da: Sanchez, R. (arg.), 1992, 148 or. Testu-aipamenetako letra etzanak ediziokoak dira. Aurrerantzean ere, irizpide berbera jarraituko da: edizioak letra moldeaz egin erabilerari estu-estu eutsi.

Oihanalde izen berezidun landetxearekin irudikatzen du euskal etxeak izan beharko lukeena. Etxe horren segida ziurtatzen duen bizilagunak, etxeaz bestalde, eliza eta hilerria ditu harroin<sup>2</sup>. Horra hor oinordekoaren zimentarrien izaera.

Euskal etxe hau etxe handiago batean kokatzen da: Frantzia. Alemanak indarrez Frantziatz jabetzen direnean, ezinbesteko da menperatzera datozei aurre egitea dauzkaten zutarriek bere horretan iraun dezaten.

Oihanalde da Barbierren kontakizuneko ardatza, *Piarres Iekoa ez ezik* (Apestéguy, 1926, 611 or.), baita *Ilkoa* ere. Gerra piztean, etxea defendatzera joatea zegokiola uste zuten Piarresek eta bukatzean, Goñarekin ezkondata,

xutik berriz bazagoken *Etxea!*

Jainkoak hola manaturik, bertze Piarres eta Goña ttiki batzu ethorriko ziren, (...). Kattalin emagin xaharrak eremanen zituen bathaiatzera (...) eta, beren aldian, xutik atxikiko zuten hek ere *Etxe hura bera...*<sup>3</sup>

Eredu bat baldin badago eta ereduak iraganean, orainean eta etorkizunean berdin jarrai dezala nahi bada, prozesu baten berri ematea baztertzen da, egon dagoena ibili dabilenari aurka jartzen zaiolako. Piarresek lau urte luze igaro arren gerran, higitze fisikoa baino ez da: psikologikoki geldirik dago. Etxea atxikitzeak darama gerrara. Piarres gudu-zelaietara laguntzen duen kontalariak gertaera eta eszenatoki lazgarriak agertu izanagatik, «onen» eta «gaiztoen» arteko borroka da: etxea beretu duten alemanak bota nahian diharduten frantses agintari militar eta soldadu zintzoak, soldadu euskaldunak zintzoetan zintzoenak eta ausartenetan ausartenak direlarik.

Gatazka ezabatzeak, matazarik ez harilkatzeak, adiera bakarrekoa den testua maitzeak... eleberritik urrunarazten du eta, gerraz egin kronikan, nahiz datak eta gertalekuak aipatu, zehaztasuna eta zorroztasuna berbaldia taxutzeko irizpide ez izateak, kazetaritzatik eta historiatik. Azkenean, etnologia eta Gerra Handiko pasadizoak elikagai, testu hibrido bat moldatzen du, asmo jakinarekin: etxe eredugarriaren zuta-beak bistaratu eta, edozein zirkunstantzietan, baita gogorrenetan ere, gorde beharra azpimarratu.

XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzan, bada jazoeren kontakizuna lehenesten duenik, baina ohituretara arreta bildutakoak gainditzen du. Edonola ere, bata zein bestea gailendu, eleberriok bat datoz kontatutako istorioak testuan egikaritzeko

2 Lehenago ere jakinarazita zeuzkan benetako euskaldunaren zutarri horiek, baita oraingoan isiltzen duen bat gehitua ere. *Supazter sokoan* (1924) idazlanari egin aitzinsolasean dioenez, «Eta zerk egiten du Eskualduna zinezko Eskualdun? *Elizak, Etxeak, Hil-Herriak, Mintzairak*. Horietan datza Eskualdun arima guzia». Valencia, E. (arg.), 1987, 38 or.

3 Azterketan erabilitako edizioa: Loidi, A. (arg.), 1996, 216 or. Ik. lehen liburukiari egin oharra.

moduan. Langaiei forma emateko eran barik, langaietan beraietan daude aldeak. Forma ematean, ereduak erakustea dute xede. Ereduaren balore-sistemako funtsezko osagai da kristau-sinesmen sendoa.

Egia da kristau-sinesmenak apaizak diren egileengan eragiten duela hitz-jariorik handiena eta laikoetan urriena. Apaizen artean Barbierrena izan zen ugariena. Bestaldean, laikoak leudeke, hala nola, J. M. Etxeita<sup>4</sup>. Zernahi gisaz, ez dago eleberririk helburu moralizatzaileari ihes egiten dionik.

Barbierren idazlanok euskal eleberrigintza argitaratuak hasitako ildoan jarraitzen dute, dela baliatutako ekaietan, dela ekaiok testura eroateko lantegian. Bere ñabardurak erantsiz, haatik. Ñabardura horien artean aipa daitezke, matazarik ahulena ehotzea, arlo erlijiosoari tokirik zabalena eskaintzea, guztiek landa giroa goretsia bazuten ere, goraipamen horri, ordura arte egotzi gabeko motiboren bat emendatzea, gerra-eremuko ibileren kontalari bakarra izatea... Honela bada, bere berezitasunak ditu.

Dagoeneko etnologia hornigai izana bazuen ere euskal eleberrigintzak, bada nobedaderen bat erabilitako kontuetan: etnologiari gerraren kronika batu izana. Gerraren gorabeherei tartea irekitzeak euskal eleberrigintzak planteatu gabe zituen auziei heltzea edo, ordurako ezaguna zenen bat testuinguru oso desberdinean kokatzea ere ekarriko du. Hala, lehenbiziko aldiz aurkezten da komunitate politiko mailako lokarria hizkuntza-komunitatearenari nagusitzen. Batak bestearen hizkuntza ez jakiteagatik, elkar ulertzen ez zuten pertsonaiak ez ziren ezezagunak euskal eleberrigintzan, bai horratik, kokalekua: gudu-zelaiaren alderdi berdinean, etxe bera defendatzen ari ziren.

Besterik ere, batu zion etnologia iturri izana zuten eleberriek ondutakoari.

## 1. FORMA ETA LANGAI EZAGUNAK: ÑABARDURAK

Baserri edo arrantzale giroko ohitura eta bizimoduaz ziharduen eleberririk bazen euskal literaturan. D. Agirreren *Kresalan* (1906) eta *Garoan* (1912) atzeman daiteke etnologiaren esku hartzerik, gutxieneko mataza bat eraikitzeari uko egin barik, ordea. Hona matazaren moldea: pertsonaia nagusiei nahigaberen bat sortuko zaie, edo zehatzago, pertsonaia nagusiei nahigaberen bat sorraraziko diete; izan ere, pertsonaia nagusiok ereduagarriak izaki, ez dute gabeziarik; bigarren mailako pertsonaia bakan batzuetan, aldiz, badira grina edo ahuleziaren bat dutenak eta ahuleziok pertsonaia ereduagarriarengana iritsiko dira, nahiz eta hau inoiz ez ailegatu modu arazotsuan bizi-tzera eragin dioten nahigabea.

4 Ik. *Josecho* (1909) eta *Jaioterri Maitia* (1910). Sariak eta zigorrak banatuz portaerak arautzen ditu, baina pertsonaien sinesmen eta praktika erlijiosoen berririk jaso gabe.

Barbier ereduak ez dena ia deuseztera gerturatu izanagatik, matazaren bat bilbatzeari begira emankortasunen bat izan zezakeen baliabide hau, zein bestelakoak, baztertzen ditu eta, ondorioz, etnologia biluzgorririk geratzen da *Piarres I* eta *IIn*. Piarresek, pertsonaia nagusiak, ez du gatazkarik, ezta horrelakorik ekarriko dion bigarren mailako pertsonaiarik ere. Gerrak, etxetik, senditik eta gustuko zuen neskarengandik urrundu izanak noiz edo noiz oroimin apur bat pizten badio ere, garapenerako zeukan gaitasuna, jakinarazte hutsarekin bukatzen da. Gerra, berriz, besteek hasi dute eta bera gudu-zelaian dago etxea, sendia, neska, herria eta Frantzia babesteko. Gerizatu egin behar dituela diotsa bere balore-sistemak. Balore-sistemak agindutakoa betetzen ari da bataila-eremuan eta bertako bizipenek ez dute ukitzen gerraurreko balore-sistema eta nortasuna.

Gerra hotsak entzunaz bat Piarresen Oihanalde landetxeko atea jo zuen Agustin beratarren gonbit buru berotzaileak –ihes egin eta mugaz bestaldeko beratarren baserrian laneratu– horixe lortzen du; ez besterik: une batez kaskoa berotu. Erantzun irmoaren ostean, behin betikoz amaitzen da bat etortze faltak mataza harilkatzen laguntzeko zuen birtualtasuna. Mataza ehotzen joateko birtualtasunak saihestuz, Oihanaldeko bizilagunak eta, batez ere, bertako oinordeko den Piarres pertsonaia nagusia «nola dagoen», «nola bizi den» azaltzea jomuga, ez da baliatzen ordu arteko euskal eleberrigintzak etekintsu izana zuen bitartekoaz: «ahuleziaren» bat, grinaren bat du(t)en bigarren mailako pertsonaiaren bat(zu)k itxuratu, pertsonaia nagusi erdugarriak bere «egoteko modua», «bizitzeko modua», balore-sistema erakuts zezan. Aitzinetiko eleberrigintzan ahula bazen mataza, are gehiago indargabetzen du Barbierrek *Piarres I* eta *IIn*. Mataza makaldu ahala etnologia sendotzen da: bazen etnologiarik iraganeko ohiturazko eleberrigintzan, mataza ñimiño batera bildua, haatik; orain, hori ere ez.

Bizi izandakoaren harira eginaz doazen pertsonaiak barik, egonean dauden egindako pertsonaiak, jada aurkeztuak zituen, nola ohiturez, hala beste edozein langaiz, hornitutako euskal eleberririk. Egia esan, bigarren mailako pertsonaia baten nahiek edo sentipenek sor dezakete aldaketaren bat, baina, sekula ere ez, adierazitako bilakaera baten emaitza legez. Bat-batean mamitua, mirariaren erresumatik gizatiarretetik baino hurbilago dagoen aldaketa da: jazoeraren batek argi egin izanaren fruitu. San Pablo zalditik erori zenean bezala.

Pertsonaia nagusiei dagokienez, euskara, euskal ohitura eta fede katolikoari atxikimenduak ezaugarritzen ditu. Hiru oinarri horien gain eraikitako balore-sistemako euskarrietako bat denboraldi batez alde batera uzten duen pertsonaia nagusi bakarra dago: R. M. Azkueren *Ardi galduako* (1918) Medel Olazarreta. Dena den, protestante bihurtzean galdutakoa berraurkituko du. Barbierrek ere, gainontzeko eleberrigileen norabidea hartuko du, idazlanaren izenburura eramanez nabarmentzen duen Piarres, lau urtez gerra bizileku izan eta gero, joan aurretik zituen bereizgarri berdinekin itzultzeak erakusten duenez. Gerrako bizipenek ez dute inolako eraginik Piarresen nortasunean.

Halere, nobedaderen batzuk aitortu behar zaizkio Barbierri. Horietako bat, ordu arte euskal eleberririk estu-estu zaindua zuen *decorum*etik aldentzea. Esaterako, Agirrek,

*decorumaren* izenean, Tramana eta Brix pertsonaiek esandako hitz zatarrak isiltzen ditu *Kresalan*. Behin edo behin iragartzen du, hauen berriktarekin jarraitzea bertan behera lagatzen duela, hitzen zatarkeriaren maila areagotzen zihoalako. Barbierrek, ostera, ez du eragozpenik izan gerran tokitu eta, horko txikizio eta sarraskiez aritze-ko. Erretorika klasikoak agindutako *decorumaren* arabera, pertsonaiaren portaerak «egokia» eta «behar bezalakoa» izatea nahitaezkoa du eta ikuslearen sentikortasuna mindu edo iraindu dezaketen errealitatearen alderdi arruntenak ezin irudika daitezke. Gehienbat, sexuari, indarkeriari edo heriotzari buruzko eszenak ezkutatzea eskatzen du. Jakina da tragedia klasiko grekoan heriotzak «hegalen artean» gertatu behar zutela, ezkutuan, hartzaileak ikus ez zitzaizkan.

Barbierrek ez zuen saihestu frontea *Piarres II*n eta erretorika klasikoak «behar bezalako»tzat onartuko ez zituzkeen eszenek agerrera egiten dute. Alderdi guztietatik oinaze-sortzaile izanik, gerra-eremua ez da ereduazko lekua: janaria falta ez denean, hondatutakoa edo janzina ematen dietelako<sup>5</sup>; aurreragokoa den zereginen batek hildakoak lurperatzea ere oztopa dezakeelako<sup>6</sup>; adiskideak eta ezagunak ez ezik, norberak ere arriskua noiznahi lagun duelako, zeinahi unetan zaurituta edo hilotz gera daiteke-elako... Piarresen bizitoki berriko nondik norakoak jasotzeak, halabeharrez zekarkion Barbierrri triskantzari eta giro suntsitzaileari tartea irekitzea. Piarres etsaia bota nahian zebilen bitartean honen jaioterrian, edo jaiotetxe zuen Oihanalden gelditutakoenen gauzak kontatzea zuen aukera bakarra. Senpereko eta Oihanaldeko albisteei jaramon eginaz segitu zuen, gerra alboratu gabe, ordea.

Ausarta izan zela ere gainera daiteke, euskal eleberrigileak gerra-egoeretatik ihes egi-tea hobetsi baitzuen, XX. mendearen lehen erdian zehar. Horren lekuko beste euskaldun batzuk pairaturiko gerrak, nola gerra karlistak, hala Gerra Zibila (1936-1939). Istorioa gerra egunetara daraman eleberririk ez da falta, nahiz gerra karlisten garaira gibelatzen den J. Eizagirrereren *Ekaitzpean* (1948), edo Gerra Zibilaren sasoiari kokatzen diren Mendi-Lautak izenpetutako *Loretxo* (1937) eta J. A. Irazustaren *Bizia garratza da* (1950). Alabaina, *Ekaitzpeanen*, gerrateko aztarnen bat baino ez; izan ere, Aritzondo baserrian babestu duten gudu-zelaian zauritutako gaztearen eta bertako alabaren arteko harremana du ardatz: kontaera ez da tokitzen bataila-eremuan, Aritzondon

5 «noizpeit azkenean agertu ziren erreximenduko karroak. Ogi zerbeit ekartzen zuten, haizkoraz hautsi behar baitzen, batere hartarik jatekotz... Haragi bat aldiz! Haragia ere zenez, ageri ez baitzuen gehiago. Dena usteldura! Zortzi egun hartako haragia, bero hek guziek mutziturik, kasik hezurerraino usteldua!

Bere zathia eskuraturik, haren jaterat Piarres abiatu zelarik, bihotzak huts egin zion! Firrindilaka arthiki zuen usteldura hura guzia, eta ogi-mokor bat ahoan zehatu beharrez hasi zen. Joanes Garaztarra, hura, ixilixila, bazterrera burua itzulirik, haragi izigarriari lothua zen...

Bainan eskarnio guti gosearekin. Zonbeit egun ez oraino jatekorik ez zen deus kasik agertu, (...). Eta lau egunen buruan, berriz itzuli zen Piarres bere haragi usteldua arthiki zuen tokira. Eta, goxara, hantxet, bi begiak hetsirik jan zuen... lau egun lehenago bazterrerat botatu zuen izigarrikeria hura bera, *bar-meta bat baizik ez baitzen gehiago...*» (II, 32-33 orr.).

6 «Hilabeteak eta hilabeteak han behar ginen egon, urriaren 12ko, urtharrilaren ondarreko gudueta erori soldadoen kapota urdinak eta galtza gorriak beren barneko gorphutzez husten ari zirela, egun guziez gehiago, gure gathe eta alhanbren aintzinean...

(...). Heientzat ez zen izanen ez kurutzerik hobiaren gainean, ez eta ere... hobirik» (II, 76 or.).

baizik, eta gerrateko gorabeheretara gabe, maitasun-istorio batera biltzen du arreta. Ildo beretik dator *Loretxo*. Yon pertsonaia gerrara joan eta, hemengo jokamoldeak kontakizunaren korapiloa askatzeko erabakigarri izanagatik, kontalariak hitzik ere ez, noiz eta, alde batekoek eta bestekoek jarraitutako portaeretan oinarrituko duenean beste auzi baten konponketa. Yonen alderdikoak Loretxoren gurasoenekoak baino zuzenago aritu direlako, hauek aurretik begi onez ikusten ez zuten ezkontza baimentzen dute: Yon eta beren alabaren artekoa.

Gerra aitzakia hutsa da maitasun kontuak bideratzeko; ez besterik. Irazustaren *Bizia garratza* dan ere, gerra-esparrutik at garatzen da kontakizuna. Gerra dela eta, Bordelen Coloniara ateratzen den itsasontzira igo ziren bi pertsonaien istorioa kontatzen du, gerrak erbesteratu dituen pertsonaien bizitza. Etenak eragindako efektuak ditu kontakizun eta ez gerrakoak.

Testuinguru honetan azpimarragarria da Barbierrek *Piarres* soldadua bide, Gerra Handiaren kronikari heldu izana, egotzi dakizkiokeen ahulezia guztiekin bada ere. Eta kronika horretan ez zuen saihestu erakusgai ikaragarriak testura ekartzea, dela, dagoeneko aipatu diren elikatze-moduaz, lurperatu gabeko hilotzen itxuraz<sup>7</sup>, dela bizitza-egoeraz<sup>8</sup> diharduten pasarte gordinak.

Ustekabeak barik, kausalitateak ezartzen du euskal eleberrigintzako istorioen gertalekua. Hiriko bizimodua erdeinagarriztat daukatenez, aipa dezaketen arren, ezin izan kontatutakoaren gune. Ahotan hartzen dutenean, xede jakina betetzen du: zabal kontatzen den baserri edo arrantzale giroari aurka jarriz, ereduzkotzat jotzen duten landa-eremua oraindik gehiago nabarmentzeko bitarteko dute.

Hobesten eta zabaldu gura duten balore-sistema kolokan jar dezakeelako arbuizaten dute hiria. Eredugarria dena bistaratzea jomuga dutenez, ezin pertsonaia nagusi kaletar batez baliatu, ezta kontatutakoa kalean tokitu ere. Soka berdinari eusten dio Barbierrek Oihanalde hautatzean *Piarres* pertsonaia nagusiarentzat eta hiritarrei buruzko aipamenak izen bereziz izendatzera iristen ez den zenbait pertsonaiaren jarrera eta asmo gaitzesgarrietara mugatzean.

7 «Toki ustel hartan, han hemenka, aspaldi-aspaldi han erori frantses soldado batzuen gorputzek iduri zuten mihise zikin batzuen tartetik harrotzen ari zirela. Urtzen baizik ez ziren ari eta mikotzen, egun guzietz gehiago. (...), eta *Piarres*, luzaz meta ilhunerri beha egonik, othoitz baten erraiten ari zen, han eroriak eta bethi ezin-ehortziak zauden lagunentzat» (II, 134 or.).

8 «Ai! Sommeko lohiak, hamaseieko negu borthitzean, izaiten ahal den toki ustelenean. Ai! gauazko guardia ezin-erranezkoak, itsaso bat bezala alderdi guzietarik heldu zen basa higuinaren erdian, zangoak ubeltzen eta hormatzen ari zitzaizkotela orenetik orenera!

Lohi higuina, hastiala, okaztagarria, haxoinetarik eta galtzeri goiti, gerruntzean, bulharretan barna, lephoraino igaiten zena, hotz-hotza eta ixil-ixila, alimaleko apho itsusi bat bezala! Ez zen, lohiarentzat, ez gazterik, ez zaharrik, ez aintzindaririk. *Oro bardin* lohi zikinaren aintzinean, herioaren aintzinean bezala; (...) bethi, zauri itsusiena baino itsusiagoa; hotza, horma puska bat bezala, erhotzeko ere baitzen azkenean!

Kanoi-peza batek luze-luzea etzanarazi zituen ondoan, altxatzen ziren, izigarriak egiazki, lohia zariotela, lohi eginak zangoetarik eta kaskoraino» (II, 129-130 orr.).

Hegoko eleberrigintzarentzat bezala, baserriko biziera eredugarriaren aurrean, galbidea zekarren kaleak. Ohitura gaiztoak ikasteko ingurune aproposa zen. Ikusi besterik ez dago, nola prozesioko senpertarrak «Tantum ergo» kantatzen ari zirenean, «karrosa batean Baionatik edo Miarritzetik ethorririk, (...) huna sei zazpi gizon gazte, hasten direla kantuz hek ere eskarnioka eta hirriz, elgarri keinuka» (I, 134-135 orr.) zebiltzan. Hegoko eleberrigintzak atzeman gabeko gaitzik ere gehitu zion hiriari Barbierrek, gosea ekiditeko ezgai den barrutia izatea, hain justu:

ezen, zorigaitz hiriari, lan-sari handiaren gose eta egarriz, bas-herritarrak oro, edo gehienak, hiri hartara jaitsiko direlarik! Harenak egin du egun hartan; eta noizpeit beraz, *gosea ez jitekotz*, noizpeit, beharko du hiritarrak berak bere lehenagoko mendi-alhorrerat itzuli (I, 148 or.).

Ohitura txarrei, gosea pairatzeko arriskua emendatzen dio: behar primario bat aseztea eragoz dezakeen esparruarekin ere uztartzen du hiria. Ez Barbierren idazlanok bakarrik, gainera. Geroago, J. P. Iratchet-ek *Antton* (1946) kontakizunean lotura berbera egin zuen. Hiriaren lilurapean, Anttoni emana zion ezkontza-hitza hausten duen Marixanek, zigor latza jasanez bukatuko du: berarekin ezkondu nahi zuenari janaria eskatuz, hiriak miseria gorrira eraman duelako.

Mundu hiritarra mespretxatzeak eta landatarra goresteak batzen ditu Hego eta Iparreko eleberriak, mespretxu berria erantsiz honek. Iparrean, Barbierrek aurkeztutako hiria-gosea harremana, haatik, Iratchetena baino sakonagoa da; zeren eta, lehenak hiritarrak mehatxatzen dituen zorigaitz bezala ez ezik, hauek etxaguntzara heda dezaketen kalte moduan dakusa. Hirian, gosea nozi dezaketen herritarrez bestalde, baserrien inbaditzaileak ere bizi dira, jauregi ederrak eraiki nahian etxeok erosi nahi dituztenak, Piarresen aitak Oihanalde saltzeko jasotzen duen eskaintzak frogatzen duenez (I, 69 or.). Hortaz, badira goseak harrapa ditzakeen hiritarrak, baina, baita etxaldeko bizibidea irauliz, berau ezaba dezaketenak ere. Hiriak heriotza dakar: gosea itzurtzeko noizbait lehenagoko basetxera itzuli beharko du kaletarrak; landa eremuko etxea jauretze bihurtzeko beretzen duenak, iraganean zuen ezinbesteko egin-kizuna kentzen dio: bizimodua ateratzeko zeuzkaten lurrez desjabetzen ditu bertako bizilagunak.

Zeinahi egoeretatik uxatu gura du gosea Barbierrek, orobat gerrak sorraraz dezakeenetik:

Betirisantz ez zen agertu behar behin ere Olhaso kasko hetan... (II, 53 or.).

Ipar eta Hegoko eleberrigintzak bat datoz erudian. Euskara, fede katolikoa eta euskal ohiturak ditu harroin ereduazko balore-sistemak. Langai batzuk ala bestelakoak erabili, mataza sendoagoa ala ahulagoa osatu, balore-sistema horretako euskarri jakinen bat gehiago ala gutxiago nabarmendu, pertsonaia eredugarriek ezaugarri berberak dituzte. Baserri giroa du gotorleku balore-sistema horrek. Pertsonaia eredugarriak zimentarri horiek dituen bizimoldea erakusten eta goraiatzten daude testuan.

Barbierrek *Piarres I* eta *II*n adierazitako mundu-ikuskeraren oso errotuta dago euskal kontakizunean. J. Perez de Lazarragaren (ca. 1547-1605) artzain kontakizunaren salbuespenarekin, hizkuntzak eta, batik bat, kristau-sinesmenak erakarria zuten hitz lauaren barrutia mugak poliki-poliki zabaltzen hastean, arlo profanoagoan barneratu arren, kristau-fedeak funtsezko tokia betetzen segitu zuen.

Esate baterako, autua testu-tipo egokia zen zerbait irakasten jarraitzeko. Euskaraz moldatutako lehen elkarrizketan, *Peru Abarkan* [1802]<sup>9</sup>, azaleratutako mundu-ikuskeraren luzapena bermatzen ari da Barbier, ordu arte beste belaunaldi batzuetakoekin egin eta, geroago ere, egingo duten legez. Horrela, iraunkortasun handikoa ez ezik, XX. mendearen bigarren erdi arte lehiakiderik gabekoa izango da: euskal eleberrigintzak mundu-ikuskerara bakarria adieraziko du. Ipar-Hegoen artean erabateko adostasuna, Barbierren *Piarres I* eta *II*ren ondotik burututako Iratcheten *Anttonek* berresten duenez.

Ingurumari honetan, deigarri gertatzen da nola eredu hutsak diren pertsonaia nagusiak eratu dituzten zenbait egilek ez duten eragozpenik izan ezarritako ordenaren manuren bat hauts ezaten. Jada J. A. Mogelen *Peru Abarkan* ezusteko jazoeraren bat hautematen zen, Peru eredu Maisu Juan justiziari kontu ematetik libratzen zuela ikustean. Topagune izan zuten tabernan Maisu Juanek eragindako kalteen lekuko izana zen Peruk, salaketa baztertzeaz bestalde, justizia eske datorren txinelaren atxiloketa-agindua ekiditen laguntzen du. Mogelek Peru ereduari justiziaz trufatzen lagatzen dio; Barbierrek *Piarres* ereduari, mugazainez.

Berez *Piarres* ez da mugazainekin norgehiagokan sartzen den lehen pertsonaia, Ganix, J. B. Daskonagerren *Les échos du Pas de Rolandeko* (1868) pertsonaia nagusia aitzindu baitzitzaion. Halere, euskaratu ostean *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870) izenburupean argitaratutako eleberriko Ganix ez da *Piarres*en anaia bikia. Daskonagerrek kontrabandista ospetsu izandako pertsona historiko baten eginkariak ezagutaraztea zuen helburu, Barbierrek, aitzitik, euskaldun eredugarri batenak. Gainera, Ganixek ez bezala, ikasbide doktrinalez jositako testu bat zuen bizileku euskaldun eredugarriak. Ereduetan eredu den Barbierren pertsonaia nagusia indarrean dagoen legeari jaramonik egin barik ibiltzeak, elizkoietan elizkoiena den *Piarres* kontrabandoaren alde azaltzeak, benetan sortzen du harridura. Ez soilki horrek, baita Jaungoikoaren laugarren manamendua zintzo asko gordetzen duenak, hain justu, gai horretan eta, horretan baino ez, amaren esana aintzakotzat ez hartzeak ere. Gaxuxak, semea bezain ereduak den amak, bere alderditik, ez dio eskatzen kontrabandoa uztea iruzurra delako, legea begiratzen ez duelako, baizik eta atxilotu dezaketelako. Atxiloketak sendiari ekarriko liokeen ahalkeaz da beldur Gaxuxa. Ordura arte agertutako arrazoiek semea ez dutela konbentzitu atzematean eta ez entzunarena egingo duela igartzean, goragoko *auctoritas* batera joko du amak, «jaun erretorak nola ez zaitu bada kontrabanda madarikatu hortarik oraino gibelatua?» (I, 29 or.). *Piarres*en erantzuna, berriz,

9 Nahiz eta 1881erarte ez argitaratu, garaiko euskaltzaleen artean ezaguna zen eskuz egindako kopiei esker.



Jaun erretoarak barkatzen dauku kontrabandan ibili garenean, bainan ez dauku erranen, ez dezaguke erran kontrabandan ibil gaitezen. (...). Bertzalde, gure etxe-lanetan nahiago gintuzke harek ere, zuk bezala, ama, zeren, askotan etxeko segida galtzen duen kontrabandixt batek baino gehiagok (I, 29 or.).

Atxiloketa eta honen ondorioak kezkatzen dute Gaxuxa; «segidak» oinordekoa, etxearen segidak. Biak ere, etxea, sendia dute gogoan. Hain kristau zuzena den Piarresek, bekatua dela aitortzen du eta, horrenbestez, erretoarearen barkamen-beharra daukala, baina, nonbait, aitorten bakoitzaren ostean erretoareak jar zekiokkeen penitentzia betetzearekin aski zuen. Legearekin leial jokatzeko asmo izpirik ez du erakusten, behintzat. Horra hor, obeditzen eta osoki errespetatzen dituen bi autoritateetatik urrunarazten duen gauza bakarra. Zer gertatzen da? Kontrabandoa ere «ohiturazkoa» dela, eta isil-gordeka baino ez dela urraketa?

Kontrabandoa onartzeko Piarresek azaldutako zioak ere badu mamirik:

Eta gero, Eskual-Herrian ez zen lehenago kontrabandarik, zeren ez zen *muga-harri-rik*. Zertako eman dituzte muga horiek Dantxariako edo Irungo zubieri hurbil? Eskualduna ez othe da *berez bere* ibili behar Eskual-Herri guziko mendietan? Gure lehenagoko zuzenatarik, hori bederen ez othe ginuen begiratu behar, hori bederen ez othe zaukuten utzi behar hego-aldeetik edo iphar-aldeetik guri nausitu erresumek? (I, 29 or.).

Mugarririk egon behar ez lukeen arren, dago. Hortaz, debekatuta dago kontrabandoa. Mugarria soberan dagoela uste duen Piarresek eta, uste horretan oinarrituz kontrabandoa zuzitzen duen pertsonaiak, ziurtasunak baino ez dituen pertsonaia tinkoak, gai soila du besteren irizietara irekita. Kontu bakarra dauka goragoko autoritate batek argitzea eskertuko lukeena: Frantziari atxikimendua gorde, euskal mendi guztietako jabe euskalduna izanaz:

Ez naiz batere Frantses-Herriatik zeiaritu beharrez ari, ama, zeren maitexko dutan Frantses-Herri handia. Bainan, behin ere ez baitiot aiphatu, ongi jakin nahia nindake, jaun erretoarak zer othe dion hortaz? Kastillara batre gabe, eskualdun mendi guztietako zuzenen jabe eskualduna! Hoi hoi loria, ama! (I, 29-30 or.).

Kontrabandoan jarduteaz desenkusatzeko esanak esan Piarresek, etxea Oihanalde du, herria Senpere, Euskal Herria Ipar aldekoa eta Herri Handia Frantzia.

Laburbilduz, Mogelen *Peru Abarkak* adierazitako ikuskerari eusten dio Barbierrek, aurretiko eleberrigileen kokagunean finkatuz. Piarresek balore-sistema jakina zutarri, atsegin du bere bizimodua, nola pilotaz edo mus karta-jokoaz gozatzen, hala kontrabandoan edo elizak antolatutako elizkizun guztietan parte hartzen. Balore-sistema eta bizimoldea bistaratzen ari dela, gerrak atea joko du, nahiz eta eginbeharra garbi daukan Piarres ez asaldatu. Gerrak dirauen lau urteetan gutxitan itzuliko bada ere, dabilzan lekuetara herriko albisteak heltzen zaizkie. Albisteok eta herriratzeko ematen dizkioten baimenak baliatzen dira senpenterrek gerraren nondik norakoei begira dardela jakinarazteaz gain, lehen liburukian jaso gabeko zenbait ohitura gehitzeko, dela

soroetako harrak uxatzeko egiten duten zeremonia, dela senpertainek bizitzako iraganbide desberdinetarako, heriotza, zein ezkontza-eskari eta ezteietarako, dauzkaten protokoloak. Lehen liburukiaren alor etnologikoa bigarrenarekin osatzen da. Gerrak ez dakar etenik ez horretan, ezta Piarresengan ere: lehen nola orain, alderdi zuzenean. Gerrak egoera gogaikarriak sortu izanagatik, ez ditu arazotsu bihurtzen: dagokion eginkizuna betetzen jarduteak sendotzen du. Lehenagoko bizieraren iraupena bermatzeak eskatutakoari erantzuten ari zaio. Garaipena eskuratzean lortuko du.

## 2. GERRA LANGAIEN OSAGAI

Kronikarik ez dago *Piarres Iean*, gutxienez, «Gerla! Gerla!» izenburua daraman XVI. kapitulu arte: lehen liburukiaren azkena. Bigarrenengan ere, askorik ez dagoela ondorioztatu daiteke, kontuan izanik Piarresek urteak igaro zituela Marne, Verdun, Somme, Champagne eta abarretan. «Hitz batez, berrogoi-ta-hamar bat orrialde ditu eskas *Piarres liburua bigarrenak*, gerlako zer guzieren mirail izaiteko osoki» zioen J. Etcheparek argitaratu zen urtean, 1929an, *Gure Herrian* (Charriton, 1984, 362 or.), «gerla izigarri hartako ipizta eta iturburuak», «erresumen arteko hisiak» (361 or.) eta abar ez aztertu izana, eta «siska handiak egin izan ziren eskualdetako berriak laburzkiegi» (362 or.) adieraztea salatuz<sup>10</sup>.

Ez du arrazoi-faltarik Etcheparek; izan ere, pertsonaia nagusiaren gerrako gorabeherak segitzea erabakitzen duen une beretik gerraren kronika egiteko aukera aparta zeukan Barbierrek. Ildo honetara mugatzeak, *Piarres Iean* harilkatutakoarekin haustek, babestu nahi zutena erakusten jarraitzea galarazten zion eta bestela jokatu zuen: gorde beharrezkotzat daukatena ez da desagertzen eta toki narratiboa betez doa, borrokan arreza zehatzagoa jartzeari eskaini zekiokoen tartea xahutuz.

Gerraren iturburuak, bataila-eremuak eta bertako gertaerak xehe-xehe araka zitzakeen, baita jazoera horiek gizabanakoarengan sorraraz zitzaketan sentimenduak eta besterik ere, baina beste langai batzuk eranstea lehenetsiz, aurreneko liburukiarekiko harremana estutzen du.

Gerra Handia amaitu zen urtean argitaratu zen Azkueren *Ardi galdua* zela eta, hone-lan mintzatu zen P. Lhande:

Aussi ne faut-il chercher dans ce roman ni intrigue tont soit peu complexe, ni analyses sentimentales. Peut-être, même, l'auteur eut-il réussi à faire une oeuvre plus populaire s'il n'eût pas abordé un sujet qui demande précisément une étude profonde des sentiments les plus cachés; je veux dire, la conversion d'une âme (1919, 194-195 orr.).

10 *Gure Herrian* «Eritzi eta kitzika» sailean ez ezik, beste nonbait ere jardun zuen Etcheparek *Piarres Itri* buruz: urte berean aldizkari horretan bertan emanaldika kaleratzen hasi zen «Beribilez»-en. Oraingoan, balioespen orokorrak eginaz, zeinahi idazlek bere idazlanarekin lortu nahi lukeen onurarik estimatuena iragartzen dio, irautea, hain zuzen: «Badirauke luzaz gutartean Barbier kartsuaren orhoitzapenak». Kerejeta, M. J. (arg.), 1987, 178 or.

Antza denez, garaiko gaitza da. Lhandek *Ardi galduan* atzemandakoa *Piarres I* eta *II*ra heda daiteke: esan bezala, ez dago, ez intriga konplexurik, ez sinplerik, ezta pertsonaian sakontzerik ere. Azkuek pertsonaia gogoetetan barneratzeko moduko gaia erabili bazuen –fedea katolikoa galdua zuen Medel Olazarretak fede hori berreskuratzea– baita Barbierrek ere, gerrarako deiak gudu-zelaiz gudu-zelai ibiltzea eskatuko dioenean Piarresi. Haatik, batean zein bestean, gatazka deuseztatzen da, pertsonaiaren bat-bateko konbertitzeari esker lehenbizikoan, egitekoa derrigortzat jotzetik ernetako eroapen itzela bide, bigarrenean. Gerra-toki desberdinetako pasadizo batzuen berri emateko eta, batez ere, egoeraren eskakizunen gaineko uste irmoak zenbaterainoko kemena duen azaltzeko bitarteko hutsa du Piarres Barbierrek.

Gakoa, azkenean, eratu duen pertsonaia nagusian dago. Piarres pertsonaia, hain da pertsonaia ziurra, hain da erantzunak dituen pertsonaia eta zalantza zer den ez dakiena, hain da esanekoa (kontrabandoaren kontuan izan ezik) eta errebeldia ukiturik gabea, gerrako basakeria eta gizagabetasuna ere naturaltasunez eta barrenak astintzen ez zaizkiola –barrenak irakin gabe– pairatzeko gauza dela.

Gerra Handiak konfrontazioaren erdi-erdian kokatzen baditu ere, ez Piarresek, ezta bere inguruan dabilzan soldadu euskaldunek ere, bizi dute modu gatazkatsuan arazoa, euskarri duten balore-sistemari esker. Balore-sistemaren oinarri sendoak, bizipenen eragin oro baliogabetzen du: daukan indarrak egokitu zaizkien baldintza zailak menperatzeko gaitasuna du. Balore-sistemaren aginduetara daude eta gerta ala gerta ez dute auzitan jarriko, ez gerrak kausatutako biziera anker eta arriskutsuak, ez beren ohiko hizkuntza agintarian ahotsean ez entzuteak, ezta beste ezertxok ere. Gizatasuna kendu zaien pertsonaiak dira: hala jokatzeko dute behintzat. Aitaren etxea eraso dutenei aurre egitera joan dira eta, nahiz eginbide horretan, edo bizitzako edozeinetan, Jainkoaren nahia betetzen dela sinesten dute, ezbairik gabe. Jainkoaren gogoak gobernatzen dituela dioten pertsonaiak moldatzen ditu Barbierrek. Horregatik, hain zuzen, ingurune gordina bizileku duten soldadu euskaldunak, esku artean duten lantegian akitu arte saiatur, Jainkoaren borondateari makurtzen zaizkio.

Bistakoa da Piarresek gerran igarotako lau urteak berrogeita hamar orrialdetara biltzeko nahitaezko duela laburpena eta elipsia erabiltzea. Kontatzen dituen gorabeherak laburpena eta, batik bat, elipsia baliatuz taxututako zoruan altxatzen ditu. Behin batean gertaturikoa, beste batean jazotakoa... Hautatutako pasadizo hauetan maiz jotzen du denboraren ardatza zehaztera: eguna, ordua, iraupena: «Urtharrilaren ondarrean, 25, 26, eta 27an, fur-furian berriz ere athera zitzaizoten etsaia» (II, 73 or.); «Hogoita hiruan, goizeko bederatzi orenetan, manu bat heldu zaiote orori: *Baionnettes au Canon*» (II, 15 or.) kainoi alemanak gainean zituztelako; «Eta maiatzaren 4ean beraz, arratsaldeko lau oren beretan, (...) gehiago oraino errabiatu ziren gure kanoiak (...). Eta gero, bostak eta erdietan, (...).

Sei orenetan, luzeago oraino egin zen gure sua» (II, 141 or.).

Xehetasunok gudu-zelaian bizi izandako une erabakigarrietara ez ezik, uneok ailegatu aurretik ere hedatzen ditu, hala nola Verduneko bataila-eremura abiatzean, datak

pilatzen dituenen: «aphirilaren 21ean» (II, 112 or.), «maiatzaren 6an. Eta, hamabortz egunez gero» (II, 112 or.), «Hogoiean, (...) bazoazin orai Verdunerat, 21ean eta 22ean han» (II, 112 or.). Herioaren erresuma izango denez Verdun, ataritik bertatik hasten da iragartzen agertoki beldurgarrian sartzeaz daudela.

Alabaina, denbora-marken eransketa ez da atxikitzen egoera larria edo gain-gainean daukatela adierazteari. Ez da gerraz aritzeko gordetzen den baliabidea, ohiko bizimoduko pasarteetara ere zabaltzen baita. Esaterako, Oihanaldeko sendiak «Arratsaldean, bi orenak irian» (II, 106 or.) ikusi zuten erretorea etxera zetorkiela. Kontalariak ordu beteko solasaldia izan zutela gaineratu ostean, bisitariak adeitasunezko ikustaldiaz haratagokoa dakarrela jakinarazi eta, zereginari heltzera bideratuko dira.

Denbora-markak gerraren kronikan metatu izanagatik, ezin ondoriozta daiteke, ohikotasuna eta gerrak eragindakoa bereizteko bitarteko izan dituenik.

Gerra Handiaz ziharduenean historiara lerratzen zen aldetik, leku-denbora mailako argibideak gehitzea eskakizun ere bazituela esan daiteke, pertsonaia nagusiaren «erremenduen» ibilerak egiazkoak zirelako. Hala ere, ez zuen behar besteko zorroztasunarekin burutu historialari lana, ez bakarrik, Etcheparek ohartarazi bezala, motz geratu izanagatik, baita denbora-markak osatu gabe uzteagatik ere: hilabetea, eguna, ordua zehaztu zituen, urtea, ordea, bakanka baino ez, lau urtez luzatu zenean gatazka.

Inoiz laburpenera jo arren, «Eta, bizkitartean, aboztuaren 30etik eta buruilaren zazpigarren eguneraino, hola iraun zuten gure gizon dohakabeek» (II, 28 or.), elipsia nagusitzen da. Elipsiaren oparotasunaren gain eraikitzen den kronika da. Behin edo behin, elipsia esplizitua bada ere –«Egunak, asteak, hilabeteak ere gero joan behar ziren holaxet» (II, 46 or.)– ukaezinezko moduan inplizituak gailentzen dira, jauzika doalako kontagarriztat dituen gauzen artean: «Orhoitzeko egun hetarik batez, arratsalde erditan» (II, 22 or.) jazotakoa; «Buruilaren 8a zen, unhadurak oro kolpez ahantzi behar ziren eguna» (II, 29 or.), pauso bakar bat atzera egiterik ez zeukatenekoa; soldaduei lehen eskutitza ailegatu zitzaizen egunekoa, Piarresi dagokionez, Senperen abuztuaren 22an (urterik gabe) datatutako arreba Mariek igorritakoa; «Arratsalde batez» Piarresek arbolan zeuden bi aleman hil zituenekoa (II, 44-45 orr.); urriaren 4an kapilauak emandako meza (II, 62-63 orr.); euskaldunen meza (II, 69-70 orr.)...

Barbierrek ez zuen helburu gerraren kronikagile izatea, baizik eta zein bizimolde eta balore-sistemaren izenean aurre egin zioten etsaiari azaltzea. Lau urteko nondik norakoen berriak aukeratutako pasadizo batzuetara mugatu dituenak, ez du aurrezten berbaldirik Piarres «permisioneren» batekin Senpereratzen denean. Nahiz eta egun gutxi batzuen salbuespenarekin, gerran iragandako aldia izan, etxeratzeko baimena eskuratzen duenean, hemengo zereginak gerratekoak baino xehetasun gehiagoz hornitzen ditu, dela kantatzen dituen bertsoak testuan jasotzeak, dela erretoreak har kaltegarriak soroetarik uxatzeko erabilitako erritua txertatzeak (II, 107 or.) edo, herriratzu gero, «Biharamunean, bortz orenetako elizarat jo zuen jaun erretorari kofesatzeko eta haren solas bihotz-altxagarrien hartzeko» (II, 103 or.) eta «Arratsaldean gero, hilen bezperak akabatzearekin, Senpere guzia bi lerrotan bazoan hil-herrietara, bethiko proesionea

egin beharrez» (II, 104 or.), jadanik ondo jakina zen Piarresen elizkoitasunaren ezau-garriarekin temati segitzeak, erakusten dutenez.

Gaxuxa gaixotzean ere, Piarresekin batera Senpereratzen da kontalaria. Sendagilea deitzetik «oren bat» (II, 150 or.) itxaron zutela zertzelada emendatuko du. «Etxek-andre Baten Hiltzea» izenburupean kapitulu oso bat hartuko du Gaxuxaren gaixotzeak, heriotzak eta ondorengo hileta-elizkizunak: egoera hauetan betetzen zuten protokoloa ezagutarazten du. Piarres etxeratzen den bakoitzean berriro tradizioei heltzeak agerian uzten du *Piarres IIk*, *Piarres I* osatzea duela eginkizun nagusi, heriotzaren inguruan ohikoa den eginbideak, zein etxe baten jarraitutasuna bermatzera datozen urratsak finkatuz, ezkontza-eskariari eta ezteiei dagozkien formalitateak jakinaraziz. Alor hone-tan senpenterrek daukaten ohiturez aritzea, agidanez, gutxitxo izan eta, Nafarroa Be-heretan zenbaitetan egiten diren «etxe-sartze» handiak gehitzen ditu (II, 202-203 orr.).

Oihanaldeko etxeoandrea zen Gaxuxaren heriotzak, segida abian jartzea eskatzen zuen: ezkontza-eskari eta ezteien antolatzeke eraz jarduteko parada aproposa. Horiek eta gero iritsiko da etxearen iraupena ziurtatuko duen oinordeko berria.

Azkenean, mataza bat ehotzea baztertuz, Piarres pertsonaia dela medio, XX. mendea-ren bigarren hamarkadan senpenterrek zeramaten bizimoldea du gai Barbierrek. Bizimolde honek 1914-1918 urteen artean jasan zuen aldaketaz ere arduratzen da. Batzuk, gudu-zelaian nozitu zuten, besteak, Senperen bertan, guztiak erasanaz, jakina, baita Senperen gelditutakoak ere, Barbierrek gogoratzen duenez:

Ortegungu guzietz gero, *Gerlako Mezara* biltzen ziren etxeke doloratuak oro. Etxe bat ez zen, norbeit meza hartara igorriko ez zuenik. Hiru-hogoi, lau-hogoi, ehun komunioe-taraino bethi (II, 51 or.).

Etxea gorde mezua igortzea jomuga, zaindu behar dutenaren nolakotasuna bistarazteko tresna bihurtzen ditu bi liburukiak.

Bai ohiko biziera, bai gerrakoa, adierazteko erakuskari batzuetara jotzen du. Ez ba-tean, ez bestean, dago egunerokotasunik, bereizitako kontu batzuk baino: soroetatik harrak uxatzeko erretoreak egindako zeremonia; ihesari lotu zitzaion Goienbide lande-txeke jabeari gertaturikoa; frantsesez ez zekien soldadu garaztarrari jazotakoa; eliz festa desberdinetan ospatzen diren elizkizunak; behin batean kontrabandoan egindakoa... Esaten duenean ez ezik, esateko moduan ere, erakuskariak pilatzen ditu. Adibidez, Piarresi igortzen dioten lehen gutuna bere osotasunean jasotzen da. Hitzez-hitz ematen du kontalariak (II, 35-39 orr.), baita Piarresek idatzitako erantzuna ere (II, 41-43 orr.). Erakuskari bat da. Aurrerantzean ere gutunak ailegatuko zaizkien arren, tankera desberdinez baliatuz agerraraziko ditu herritik bidalitako albistek.

Erakuskari hauen bidez, indarrean dagoen ordena zehazten du eta hala jarraitzearen alde egiten: betirako izan bedi. Beraz, euskal etxeari dagoen-dagoenean eutsi behar zaio, ordena hori iraultzera datozenen aurka borrokatuz, nahiz hiritarrak izan, edo euskal etxeak kokaleku duen Frantzia etxea inbaditu duten alemanak.

Berez, Barbierren azken muga ez da Gerra Handiaren kronika egitea, baizik eta euskal etxetzat daukana belaunaldiz belaunaldi berdin-berdin atxiki behar dela irakastea. Helburua betetzeko euskal etxeko bizilagunen balore-sistema eta ohiturak azaldu zituen, baita hauek ezabatzeko asmoz sartu zaizkien hiritar eta alemani nola aurre egin zieten ere. Bada alderik bi etsai hauen erasoek eragindako hitz-jarioaren neurrietan, izan ere, ez ziren maila berekoak, baina biak salatu zituen eta aurkeztutako euskal etxea kosta ahala kosta babestu beharra azpimarratu.

### 3. ETNOLOGIA ETA KRONIKA ETXEA GORDE ALDARRIKATZEKO

Gerra Handiaren hasieraren mendeurrenarekin batera mende erdia egin zuen Gabriel Arestiren *Harri eta Herrik* (1964). Arestik ere, «Aitaren etxea defendatuko dut» zioen *Harri eta Herrin*. Maila ideologikoan elkarrengandik zeharo urrun ibilitakoak bat etorri ziren «aitaren etxea» defendatzean, etxearen harroinen izaera partekatu ez izanagatik.

Aitaren etxea jagoteak darama Piarres gerrara. Abiatu aurretxoan saihesteko aukera bikaina eskaini ziotenean, itxurak gorde barik, uko egin zion. Bat-batean, ordu arte ezezaguna zen pertsonaiak Oihanalde bisitatzen du: Agustin beratarrak. Hona Piarresi luzatzen dion gonbita:

Ez nauzue behar bada, ni ezagutzen. Bainan, nik ezagutzen dut Piarres. (...). Gerla izigarri bat hastera doa. Galbideak oro utzirik, nahi duzu nerekilan ethorri?... Zu bezalako gizon gaztearentzat bada toki gure etxean! Berrehun pezeta zureak dituzketzu, hilabete guzietan (I, 179 or.).

Oihanaldeko sukaldean ziren guztiak asaldatu zituen proposamenari, gisa honetan erantzuten dio Piarresek:

Zertarat ethorria zira gaur, deus nehork galdatu gabe? Ala laido egiten zaioten gizonetarik batentzat daukazu Piarres Oihanaldekoa?... Ez, jauna, ez! Eskualdun lurra ez dut nahi galdu (I, 180 or.).

Agustin beratarrak beraiekin euskal lurrean segituko lukeela argudiatzean, «Ez ordean gurea» (sic) (I, 180 or.) ihardetsiko dio Piarresek. Amnistia bati esker urte batzuetara itzultzea izango lukeela eranstean dioenean, Piarresek, berriz,

Hobenduna da amiztiaren behartzen. Amiztiarik gabe nahi ditut (...) ene aita-ama gaixoak lagundu Oihanaldeko eliz-hilherrietarat, eta amiztiarik gabe, egun batez, nahi naiz etzan nihaurek zaindu eliz-hilherri horietan... Anhartean, zuhaurekin eta zuhaurentzat atxikazu zure diru madarikatu guzia. Nere lagunaren odolaz gorritua ikus niro bethi. Ez dut nahi! (I, 180 or.).

Piarresen ama Gaxuxaren iritziz, «Eta, zuk, Piarres, jakin zazu hila nahiago zaitugula zure aitak eta zure amak, ezen ez eta bethikotz *desohoratu!*» (I, 180 or.).

Gaxuxa ez da horrela pentsatzen duen senpertar bakarra. Senperera aurreneko senperraren heriotzaren berria iritsi zenean, kontalariak, lehenbiziko aldiz, gerra-eremua laga eta, Senpereko albisteak helaraziko dizkio Piarresi. Horien artean, senpertar batek Senpereko erretoreari aitortutakoa: «Jaun erretora, hila dela nahiago dut aditu, ezen ez eta mugaz bertzalderat iragana» (II, 49 or.).

Kontalariak argi utzi nahi du senperraren artean hedatuen dagoen ikuspegia: etxea defendatu. Baita heriotza badakar ere. Eramankorragotzat jotzen dute heriotza, mugaz bestaldera ihes egitea baino.

Bada beste testigantzarik ere, ihesa gaitzetsiz, gerrara joatearen alde egiten duenik. Esaterako, «Aldudeko gerlarien bestan, 1919ko agorrilaren 2an, Etchepare medikuak egin mintzaldia»n adierazitako balorazioak:

Mihian dut *Baigorriko* herritik duela bortz urte xutitu *gazteria* ederra. Muga hurran izan gatik, bat etzen gelditu Parisetik jin hel-oihu saminari gor. A! zoin gogotik zoazin oro gudurat! (Charritton, 1992, 233 or.).

Edo,

Baigorriaren kar bera *Urepeldarrek*, aitzin hartarat helduz geroz. Muga hurbil izan gatik –Baigorri baino hurbilago oraino– hanitzek nahiago ukan zuten beren odola ixuri, eginbideari uko egin baino (234 or.).

Edo,

Zer esanen dut *Bankarrez*, (...) Muga hurbil zen bizkitartean hemendik ere, bainan sorterriaren amodioak hetsia zakoten, mendiak baino goragoko zedarri batez. Euskaldun garbi eta frantses egiazko, etzizaizkon joan bertzalderat (235 or.).

«Gerlarien ohoretan» antolatutako hitzaldi batekoak izateak lagunduko zuen baina, hiru leku desberdinetan dio «muga hurbil izan arren» gerrarako deiari men egin ziotela.

Lau urtera, Alduden zen hizlari Etchepare. 1923ko maiatzaren 13an ospatutako «Gerlako oroitmen aldudarrena» ekitaldian lehengo ustea berresten du:

Izendatiak izan diren hameka gizonak, gure artian bizi ziren (...). Buruzagien deia-darra aditu bezain laster, abiatu ziren halere, bertze aldudar andana batekin (...). Erakuspen eder, urrats miragarri, egiazko gizon egintza! Eta orobat bertze nihungo frantsesena baino merezimenduz handiagoa. Alabainan ihes joateko, muga ondo ondoan zuten: Frantzian gerla, Espainian bakia; hemen griñarik baizik ez eta, bertzeen meneko, beti lanjerrian; hortxe, mendiez bertzaldian, libertatia, deskantsia, irabazpidia, familiaren, noiztenka bederen, nahiz ixilka, ikusteko zoriona. Bainan ez: ihes egiteko xederik gogorat ere ez zitzaien jin (257 or.).

Etxea, herria eta Frantzia ditu «xixpa» hartzeko motibo Piarresek:

Eta Piarresek *badaki* orai zertako den, gaur, xixpa bat eskuan, han, Iguzki-aldeko hiri muthur batean. Frantses-Herriaren mokor bat, mokor ttiki bat zaintzen du harek ere, han, harmetan. Ehun milaka, bertze soldado batzu baziren, non-nahi bertze lur-mokor batzu gerizatzen zituztela hala hala. Eta *Frantzia, Herri Handia, lur-mokor hetaz guzietaz egina zen*. Lur-mokor hetarik bat zen Eskual-Herria, Eskual Herrian Senpereko herria.

Lur-mokor hetan, heien gainean altxatuak, han ziren haren gibelean, aintzinean, ezker, eskuin, orotan, herriak, etxeak, elizak, hil-herriak. Herri hetan, etxe hetan zauden... aita-amak, haurrideak, haurrak, hil gaixoak. Eta, hil eta bizi, hek guziek bakean bizi nahi zuten eta lo egin deskantsuan (II, 11-12 orr.).

Arreba Mariek Piarresi bidalitako lehen gutunean, hitzez-hitz ematen den horretan, arrebak bat egiten du Frantzia menperatu dutenen aurka borrokatzeko Piarresek zituen arrazoiekin:

Jainko horrek berak nahi zuen joan zintezten; Frantzia gerizatu behar zen, eta Frantzia gerizatuz, gerizaturen duzue gutarik bakotxaren herria. Ezen, gure herria zer da, baizen eta *xoko* bat Frantzian? Eta Herriaren amodioa zer da, baizen eta *xoko* horrentzat Jainkoak berak gure bihotzean eman duen kilika edo asikia? (II, 37 orr.).

Bestela jokatu duena arbuiatzen duela ere gaineratzen dio: «Begi onez ez diozoke beha eginbide horri ukho egin dionari» (II, 37 orr.).

Etxea defendatzea Jainkoaren nahia zelako edo, zeregina alboratu duenak zigorra jasoko du. Hala gertatzen zaie Goienbidekoei, Mariek Piarresi igorritako eskutitzak dioenez,

Behazu, Piarres, Goienbidean gerthatu zaiotenari. Mugaz bertz-alderat joan da Baxtixa, bere ama xaharra, bere andrea, bere hiru haurrak hemen utzirik, geroxago horiekin orekin uraz-haindirat, Ameriketarat joaiteko. Hamar egun gabe, haur gaixoetarik bat hil izan da; eta haren ehorts-egunean, aita dohakabea ez zen han, bere lagunaren aldean, gorputz ttikiaren hil-herrietarat segitzeko... Ezkilak *dan, dan, dan* ari, eta mugarri hurbil, bixkar batean, nigarrez ikusi omen dute aita ihes-tiarra!...

Eta, orai hiru egun, Goienbideko andre gaixoa bere bi hurrekin joan da, bere aldian, Espainiarat buruz, eta (...) atzo *erori* da Goienbidea (II, 37-38 orr.).

Piarres «xispa» soinean duela aurkeztu aurretik ere, kontalariak jakinarazia zuen, berak moldatutako pertsonaiek etxea (I, 65, 66 orr.), herria eta Frantzia (I, 29 or.) maite zituztela.

Azken batez, Jainkoa eta etxea ditu ardatz Barbierrek *Piarres I* eta *II*n, Piarres Oihanaldeko oinordekoa ezaugarritzean. Oinordekoaren bizimoldea azaltzeko ohikoaz eta ezohikoaz baliatzen da. Ohikoa da lana, egokitzen denean kontrabandoa egitea,



aisialdi orduetako pilota eta musa, elizak iragarritako elizkizunetan parte hartzea... Ohikotasun horretara zenbait egintza berezi ailegatuko dira: gerra, amaren heriotza, ezkontza. Horiek dira behin bakarrik jazoko zaizkionak, urtea joan eta urtea etorri errepikatzen den egitarautik aterako dutenak. Ohiko bizimodutik idokitzen dutenean, egoera berriari aurre eginaz, berriro lehenera itzultzea du jomuga. Gerrara etxea defendatzen, gerizatzen doa. Amaren heriotzaren ostean, Goñarekin ezkontzen denean, «xutik berriro etxea» dio kontalariak. Etxearen jarraitutasuna Piarresen ahotsean behin eta berriz entzuteak ere, funtsezko duela agerrarazten du.

Lehen partearen agindupean jorratzen da bigarrena, aurreneko liburukiak ezarritako eskakizunei erantzunez doa bigarrena. Gerrako gorabeherak berrogeita hamar orrialdetara mugatzen omen ditu: horrek berorrek salatzen du Barbierrek ez zuela xede nagusi gerraren kronika egitea. Gerra Handia Ipar Euskal Herriko bizilagunek jasan zuten gertari oso lazarria izanik, oraindik oso eraginbera zegoen oroitzapen kolektiboan: triskantza hark sorrarazitako oinazea gainditzeko artean gertuegi zeukaten. Oroitzapen kolektiboan barreneraino sartuta zegoen bizipen basatia gogoraziz, euskaldunak etxea gordetzearen premiaz ondo jabetuta zeudela ezagutarazten du. Gerraz kontatutako pasadizoez, etxea jagoteak eskatutako ahaleginak zenbaterainokoak izan ziren helarazteaz bestalde, Jainkoaren nahia bete zela nabarmentzea dute helburu.

#### 4. ERREALITATE LINGUISTIKOAREN ISLAPENA. ELEBAKARRAK ETXE ELEANITZEAN

Esan den moduan, XX. mendearen bigarren erdi arteko eleberrigile guztiek, jokabideak arautzeko bitarteko bihurtu zuten eleberria, euskaldunaren portaera eredu-garria bistaratzeko leku. Piarres elizaren, etxearen eta hilerriaren gainean bermatzen bada eta Barbierrek *Supazter sokoani* gehitu zion aitzinsolasean benetako euskalduna elizak, etxeak, hilerriak eta mintzairak egiten dutela badio, Hegoa begiratu, hilerria kendu eta, osterantzekoak berdin-berdin daude indarrean. Hegoan, euskaldunak izan beharko lukeena erakustera bideratu ziren eleberrigileek euskara, euskal ohiturak eta fede katolikoa zituzten zutarri zinezko euskalduna finkatzeko. Hitz batean, gurasoengandik, aurrekoengandik iritsitakoak bere horretan iraun dezala. Aipatu adierazleekiko harremanak jartzen du pertsonaia goresteko ala arbuiatzeko irizpidea.

Euskarari dagokionez, hizkera-mailak bereizten direnean, beti erregistrorik landuena kontalariarena da, hurrengo, pertsonaia nagusiarena. Errealitate linguistikoren bat izaltzeko, bigarren mailako pertsonaiaren bati egozten diote eginbidea.

Euskararen errealitate linguistikoaren ezaugarri da euskalki, azpieuskalki eta aldaeretan banaturik bizitzea eta ahoskeran kontrakzioak egitea. Zenbait kontakizunek eremu geografiko errealean tokitu dituzte kontatutako istorioak eta bada pertsonaiaren jatorri edo kokaguneko hizkeraren lekukotasunen bat jaso duenik. Agirreren *Garoan*, kasu, Aloña mendian garatzen da istorioa, nahiz eta ilusio erreferentziala sortzeko

asmorik ez zuen izan, esparru geografiko erreala horretan hitz egiten den euskalkiaren aldaera gipuzkeragatik ordezkatu izanak egiaztatzen duenez. Alabaina, ez zuen etsi gertalekuko hizkera errearen arrastoren bat laga barik. Zabaletako familia haur jaio berria bataiatzeko Oñatira jaisteaz baliatzen da oñatiarren ahotsera hauen hizkerako formak eramateko: «landare *berrixa aldozue?* (1981, 73 or.), «gizon gordiña *zagoz*, (73 or.), «Zer izen ipiñi bihar *xaué?* (74 or.). Edo, Zabaleta baserriko Joanes artzainaren biloba Martin mitinlari agertzen denean Eibarren, honen aurreko hizkera, ekitaldiaren herrikoarengatik aldatzen du<sup>11</sup>.

Barbierrek ere eremu geografiko erreala hautatzen du, baita errealtate linguistikoko aztarnen bat uztea ere. Agirrerren *Garoan* bezala, bigarren mailako pertsonaia baten berbetan mamituko da: Piarresen lagunik handiena den soldadu garaztarraren mintzuran Garaziko euskararen zenbait berezitasun txertatuko ditu.

Arestian baieztatu denez, euskararekiko atxikimendu-maila ere pertsonaiaren ebaluazio-irizpide da. Berriro, Agirrerren aipamena derrigorrezko. *Kresalan* badira zenbait pertsonaia «Bedar txarrak» metaforapean batzen dituenak. Arranondoko belar txarrak dira. Batzuk euskararik ez dakitelako, besteren batek euskara mesprezatzen duelako, gaztelania dute komunikazio-tresna, kontalariak kontakizuna euskaldunentzat egin izanagatik, euskaraturik ematea erabakitzen badu ere. Belar txarrak dira ereduizkotzat daukan balore-sistema hausten dutelako eta, preseski, horiek dira Arranondon gaztelaniaren alde egiten dutenak.

Agirre eleberrigileak hainbestearaino du euskara euskaldunak beharko lukeen balore-sistemako osagai, non sinesgarritasunik gabeko egoerak aurkeztera iristen den. *Auñemendiko Loreako* (1898) Riktrudis frankoen duke zen Adalbaldorekin ezkontzean, Ostrabentora lekualdatzen da; frankoen herrira, alegia. Erbesteratu dela onartzen duen Riktrudis euskaldun eredugarriak euskaraz bizi izaten jarraitu nahi eta, kontalariak dioenez, euskara darabil erbestean:

Riktrudisek, bere atsakabeak (sic) errezago eruateagaitik, eta biotzak alan eskatuten eutsalako, Euskalerrri txiki bat egin eban Ostrabenton.«Erbeste» ipiñi eutsan etxe-ari izena, zerren, lurra gizonentzat erbetea dan legez, erbetea zan Riktrudisentzat prankotarren erria. Baiña guztiz ondo ta Euskaldun bizi zan. Euskeraz itz egiten zan beti Erbesten, euskeraz arren, euskeraz erestu, Euskalerrriko ipuiñak esan, euskaldun ekanduakaz bizi, euskaldunen gisara iantzi... (1966, II, 120 or.).

11 «Langilliak: Euskalerrrixan jaixo naiz, baña euskaldun izatiak ez nau batere arrotzen. (...). Euskalerrri guztia, Eibar izan ezik, abadien mendian dago, ta nik eztot iñon mendian egon gura». Villasante, L. (arg.), 1981, 291-292 orr.

*Garoon*, gatazka linguistikoa irudikatzea ez zuen alboratu: Zabaletara Gabonak igarotzera etorri zirenean pertsonaia nagusiaren seme gazteena zen Juan Andres eta euskaldunak ez ziren honen emazte galiziarra eta semea, kode linguistikoa partekatzen ez zutenak sukalde berean elkar ezin ulertuz<sup>12</sup> kokatu zituen.

Gaztelaniaz mintzatzen diren Euskal Herriko pertsonaiak hobesten duen balore-sistematik aldentzen diren pertsonaia legez ezaugarritzen baditu Agirrek Hegoan, Iparreran jarrera berbera atzeman daiteke, Barbierren aurretik ez ezik, baita ostean ere. Egia da Daskonagerrek frantsesez idatzi zuela *Les échos du Pas de Roland* eta besteek euskaratutakoa dela, egilea gain-gainean zutela, ordea. Horregatik, egileari berari egotzi dakioke euskaraz *Atheka gaitzeko oihartzunak* izenburupean argitaratutako kontakizunean, Ganixen aurka dabilzantzat eta arrotz zaizkionentzat frantsesa gorde izanaren erantzukizuna.

*Piarres II*ren ondotik, *Anttonen*, Marixan Anttonen usteetatik urrutiraten denean, Anttonen balore-sistema urratzen duenean, haren ahotsera frantses gaiztoa darama Iratchetek. Euskara frantsesarengatik ordezteaz bestalde, zuzen beretu ez duen hiztun moduan nortzen du.

*Piarres II*n ez zuen berdin jokatu Barbierrek<sup>13</sup>. Taxutu zituen pertsonaiek euskaraz baino ez dute egiten, gerrara joan behar dutenei hizkuntza-testuingurua aldatzen zaien arte. Ingurumari linguistiko berrian, pertsonaiak baliatu hizkuntzari eutsi zion. Agintari militarrentzat soilik frantsesa (besteak beste, II, 177-178 orr.), soldadu euskaldunentzat frantsesa zeharo baztertu barik (besteak beste, II, 59, 66, 188 orr.), gehienbat euskara eta, azkenik, frantsesaren arrastorik ez zuen soldadu euskaldunik ere bazela ezagutarazi zuen (II, 83 or.). Barbierrek hizkuntza-errealitatea islatzen du, errealitate horren alderdiren batek eragin zitzakeen arriskuak aztertzea saihestuz. Agerikoa denez, frantsesik ez zekien soldadu euskalduna baldintza zailtan zegoen: agintari militarrek frantses hutsa darabilte eta agintari horietakoren batek behintzat etxe bereko duten hizkuntzari ez dio ongi etorririk adeitsuena ematen: «Hé, là! qu'est-ce que vous

12 «Iñondik iñora ezin ulertu zuten alkar Ana Josepak eta bere Galiziko errañak.

–Baneukan zuek ezagutzeko gogoia– esaten zion arrek.

–*No le entiendo a V. una palabra* –erantzuten zuan besteak.

–Esne *sopak* jango alditu mutillak? Urdai azpikoa jarriko aldizuet?

–*Lo mismo que si me hablara V. gringo. Jesús qué lenguaje!*

–Etzaite aserratu, emakumea.

–¿*Qué dice tu madre, Juan?*», 190 or.

13 Eginiko baieztapena berretsiz, azalpen bat. Labur samarra den Iratcheten *Antton* kontakizuneko Anttoni hainbat pasadizo bizitzea suertatzen zaio: etxea erre, indiano bihurtu, II. Mundu Gerran (1939-1945) alemani aurre egitea... baina, kontalariaren berbaldian lekuri handiena hartzen duena Antton eta Marixanen arteko harremana da eta, honen barnean, Marixanek hirian izan duen eraldaketa. *Piarres I* eta *II*k etxea jagotea badute gune, *Anttonek* hiriak dakartzan galerak. Geroago Iratchetek jasoko duen ikuskera, bi liburukiok jendarteratu baino lehen, jada adierazita zeukan Barbierrek, *Supazter sokoan* idazlanarentzat moldatutako hitzaurreak erakusten duenez: «bereziki neskatxa batzu, urthe pare bat edo gehiago hirian egonik, herrirat ethorri eta, *frantsesez* –beren ustez– hasten zauzkularik! Zer *frantsesa*, heiena! Ez frantses, ez kaskoin, ez portuges! Nik ez dakit nongo mintza-moldea duten hura... Ez bethi Frantziakoa!», 39 or. *Piarres I* eta *II*n, haatik, besterik zuen ardatz.

dites dans votre diable de basque?» (II, 72 or.). Antzeko zerbait zioen *Garoako* Juan Andresen emazte galiziarrek: «–Lo mismo que si me hablara V. gringo. Jesús qué lenguaje!».

Esan beharrik ere ez: batak bestearen hizkuntza ezezaguna izateak sorraraz ditzakeen arazoak ez dira parekoak baserriko sukaldean eta gudu-zelaian. Sukaldeko solaskideek itzultzailea izateaz gainera –Zabaletako seme Juan Andres moldatzen da gaztelania-ekin– ahaidetasunak lotzen ditu. Oso bestelakoa da gudu-zelaiko agintari militar –soldadu harremana. E. Bidegainek ohartarazi duenez, «euskaldun anitz frantsesa ez jakiteagatik hil ziren, aginduak ez zituztelako ulertzen» (2008). Barbierren kronikan frantsesik ez zekien soldadu bakarra aipatu eta, gabezia hori bistaratzean, gatazka ekiditen da. Izen bereziarekin izendatzen ez den garaztar batek egin balentriaren ondoren, komandanteak deitu eta, galdetu zion:

D'où êtes-vous, mon brave?

Bustintziarrak frantses tuntik ez jakin! (II, 83 or.).

Barbierrek bideratutako irtenbidea ez tizat eta, aldi berean, lazgarritzat jo daiteke, nahiz eta, euskaldunak noraino barneratu zuen gerra azpimarratzeko lagungarri izan. Oztopoa agerraraztean, itzultzaile-lanaz arduratuko den pertsonaia hantxe bertan:

Eskualdun aphez-gai bat gomenantarenganat mezulari hain xuxen orduan suertaturik, haren medioz jakin zituen aintzindariak berriak oro, eta uste ez zituenak ere bai. (...). Eta bost haurren aita zen, nehor ez zela gauza horri ohartu, eta berak ere deusik ez zakiela hura altxatuz geroztik eginikako legeez! (II, 84 or.).

Garaztarraren zirkunstantzia pertsonalak helaraztean, komandantearen zintzotasuna, erabatekoa:

Ta place n'est pas ici, mon garçon... Des soldats comme toi, j'en voudrais beaucoup. Mais un père de cinq enfants n'a pas le droit de se faire casser la figure... Pour l'instant, je vais te faire évacuer à l'arrière, et nous verrons ensuite à régler ton dossier. J'aurai du reste à le grossir de quelques lignes bien méritées (II, 84 or.).

Ustekabeko gertaera bat tarteko, tupustean, berebiziko oparia garaztarrarentzat, kode linguistikoa partekatzen ez dutenak elkarren berri izateko apaizgai elebidunaz gain, legea betetzeko prest dagoen komandantea eta, horrela, ez tietan ez tiena den emaitza: etxera itzuli. Baina, ez ote gogorra etxean behar zuena, ezjakinean, gudu-eremura eroan izana? Nola ezagutuko zituen beretu gabeko hizkuntza batean idatzitako legeak? Nori zegokion jakinaraztea? Nola ulertuko zituen agintari militarren aginduak? Garaztarrak etxeratzea pozik hartu zuela gaineratze hutsarekin amaitzen du Barbierrek pasadizoaren kontakizuna. Iruzkin eta gogoeta franko egiten dituenak elebakartasunak sortutako traba arakatzea baztertzen du: ez dago arazorik, elebakartasuna ez da gatazka-eragile. Euskaldun elebakarrak euskararik ez zekitenen esanetara egon zirenen testigantza baino ez. Kontakizunera ekarritako erakuskariaren arabera, komunikazio-eragozpenak

gaindi daitezke eta, bidenabar, euskaldunen adorea eta agintari militar frantsesen presutasuna nabarmentzeko balio izan dio.

Esan bezala, bi aldetakoek, Ipar eta Hegokoek, balore-sistema berbera hobetsi dute Barbierren aurretik, zein ostean. Bidegainek «Euskaldunak frantsestu zituen gerla»tzat (2008)<sup>14</sup> jo du Gerra Handia. Hemen behatutakoaren arabera, Lehen Mundu Gerraren hasiera urrun zela –*Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870)– eta bukaeratik mende laurden luzea eta gero –*Antton* (1946)– frantsesa ez dute atzematzen Barbierrek *Piarres IIn* aurkeztu bezain etxeko<sup>15</sup>.

Erdaraz baliatzen diren pertsonaiak arrotzutakotzat dauzkate Daskonagerrek, Agirrek edo Iratchetek. Komunikazio-hizkuntza gaztelania duten «Bedar txarrak» arrotzak dira *Kresalako* arranondotarrentzat, baita *Garoako* Zabaletako seme Juan Andresen emazte Dionisia eta horien seme Juanito ere, ahaide euskaldunentzat. Orobat, *Atheka gaitzeko oihartzunak* kontakizuneko Ganixentzat frantsesa darabiltenak eta hizkuntzaz aldatzen duen *Anttoneko* Marixan Anttonentzat. Aitzitik, frantsesez soilik mintzatzen diren agintari militarrek ez zaizkio arrotzak Barbierri<sup>16</sup>.

Agintari militar horiek ezin izan zitezkeen arrotzak Barbierrentzat, eusten ari diren etxeko bizilagunek hizkuntza desberdinak hitz egiten dituztelako. *Garoako* Juan Andres jaioterritik Gaztelara bideratzean, atzerriratu izana leporatzen dio kontalariak. *Auñemendiko Loreako* Riktrudisentzat frankoen herria erbestea bazen ere, ez Senpereko Piarresentzat Frantzia. Senpertarrek alemaniarren aurka borrokatzeko gudu-zelaia bizitoki dutenean, ez daude atzerrian, beren etxea gerizatzen baizik. Kontalariak jakinarazia zuen, «Eta *Frantzia, Herri Handia, lur-mokor hetaz guzietaz egina zen*. Lur-mokor hetarik bat zen Eskual-Herria, Eskual Herrian Senpereko herria» (II, 11 or.).

Horiek horrela, argi uzten du Barbierrek bata bestearen hizkuntza ezagutzen ez duten etxeko bizilagun direla. Elebakardunek ere eleanitza den etxea dute bizileku.

14 Bidegainek «*Eskualduna* astekariak Mundu Gerraz zabaldu zuen mezua» ikertzen du *Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian* (2013) azterlanean. Hitzaurrean bertan dio, «Eragin handia izan zuen ere euskaldunak frantsesteko bidean», 26 or.

15 Iratcheten *Anttonen* frantsesa ez *Piarres IIn* bezain etxeko, bai horratik, Frantzia babestea. Etxea erretzen zaienean galerei aurre egiten Amerikak lagun diezaieketela eta, bertaratzea eskatzen dio aitak Anttoni. 1937ko urriaren hogeian sartu zen ugazaba amerikararen etxean. Irabazi onak ditu, amak 1939ko ekainean idatzitako eskutitzean jakinarazitakoagatik, aurreikusitako egonaldia aurreratu behar duen arte: «etxerat jin behar duk. (...) Ene pentsatzeko moldean, ixtant bat goiti beheti, gerla segurra duk». Urkizu, P. (arg.), 1990, 40 or. Bigarren Mundu Gerra hastear da eta, amarentzat, «Eta ez bahiz jiten, desertor hiz. Nik ondarrekoa egina diat eta ez diat ene familiat desertorrik ikhusi nahi», 40 or. Barbierrek hobesten dituen pertsonaiek Lehen Mundu Gerraren egunetan aditzera emandako ikuspegi bera azaleratzen du Iratchetek Bigarrenean.

16 *Piarres I eta II* baino lehen plazaratu zuen *Supazter sokoanen*, benetako euskaldunaren harroinak elizan, etxean, hilerrian eta mintzairan jarri zituen Barbierrek. Alabaina, jarraian honakoa erantsi zuen: «Begira... Elizan, Etxean, Hil-Herrietan hartu guzia: sinheste, errespetu, Jainkoaren beldur eta amodio. Horietarik deusik ez erain sekulan arrotzaren aintzinean eta haren beldurrez», 30 or. Nahiz eta puntu eta apartearen ostean, «Bainan, begira oroz gainetik gure *mintzaira*, Eskuara» gaineratu, arrotzaren aintzinean gorde behar direnetatik alagatzen du.

## 5. JAINKOAREN NAHIAK GOBERNATUTAKO ETXEA

Aipatu denez, apaizek taxututako kontakizunetan bada fedea eragindako berbaldirik, baina Barbierren neurrietara iritsi barik, bai oparotasunaren ikuspuntutik, bai gizakiaren menpekotasuna azken muturreraino eramatearen alderditik ere: gizakia Jainkoaren erabakien esku dagoen izakia da.

Jainko zale dira Piarres pertsonaia nagusia eta, eskuarki, euskaldun guztiak: «Jainkoa! Bethi Jainkoa! Orotan ere den bezala, orotan ikusten zuen eta maitatzen gure Piarresek (...). Eskualdunak odolean du hoi, eta Piarres zinez eskualduna zen» (I, 116 or.). Era berean, «Eskual-Herriaren bihotza beraz... *eliza*» (I, 128 or.) erantsi eta, euskaldun guztiak zeruan kokatzen ditu: «ezen, euskaldunik ez diteke zeruan baizik» (I, 128 or.). Euskaldun izaeraren bereizgarri da, ez kontakizunaren orainaldian bakarrik, betidanik baino: «eta eskerrak bihurtu ziozkaten biek... eskualdun Etxeak bethitik begiratzen dituen Jainko handiari» (II, 216 or.). Hala izanik, Piarresen eta, oro har, euskaldunen kristau-fedea-erekiko atxikimendua erakusten duten lekukotasunak ugariak dira. Lekukotasun horiei kontalariak emendatutako iruzkin anitzak batzen zaizkie. Gisa honetan, euskaldunak kristau-fedeaekin duen lotura zenbaterainokoa den irudikatzeaz bestalde, fede hori nola ulertzen duen ere agerrarazten du. Ez zebilen oker Etchepare honakoa egotzi zionean:

Baditake hanitzek beltzuri eginen dakoten oraino *Barbieri*, hil ondoaz bai eta elizako zerez arduregi eta nasaikiegi delakotz heien iduripenerat mintzatu. Aitortuko dut apez euskaldun gehienen itzala dela hori, luma, populuaren argitzea gatik, erien artean dutenean hartzen: akitu ondoan irakurle gaizoa, kexarazten dauzute eta batzutan higuintzen. Ohartzeko lukete, erligioneaz, han-hemenka eta laburzki baizik ez dela behar liburu batean, nola astekari edo egunkarietan, hitz egin: halako hitzak, guziz indarrekin delarik igorria, gibelondo hobia baiterakar buru bihotzetan, elasturiak baino (Charritton, 1984, 362-363. orr.).

Hutsik egiten ez duten bi erakundeak Eliza eta *Eskualduna* aldizkaria dira. Horra, kristau euskalduna gobernatzeko aginpidea dutenak:

Piarresek bazakien zer egin bozkatzeko heieri buruz. *Eskualdun* astekariak errana zion nor ziren heien aintzinerat agertzen ziren bi gizonak, eta gizon hetarik zein behar zuen hautatu eskualdun girixtinoak (I, 140 or.).

Norbere burua eraentzeko bi iturri baino ez, banaketa jakinarekin: bizitza zibila eta erlijiosoa.

Euskaldunak, azken batez, bi etxe ditu, bata aldi baterakoa, bestea, berriz, betikorakoa. Etxeak aterpea, babeslekua, segurtasuna sinbolizatzen du (Pérez-Rioja, 1980, 115 or.). Denboraldi baterako, horratik. Babesleku horri segida emanaz, beste etxera igarotzea lortu behar da. Euskal etxeko bizilagunek izan duten eta duten balore-sistema gordetzeak sarrera bermatuko die.

Beste etxea eliza da. Hau joandakoen eta bizi direnen topaleku da:

Herriaren arima herritarren arimek egiten dutela baitiote, *Eskual-Herriaren arima* han dabil hegaldaka, gure eliza zaharretan, eskualdun egiazko guzien arimak harat bethi biltzen ohi direnaz geroz. Zerua eta lurra, Jainko handia eta gizon ez-deusa, aingeruak eta sainduak, hilak eta biziak, han elgarretaratzen dire, etxe batean etxe hartako burhasoak eta haurrak oro bezala (I, 128 or.).

Amaidun den bizitzan ere, guztia Jainkoaren esku dago Piarresentzat; uneoro Haren borondatea betetzen denaz ziurtasun osoa dauka. Behin, aurrerago emazte izango duen Goñaren «othoitzak eta *medaila* baliatu zaizkit jada, obuza puska edo bala tiki batek zakuaren gainetik ene zapatak ereman dazkidatarik! (II, 41 or.) dio; hurrengoan, sua eta kea bazter guztiei zeriela, «Jinkuak eta Ama-Birjinak beira gitzaztela! Bestenaz!» (II, 144 or.) eskatuko du. «Jainkoak oro zeramazkala orhoiturik, eta haren nahia ez balinbazen, ile bat ez zitziola ereriko gogoan harturik, ikare ilhun itsusirik ez zuen bere baitan sumatzen» (II, 44 or.) bete-bete sinesten du. Eta, obus bat ondo-ondotik sartu eta, hogeita hamabost gizonetatik hamabi harrapatzean, lasterka zihoala, «Eskerrak zor izanen ditiagu berriz ere Jainkoari! Hori zerbeit bazian hatik! (II, 61 or.) oihukatu zuen. Edo, hildako senpertar batzuen izenak izendatu eta gogoratu ostean, «Hots, muthikoak, gaineko Nausiak hola nahi zian engoitik!» (II, 80 or.) gehituko du. Gerran zein ohiko bizieran gizakiaren ibilera Jainkoak ezartzen du. Baita ohiko bizimoduan ere, erretoreak soroetako harrak uxatzeko egindako zeremoniaren eraginkortasunak frogatzen duenez: «Jaun erretora, jaun erretora, badoazi; behazu hunat...» (II, 107 or.) adieraziko du Piarresen arreba Mariek.

Barbier etnologoak bere kontakizuna jendeztatzen duten pertsonaietara sorgina ere ekartzen du. Sorgin kristaua, noski. Dena den, badaezpada, Barbier apaiza sineskeria ororen arriskua saihesteaz ere arduratzen da.

*Piarres* Iean aurkeztua zuen Maria Zaharrak elurrak zoko guztiak zurituta zeuzkan gau batean jo zuen Oihanaldeko atea. Beranduegi ez ote den etxera itzultzeko gainera-tzen diotenean, Maria Zaharraren ihardespena,

Zer munta du, eta noren beldur behar naiz? Sorginen?... Bakharrak baitut ikusirik nere bizian aireko horietarik, intha guzietan, eta bethi gauaz!... Ez dute nere gainean ahalik! Sorgina ez naiza nihaur? (I, 86 or.).

Gaxuxaren heriotza dela eta, dator berriro Oihanaldera. Hona bere otoitza Gaxuxaren gorpu aurrean:

Jainko onak bere lorian harturen zaitu, (...). *Lehenagoko euskaldunek hola egiten ohi zutela*, ongi nahiko zuen xirio xorta bat ixuri Oihanaldeko andre maitearen gorphutzairen gainera, *gorphutz hura gogor geldi zadien eta oso kaxaren barnean...* Bainan ez zen hartarat atrebitu; eta, ongi othoitz eginik, atheratu zen, galdeginez hatik «hautara bat ile-orratz eman zezaten kaxaren barnean... *Bazakiela harek zertako...*» (II, 160 or.).

Barbierrek, jakina, ez du ahantziko ile-orratzarekin gertatutakoa ezagutaraztea: «Arratsean, bere soineko ederrenekin kaxan eman zen hil maitea, eta *ile-orratzik gabe batere*» (II, 161 or.).

Argi eta garbi, aztikeria guztiak deuseztatu gura dituen Barbier elizgizona gailentzen zaio etnologoari. Elizaren errituek helburua eskuratzeko duten ahalmena bistaratzeaz bestalde, beste jatorri batekoak ezabatzea gomendatzen du, zeren eta gizakia Jainkoak gobernatzen du.

Gizakiaren gaineko erabateko aginpidea Jainkoak baldin badu, ez da makala aginte horren oniritzia izatea. Kontakizun den gerran Jainkoa Frantziarekin dago:

O Jainkoa, Jainko zaintzalea, / Frantses Herriaren kontsolatzalea, / Hel! hel! gure gerizatzailea. / Hel, hel othoi, etsaien xehatzalea!

Alemana, JAINKO ZAHARRAREKIN / Pozoin traidore guziekin; / Jin dadila... nahi duenarekin! / Zer zauku?... Jauna da gurekin! (II, 52 or.).

Piarresen arreba Marierentzat ere, Jainkoak nahi zuen Frantziaren alde borrokatzera joan zedin.

Jainkoa Frantziarekin bada, Haren gogoa da gorde dezatela. Horregatik edo, gerra ekiditeko muga igarotzen duena berehala zigortzen da, Goienbideko nagusiaren ihesaren eskarmentutik ikas daitekeenez: ordudanik zoritxarra lagun, ezbeharraren atzetik.

Seguruena benetako gertari batez dihardu, besteak beste, izen bereziaren jabe egin dituelako. Nolanahi ere, egiazko ala asmazioaren fruitu izateak ez du aldatzen xedatu zaion eginkizuna: Jainkoaren borondatea da euskaldun soldaduek Frantziarekin konprometitzea gaztigua indartu. Frantzia gerizatzean, beren etxea, bizileku duten etxea bera, babesten ari dira.

Fikzioaren denboraren iraupena laburra izanik ere, zeinahi eleberrigile behartuta dago berbaldira eroango dituen kontuak aukeratzera. Leku egin ala baztertu ariketarekin hasitako baheketari, bereizitakoa moldatzeko era batzen zaio. Burubide erabakigarriak mezuak geruzatzen dituztelako: nabarmentzen denetik osagarrizko betelan mailakora. Barbierri dagokionez, zeharo tolesgabeki bete zuen zeregina; izan ere, aski da begiratzea nola ahots desberdinak baliatuz iritzi berbera azaltzen duen edo adiera partekatzen duten gertaerak kontatzen dituen, beheragoko mailan kokatutakoak errepikatzen ez dituenen. Iragarritako bi baliabideak erabiltzen ditu iteratzeko mugaz bestalderako ihesaren gaian eta, horietakoren bat beste batzuetan, dela hiritarren portaera okerra pasadizo batean baino gehiagotan jasotzen duenean, dela euskaldun soldaduak gerrara joatea Jainkoaren nahia izan zela kontalariaren, Piarresen, Marie-ren... mintzurretan, frantsesik ez zekien soldadu bakarrari behingo batean jazotakoa jakinarazi eta kito egin zuenean. Azkenean, irakurleari irakurketa ezartzen dio, kontakizuna itxuratzean, nola hartu ere finkatu izanagatik: irakurketa bakarrekoa den testua gauzatzen du.

Hegotik eta, ia mende erdi geroago izan arren, bada oso bestelako ikuskerarik eta, ondorioz, besterik azpimarratzen duenik. Gorka Knörr abeslariak «Azken agurraren



negarra» (1975) abestiko ahapaldi bakoitzaren ondotik kantatzeko ondutako leloa lelu: «Morts pour la Patrie, / morts pour la Patrie, / eskuara baizik etzakiten haiek, / morts pour la Patrie».

Barbierrentzat, ordea, Jainkoaren nahiari erantzun zioten eta uste hori duenarentzat, Jainkoarekiko esanekotasunera makurtu eta Haren aginduak onartzea baizik ez dauka gizakiak.

Eliza katolikoak Jainkoari jarri dizkion ezaugarrietan orojakiletasuna, noranahikotasuna, ahalguztiduntasuna, ontasuna, errukitasuna eta abar aurki daitezke. Nolokotasun hauen artean elkarrekin uztartzen zailenak ahalguztiduntasuna eta errukitasuna izan daitezke, batak bihozgabetasunera eta, besteak, bihozberatasunera igortzen duten aldetik.

Behin edo behin Jainko errukigarria, penitentziagileaz urrikaltzen den Jainkoa agerarazten du:

Jaun erretorak hala galdeturik, herri guziak barur egin zuen ortziraile batez, eta kurrutzearen-bide bat egin zen (...). Egun hartan berean, gerlako azken gudueri buruz, eritasun tzarrari buruz, Ama Birjinaren iduri eder batentzat behar zen diru guzia nasaiki bildu zen. (...). Eta –ez zenez miraikulua– *arrats hartan berean gelditu zen izurrite ikaragarria*, senpertar bihi bat ez baitzen gripatik joan orduz-geroztik, auzo herrietan oraino nigarrez ari zirelarik... (II, 180-181 orr.).

Alabaina, zalantzarik gabe, Jainko ahalguztiduna nagusitzen da. Inolako autonomia ez duen izakia da gizakia, Jainko guztiahaldunak gobernatzen duen txotxongiloa: den bezala ahalguztiduna izanik bere esku dago gizaki bakoitzaren bizitzaren norabidea: obusak edo tiroak nor jo eta nor libratu erabakitzen duen, sariak eta zigorrak banatzen dituen Izaki Gorena. Nahiz eta erabakion eustazpiak ezezagun izan gizakiak, ezbeharra, zoritxarra, hobesten den balore-sistema urratu duenen batek jasaten badu, Jainkoak xedatutako zigorrari egozten zaio. Piarres, Jainkoak hala nahita, onik atera eta, bere xedea lortu zuen, Oihanalde etxeari segida ematea, hain justu. Haatik, Barbierrek ez du argitzen zergatik Jainkoaren borondateak bestela jokatu zuen beste askorekin.

## 6. ONDORIO GISA

Mende erdi luzean, euskal eleberria argitaratzen hasten den XIX. mendearen hondarretik XX.aren lehen erdia gaintitu arte, ez da kontatu istorio bakar bat ere, ikasbide gabekorik. Denek izan dute jomuga euskaldunaren portaera arautzea. Portaera-arautze jardunean etxearekiko lotura bihurtzen du gune Barbierrek. Etxea gorde. Horra hor, bi liburukien arteko lokarria. Arrotzaren inbasioetatik landetxea gerizatu, dela jauregi ederrarengatik ordezkatu nahi duen hiritarretik, dela alemaniarrengandik. Kanpotarra saihestuz, aurrekoek helarazitako baloreak bere horretan iraungo dute. Etxea oinarrien gain eraikitzen da: seme-alabek gurasoek utzitako ondarea dute euskarri: sinesmen,

ohitura, balore... Jasotako ondarea babestea eta hurrengoei transmititzea da belaunaldi bakoitzaren erantzukizuna. Urtearen egutegiak dakartzan zereginak lehenagokoek erakutsi moduan burutu, bizitzako iraganbideak gurasoak igaro bezala iragan (ezkontza, heriotza...), ezagututakoa berdin mantentzeko. Horregatik etxea inbaditu duten atzerritarrak jaurti behar dituzte, hauek indarrean dagoena baliogabetuko dutelako. Etxearen jarraitutasuna hautsiko dute. Heriotzak hauts bihurtu dituenen eta hauen ondorengoen arteko segida etengo dute, ez bakarrik beste arbaso batzuk izateagatik, baita beste sinesmen, ohitura, baloreen arabera bizitzeagatik ere.

Etxea eraikuntza bat da. Eraikuntza horretan bizi da familia. Odolekoa den familia eta politikoa dena. Bi familiak zaintzea dagokie, familia politikoaren hizkuntza ezezaguna izatearen gaineratik, nahiz eta familiarteko guztiek komunikazio-tresna ez partekatzeak ondorio garratzak eragin, gudu-zelako hizkuntza ez dakiten kideen heriotzariskua emendatzean. Bata bestearen kode linguistikoa deskodetzeko gauza ez izan arren, ez dira kanpotar. Familia politikoarekin bat egitea komunikazio-tresna berdina daukatenen artean babesteari lehenesten zaio. Ez soilik lehenetsi, baizik eta, bestela jokatzeko duena, gaitzetsi.

Azken batez, indarrean dagoen ordenaren iraupena aldarrikatzen da. Gobernatzen dituen ordenan aldaketaren bat sorraz dezakeenari aurre egiten zaio: erosiz edo indarkeria erabiliz, etxeaz jabetzera datorrenari. Etxean agintari gorenena Jainkoa da, Honen eskuetan baitago banakoaren etorkizuna: Jainkoaren nahia betetzen da nonahi eta noiznahi beti.

Corpus etnologikoak hobesten den bizimodu eta balore-sistema agertzen du. Etnologiari kronika gehitzen zaio, corpus etnologikoan azaldutakoa eusteko familia politikoarekin batera egindakoa aditzera emateko. Berez, kronika deitutakoa Gerra Handiko pasadizo batzuk kontatzera mugatzen bada ere, eskuratu duten ondarearekiko duten atxikimendua erakusteko bitarteko da. Kronikak, arrotza etxetik botatzeak eskatutako ahaleginaren berri gaingiroki azaltzen du, baina kostu handiak izan zituela jakinaraziz. Ahalegin hori corpus etnologikoan bildutakoaren iraupena bermatzeko izan zen.

## 7. ERREFERENTZIAK

- Agirre, D. (1898). *Auñemendiko Lorea*. Bilbo: Euskalzalaren moldagintza. Erabilitako edizioa: 1966. *Auñemendi-ko Lorea / La Flor del Pirineo*. II. Donostia: Auñamendi, 2. argitalpena.
- Agirre, D. (1906). *Kresala*. Durango: Florentino Elosu.
- Agirre, D. (1912). *Garoa*. Durango: Florentino Elosu. Erabilitako edizioa: Villasante, L. (arg.), 1981. *Garoa*. Oñati: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 5. argitalpena.
- Aguiar e Silva, V. M. de. (1975). *Teoría de la literatura*. Madrid: Editorial Gredos.
- Apestéguy, L. (1926). *Piarres* roman Euskarién par Jean Barbier. *Gure Herria*, 609-613 orr.

- Aresti, G. (1964). *Harri eta Herri*. Zarautz: Itxaropena.
- Azkue, R. M. (1918). *Ardi galdua*. Bilbo: Jesusen Biotzaren elaztegia.
- Barbier, J. (1924). *Supazter sokoan*. Baiona: A. Foltzer. Erabilitako edizioa: Valencia Tirapu, E. (arg.), 1987. *Supazter sokoan*. Zarautz: Itxaropena.
- Barbier, J. (1926). *Piarres I*. Baiona: S. Sordes. Erabilitako edizioa: Sanchez, R. (arg.), 1992. *Piarres I*, Bilbo: Ibaizabal.
- Barbier, J. (1929). *Piarres II*. Baiona: S. Sordes. Erabilitako edizioa: Loidi, A. (arg.), 1996. *Piarres II*, Donostia: Mensajero.
- Bidegain, E. (2008). Euskaldunak frantsestu zituen gerla. *Berria*. Azaroaren 11a.
- Bidegain, E. (2013). *Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Charritton, P. (1984). *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal Gaiak*. Donostia: Elkar.
- Charritton, P. (1992). *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak. IV Kazetaritza (B). (1916-1935)*. Donostia: Elkar.
- Daskonagerre, J. B. (1870). *Atheka-gaitzeko oihartzunak*. Baiona: Vve Lamaignère.
- Eizagirre'tar, J. (1948). *Ekaitzpean. Ipuin berri*. Buenos Aires: Editorial Ekin.
- Etchepare, J. (1929). Beribilez. *Gure Herria*, 5-6, 425-438, 531-544 orr. Erabilitako edizioa: Kerejeta, M. J. (arg.), 1987. *Beribilez*, Zarautz: Itxaropena.
- Etxeita, J. M. (1909). *Josecho*. Durango: Florentino Elosu.
- Etxeita, J. M. (1910). *Jaioterri Maitia*. Erabilitako edizioa: Sarriugarte, I. (arg.), 1988. Bilbo: Labayru Ikastegia, Caja de Ahorros Vizcaína.
- Iratchet, J. P. (1946). Antton. *Herria*. Erabilitako edizioa: Urkizu, P. (arg.), 1990. *Antton*, Donostia: Etor.
- Irazusta'tar, J. A. (1950). *Bizia garratza da...* Buenos Aires: Editorial Ekin.
- Iser, W. (1989). La estructura apelativa de los textos. Warning, R. (arg.), *Estética de la Recepción* (133-148 orr.). Madrid: Visor.
- Knörr, G. (1975). «Azken agurraren negarra». *Nik Nahi Dudana* diskoa.
- Lafitte, P. (1933). *Parmi les compositeurs de cantiques basques: M. le chanoine Gratien Adéma (1828-1907), M. L'abbé Jean Barbier (1875-1931): conférence donnée au grand Séminaire de Bayonne le 2 Mars 1933 sous la présidence de monseigneur Lasserre*. Bayonne: Imprimerie de la Presse.
- Lhande, P. (1919). Chronique de littérature basque. *RIEV*, 10, 190-200 orr.
- Mendi-Lauta. (1937). Loretzo. *Eguna*, II-14, II-18, II-21, II-27, III-3, III-6, III-7, III-11, III-16, III-20, III-21.
- Meregalli, F. (1989). *La literatura desde el punto de vista del receptor*. Amsterdam: Editions Rodopi.
- Mogel, J. A. (1881). *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la universidad de Basarte ó Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*. Durango: Julian de Elizalde.
- Pérez-Rioja, J. A. (1980). *Diccionario de símbolos y mitos*. Madrid: Editorial Tecnos.
- Robert, M. (1973). *Novela de los orígenes y orígenes de la novela*. Madrid: Taurus Ediciones.

**ERRESEINAK**  
**RESEÑAS**  
**REVIEWS**





### Esteve Materraren *Do(c)trina Christiana* (1617 & 1623). Edizioa eta azterketa

Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Ekaitz Santazilia,  
Borja Ariztimuño, Oxel Uribe-Etxebarria, Urtzi Reguero  
Bilbo: Euskaltzaindia & UPV/EHU, 2017, 318 orr.  
ISBN: 978-84-946477-5-8

Hala euskal testuez, eta haien historiaz, den mendre-  
neko jakin-mina dutenek, nola euskararen diakonia eta  
haren aldakortasuna gogoetagai dutenek, orok, begitarte  
onez eskuratuko dute, bazela jakinagatik, egun arte ezin  
ikusizkoa zuten Esteve Materraren *Do(c)trina Christia-  
naren* 1617ko lehen argitalpena, berriki Euskaltzaindiak  
eta Euskal Herriko Unibertsitateak liburu gisa arras eder-

ki plazaratu dutena, egileek, bidenabar 1623ko bigarren argitalpenaren edizioa ere  
egiten, eta bi testuak elkarren artean konparatzen zituztela. Halakoei, eta bereziki,  
ene gisa, urteetan aitzinatuxeak direnei, are agradatukoago zaie liburua, edizio eta  
azterketa lanak (baita 1617ko argitalpenaren ale bakarraren Kopenhageko Erret Bi-  
bliotekan deskubritu izana bera ere) euskal hizkuntzalari gazte batzuei zor zaizkie-  
la ohartzearekin. Alabaina sei lagun gazteren izen-deiturak agertzen dira egileen ler-  
roan, denak *Aziti Bibia* deitu hizkuntzalarien eta filologoen ikerketa elkartekoak. Berri  
pozgarria, beraz, alderdi askotarik, edizio honek argia ikustea.

Edizioa, bestalde, ereduak dela erran daiteke, esperantza izatekoa baita hemendik  
aitzina holako lanei lotuko zaizkienak –diren gazteak edo ez hain gazteak– eredu horri  
ahal bezainbat jarraikitzaera bermatuko direla. Atalka ikus dezagun nola antolatua den  
liburua: 1) testuinguru historikoa eta autorea; 2) obrak izandako argitalpen eta aleak  
eta bi argitalpenen arteko konparaketa; 3) edizio-irizpideak; 4) eta 5) bi argitalpenen  
testuak; 6) Hizkuntza azterketa; 7) hiztegia eta adizkitegia.

## 1. EDIZIOAK

Bost urteren aldearekin egin ziren lehenbiziko bi argitalpenen edizio bereziak bata  
bestearen ondotik eskainiak dira (39-64. or. 1617koa, 65-127. or. 1623koa). 1617koa,  
gainera, facsimilean ere emana da liburuaren hondarrean, eranskin gisa edo (281-318.  
or.). Eskertzekoa da egiazki, ustekabeko irakurraldiak gertatzen direnean, baliagarri  
baitzaio irakurleari jatorrizko testu inprimatura jo ahal izatea. Adibide gisa, batere  
garrantzirik gabekoa baina bere xumean argigarria den I. de Guilantenaren 1616ko  
aprobazioa aipa daiteke. Hartan examinatzaileak aprobazioa non egin duen argitzeko,  
*Issatsun* egina duela erraten da edizio testuan<sup>1</sup>. Hitzak ez baitu oharrik, irakurleak

<sup>1</sup> *Itsasun* hitzean, lehen argitalpenak frikaria bi s luzerekin (ff) adierazten du; eta afrikatua <tʃ> digrafema-  
ren bidez (Iffatʃun) (282. or.), inprimatzaileak trukaketa egitean, afrikatuaren digrafemako t eta s luzea  
nahasirik hain segur (tʃsff).

faksimilera joz, 1617ko testuak *Issatsun* dioela segurta dezake, eta gisa horretan suma, inprimatze errakuntza baten ondorioz, frikariaren eta afrikatuaren digrafemak bata bestearen lekuan ezarriak izan direla; bestalde, nola ondoko argitalpenaren testuaren edizioan hitzak beste itxura bat baitu (*Issatsun*), 1623ko testuan ere horrela datekeela ondorioztatzen ahal du, kasu horretan, haatik, segurtabiderik ez duelarik, 1623ko argitalpenaren testuaren facsimilerik ez baitu (ene ustez, orri kopuruen kontuaz landa, onik baizik ez zion ekarriko liburuari facsimile hori ere sartu balitz hartan, testu hura bestea baino eskura errazagoa izanagatik, ez baita halere hain aise kausitzen<sup>2</sup>.

Egoki eta garbiki ekarriak dira bi testuak, aurretik edizio irizpideak xeheki azaldu ondoan (34-37. or.). Testuen arteko aldeak, edizioan berean orri bazterreko oharretan agertuak izanagatik, egileek azpikapitulu berezi batean agerian ematen dituzte, argitalpenen arteko konparaketa sistematikoa eginez, eta ondorioak bildurik (28-38. or.).

## 2. TESTUINGURUA

Argitalpenaren atarian, «Testuinguru historikoa eta autorea» izeneko kapitulu batean, egileek garaiko testuinguru soziolinguistikoaz informazio beharrena ematen dute. Bi aleen deskripzioa (izariak, estalkia, ur markak...) zehazki eta argiki aztertuak dira.

Holako ekoizpen bereziak zer gisaz euskarari egin ziren ulertzeko, baita euskararen historian izan zuten eraginaren izartzeko ere, katiximek berez doakien historia kontuan hartzekoa da. Filologia baino gehiago, historia eta, oroz gainetik, Elizaren eta herri hezkuntzaren historia hunkitzen duen puntu honi buruz, egia erran, kausitu ditugu atariko kapitulu honetan ahulgunerik nabariarik. Deus guti erraten zaigu XVII. mendea arte Euskal Herrian, edo Lapurdiko elizbarrutian, giristinoen doktrina nola irakatsi zen erakusteko. Ez da harritzekoa, gai hori historialariek, nik uste, merezi zuen bezainbat ez baitute landu eta ikertu. Frantzian ere, oro har, halaxe gertatu da nahiz katiximaren irakaskuntzaren kultur eragina populuko jendeak baitan orain ororentzat argi den:

En créant des écoles où l'écriture, la lecture et l'enseignement du catéchisme s'effectuent en langue vernaculaire, les Eglises réformées et catholique ont été à l'origine d'un mouvement culturel pour le peuple sans précédent, qui marque d'une empreinte durable toute l'époque moderne (Molinario, 2013: 61).

Katiximen kasuan, alderdi historikoak zerikusituzena du testuekin berekin, zeren Europa guzian, bereziki Frantziako eta Espainiako erresumetan mendez mende, bereziki XVI. mendearen erditsutik hara indartuz joan den erlijio hezkundearen ondorio dira katiximak, Materrarena barne, eta guziz arrazoizkoa da liburua erdarazko zenbait doktrinaren egokitzapena izan zela pentsatzea. Frantziako testuingurua kontuan

<sup>2</sup> Kasu horretan ere ale bakarra gelditzen zaigu Ingalaterran, *Bodleian Library* delakoan; halere, edizio bat franko berria badugu: Materre, E. [1623] 2008. *Dotrina Christiana*. Bilbo-Derio: Labayru Ikastegia.

harturik, bada hor ikerketa gai bat, ahantzi gabe, haatik, Trentoko kontzilioko katixima ezin baztertzeko erreferentzia izan behar zela<sup>3</sup>.

### 3. ALEAK

Materraren dotrinak bi argitalpen baino gehiago izan zituen. Autoreek zehazki azaltzen digute noizkoak izan ziren ondorengo argitalpenak, stemma ere eginik (27. or.), haien erlazioen erakusteko. Lehenaren eta bigarrenaren arteko aldeak bereziki aipatzen eta azaltzen dira liburuan, bigarren argitalpena luzeagoa baita eta bestela osatua. Horri dagokionez, interesgarria da, Materrak berak, bigarren argitalpenean egin diren aldaketak aipatzean (*iracurçailleari* egin abisuan, 69-69. or.), lehen argitalpenari eginikako kritikak gozotan izan zituela eta kontuan hartu zituela:

Nola bethiere aprendiz eta ikas-behar baicara, eta gaitz baita obra baten alde guztiz juben nehorc ecin arbuya deçaqueyen beçala eguitea, beha egotu naiz ea cer erraiten çuten iendec nic cēbait urthute duela efçuiribatu nuen Guirifinoaren Dotrinaz, eta ediren dut ecen batçuen artean hartçaz cebilan solhafa, eta erraiten cena cela Dotrina eta Dotrinaren declaratioa ez elkarrequin, baiña beregainqui eta bereciqui bi partetan ibeni behar cirela. Bada halaco hrl atfeguín eguiteagatic, eta renoni ere ez tela gaizquia-go idurituric bereci ditut elkar ganic, eta eguin bi parte.

### 4. AUTOREA

Eskertzekoak dira Materraren biografiaz ematen diren informazioak, asko, nire us-tez, ezezagunak. Deituratik beretik hasten dira: orain arte, *Materre* zen autorearen deitura, editoreek azpimarratzen duten bezala. Hargatik, 1617ko argitalpenak argiki erakusten du euskaraz bederen *Materra* zela erabiltzen zen forma, bai berak, bai aprobazio emailek horrela idazten baitute haren deitura.<sup>4</sup> Edizio honek, bestalde, informazio berri batzu ekartzen ditu, Materraren euskalduntzeaz. Bagenekien, jadanik, euskara Saran ikasia zuela, 1623ko argitalpenean ere *euskaldunei* egin oharrean erranik baitago. Orain badakigu, ikasi bazuen, eta Saran ikasi, Etxauz apezpikuak erranik egin zuela. Honela dio 1617an apezpikuari egiten dion eskaintzan:

Eta arraçoñaren eta çucenaren arauaz-ere ene euscarac bere lehenbicico agurra eta eçagutça çuri eguin behar cerautçun, ceren nic hitzcuntça hunetan daquidan guztia çuri çor bai-terautçut: çure errana gatic, çuc esporçaturic, bihotz emanic, eta are egoiteco lekhua-ere çuc cerorrec Saraco herria seiñalaturic, daquidana han ikhassi bai-tut. <9>

3 Trentoko Kontzilioko Katixima hori (1566koa) apaizentzat egina zen bereziki, eta haren edukia ez dagokio Materraren idazlanari. Hurbilago da, dudarik batere gabe, Bellarminoren katixima, baina bi idazlanak konparatzen direnean, argi da, halaber, Materraren lana ez dela haren itzulpen hertsia.

4 Ez dirudi frantsesez edo latinez *Materra* forma erabiltzen zuten. Bigarren argitalpenean, apezpikuari frantsesez eginikako eskaintza izenpetzean «F.E. Materre» ezartzen du berak. Hala egiten dute, Oyharard Bikario jeneralak bere latinezko baimenean, eta frantziskotar probintziako ministroak ere bere aprobazioan.



Eta hala, baldin ene enseiu hunec ohoreric edo laudorioric batere mereci ba-du, çuri dagotçu guehiena eta principalena, *ceren çu içan bait-çara hunen cimendua eta ithurburua* [40. or. azpimarra, nirea].

Oiharard Bikario jeneralaren umorezko hitzen arabera, laster ikasi zuen euskara Materrak, hamar edo hamabi hilabetez<sup>5</sup>:

Està mira & si vehar vt sic æs quo aram vallim vada, verri qui da fit æs & amar edo amau hi lauet æs i cassia: non dic adit cera hem manda edo æs quo ara icas te quo e re is da tela, edo oro rem crea sale ac spiritu eder e tona hem manda colla icas sale verari. Vi ac ære sines te quo dira, as quæna sines te quo ago [43. or.].

Materraren lana lapurteraz idatzi lehenbiziko liburua dela arrazoiz erraten ohi baita, ohargarria da liburua, oraingo hitzetan, euskaldun berri batek egina izana. Badirudi gainera prediku alkitik ere zabaltzen zuela doktrina; hala aditzera ematen dute, eskaintza hitzeko erran zenbaitek: «Eta et-çait iduri asco dela cadiratic predicatuz probetchu egitea eta erakustea, baiña are uste dut esquiribuz-ere behar dela enseiatu eta trabailatu» (41. or.).

## 5. ERREFERENTZIAK

Molinario, J. (2013). *Le catéchisme, une invention moderne : de Luther à Benoit XVI*. Paris: Bayard.

Beñat Oyharçabal  
CNRS-IKER UMR 5478  
b.oyharcabal@yahoo.fr

5 Hitz latinezko euskara bitxi horren irakurketa errazten dute editoreek euskal hitzetan emanik: «Ezta mira-etsi behar [h]utsik eskoaran balin bada; berriki da fitez et[a][h]amar edo [h]amabi hilabetez ikasia, nondik aditzera eman da edo eskoara ikasteko e[r]reix datela, edo ororen krezaleak [e]spiritu eder et[a] ona eman dakola ikaszale berari. Biak ere sinesteko dira, azkena sinestekoago».

# Idazlanak aurkezteko arauak

Idazlan argitaragabeak onartuko dira, Foru Komunitateko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatziak, euskaraz edo gaztelaniaz, baita frantsesez edo ingelesez idatziak ere.

